# Goienkaria

2009ko ekainaren 12a > Egubakoitza > IX. urtea > 380. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net



**"EAren erronka nagusia da egoera honetatik irten eta ilusioa sortzea"**

**Pello Urizar**
Arrasateko EAko zinegotzia > 09

**G2a** Txapa Irratiaren 25. urtemugako jaialdia > 37

**BERGARA** Meskita zabaldu nahi du pakistandar komunitateak > 19

**OÑATI** Egubakoitzetik domekara arte Corpus jaiak ospatuko dituzte > 38

**ESKORIATZA** Aste Zapatistari amaiera emateko jaialdia egingo dute bihar > 29

UDA > BAINU DENBORALDIA

## Bihar, zapatua, hasiko da udako denboraldia bailaran

**HASIERA** Arrasaten eta Eskoriatzan kanpoko igerilekuak bihar, zapatua, irekiko dituzte

**HILAK 15** Oñatin eta Uribarri Ganboako urtegian astelehenean, hilak 15, hasiko da udako denboraldia

**BERGARA** Kanpoko igerileku berriari azken ukituak ematen ari dira eta uztailaren 1a aurretik zabaldu nahi dute > 02-03

AZPIEGITURAK > AHT

## Etzi, AHTren kontrako agerraldia

Eztabaida kalera ateratzen jarraitzeko prest dagoela esango du Elkarlanak Arrasaten > 05

### AEDk 'Denok elkarrekin' jaira gonbidatu ditu Arrasateko herritarrak

Iaz betetako 25. urteurrenaren ospakizunei amaiera emateko, domekarako *Denok elkarrekin* izeneko jaia antolatu du AEDk. Adin guztiendako askotariko ekitaldiak antolatu dituzte, Biteri plazan. Esaterako, eguneko ekitaldi nagusia izango den bazkarirako, 300 lagunendako paella erraldoia prestatuko dute.

AEDk herritar guztiak gonbidatu ditu, eta euskaraz ez dakitenei ere zuzenduta dagoela adierazi dute. Jaiaren izenean islatu gura izan dute euskalduntzea denon eginbeharra dela. > 13




**DENOK ELKARREKIN** AED eta beste elkarte batzuetako kideak elkarrekin domekako jaiari babesa emateko. JOKIN BEREZIARTUA

AURKIBIDEA

**Debagoiena** > 05-07
**Iritzia** > 08
**Elkarrizketa** > 09
**Gutunak** > 10
**Herriak** > 13-33
**Kirola** > 34-36
**Kultura** > 37-39
**Sailkatuak** > 40
**Gazteak** > 42
**Telebista-Irratia** > 43
**Zerbitzuak** > 44
**Berri-zakua** > 45
**Eskelak** > 45
**Non-zer** > 46-47



Bergarako pilotariak herriko frontoian finalerako gogoz. IRATI AGIRREAZALDEGI

PILOTA > HERRI ARTEKO FINALA

## Bergararrak, irabazteko esperantzaz

Donostiako Atano III.a pilotalekuan jokatuko dute domeka goizean, 10:30ean hasita, herri arteko pilota txapelketako finala bergararrek. Hernaniarrak izango dituzte aurkari eta irabazteko esperantzaz joango dira. > 34

JENDARTEA > ARANTZAZU

## Arantzazun aparkaleku gutxiago

Aparkaleku nagusia berrantolatzen ari dira eta jaiegunetan ezingo da 10:30 aurretik aparkatu > 05

**UDA** > BAINU DENBORALDIA

# Sei bainuleku izango dira bailaran, bihar hasten den denboraldian

**HASIERA** Arrasaten eta Eskoriatzan, kanpoko igerilekuak bihar irekiko dituzte, eta Oñatin, astelehenean hasten da denboraldia

**BERGARA** Agorrosingo kanpoko igerileku berriari azken ukituak ematen dabiltza, eta uztailaren 1a baino lehen ireki nahi dute


Arrasateko kiroldegiko kanpoko igerilekuko ateak astelehenean hasita izango dira zabalik.

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Oraingoz eguraldiak ez du hori larregi erakusten, baina uda gaingainean dugu. Hori Debagoieneko eta inguruko igerileku eta bainatzeko lekuetan islatuko datozen egunotan; kasu gehienetan, ekainaren 15ean, astelehena, baina bada bihar, zapatua, zabalik geratuko denik ere: hori da Eskoriatzako kanpoko igerileku txikiaren kasua, bereziki umeei zuzenduta dagoena.

Pixka bat itxoin beharko da, hala ere, Debagoieneko udako denboraldiko izarraz gozatu ahal izateko: Bergarako kanpoko igerileku berria. Egunotan, azken ukituak ematen dihardute, baina ia dena gertu dago estreinatzeko. Ekain bukaera edo uztail hasiera darabiltza Udalak inauguratzeko data egoki gisa. Oraingoz, igerilekuaren itxura ederra mirestu dezakete Agorrosin ekintzagune inguruan dabiltzanek.

Bergarakoa barne, Debagoienean sei bainuleku izango dira zabalik, gehienak udaletako kirol zerbitzuetan, baina bestelakorik ere badago. Horrez gain, ohi bezala, pentsatzekoa da debagoiendar askok Arabara bidea hartuko dutela hango urtegiaz gozatzera, Landan, Garaion edo Uribarri-Ganboan.

**Uribarri Ganboako urtegian ere hilaren 15ean hasiko da denboraldia, baina sorosleak dagoeneko lanean dabiltza**

**Aurten, berritasun moduan, Donostia-Bergara-Arrasate-Donostia autobusa Zarautzen ere gelditutuko da**

Udal kirol azpiegiturak erabiltzea erabakitzen dutenakbazkide txartelarekin zein txartel mankomunatuarekin sar daitezke, eta txartel mankomunatuak sarbidea emango die edozein herriko igerilekura; hori aprobetxatuko dute, seguruenik, aretxabaletar askok, hango kirol etxe berria egin bitartean igerilekurik ez dago-eta herrian. Kirol etxe berrian bi barruko igerileku izango dira, bata 25x166 metrokoa eta bestea, 16x8 metrokoa, solariumera sarrerarekin.

Bazkide ez direnek, bestetik, egunean eguneko sarrera edo hainbat egunerako abonua erosteko aukera dute.

**AURRERATU EGIN DUTE**

Arrasaten, aurten aurreratu egin dute denboraldi hasiera: astelehenean ziren kanpoko igerilekuak irekitzekoak, baina azkenean bihar, zapatua, izango da hori. Horrez gain, domekan Kirolari Ateak Zabalik jardunaldia egingo dute, eta, 14:00ak arte, sarrera doan izango da.

Denboraldi hasierarekin, udako txosna ere egongo da. Udal Kirol saileko Eli Ronceroren esanetan, "saiatuko gara inoiz baino luzaroago zabalik edukitzen; izan ere, orain arte, bakarrik arratsaldez egon izan da zabalik". Eguzkia hartzeko gunea zabalik egon da azken hilabetean, eta halaxe jarraituko du.

Horrez gain, osasun arrazoi justifikatua dutenei, hamaka erabiltzeko eta hantxe gordetzeko aukera emango diete.

Hauek dira aurtengo tarifak: eguneko sarrera 2,95 euro da 20 urtetik beherakoendako, eta 10 eguneko sarrera, 23,35 euro; berriz, 21 urte edo gorakoendako, 6 euro kostatzen da eguneko sarrera, eta 46,75, hamar egunerakoa. Udako abonuak ere badituzte: 1989-2007 artean (biak barne) jaiotakoendako, 34,40 euro; 1988. edo aurretik jaiotakoendako, 57,75; eta 20 urtetik beherako umeak dituzten familiek 90,45 euroko abonua eros dezakete.

Bestetik, Udala auzoko Uxarte jatetxean ere badago igerilekua, eta egunotan gertatzen dabiltza, han ere denboraldia hasteko: "San Juanak baino lehentxoago irekitzeko asmoa dugu", diote arduradunek. Oraindik ez dute aurtengo tarifa zehaztu.

**BARRUKO IGERILEKUA ETA USAKO**

Oñatiko kiroldegian, barruko igerilekuek jarraituko dute zerbitzua ematen. Hemen, ekainaren 21ean, datorren asteko domekan, hasiko da udako denboraldia, eta astegunetan 07:30etik 21:30era eta zapatu, domeka eta jaiegunetan, 10:00etatik 20:00etara egongo da bainulekua zabalik. Horrez gain, kanpoan eguzkia hartzeko berdegunea dago. Taberna ere bai, kantxako pasillotik joanda.

Honako tarifak ditu Zubikoa kiroldegiak: 21 urtetik beherakoendako, 2,85 euro eguneko sarrera, eta 21,95, hamar egunekoa; adin horretatik gorakoendako, 5,35 euro da eguneko sarrera, eta 42,40, hamar eguneko abonua.

Oñatiar eta debagoiendar asko erakartzen dituen Usakoko presan, iaz berritasun garran-




## Sei igerileku Debagoienean

| | MOTA | ORDUTEGIA | PREZIOA * | BESTELAKO ZERBITZUAK |
|---|---|---|---|---|
| ARRASATE (MUSAKOLA) | Kanpokoa | 10:00-20:30 | 2,95 / 6 € | Eguzkia hartzeko lekua, txosna |
| ARRASATE (UXARTE) | Kanpokoa | Zehaztu gabe | Zehaztu gabe | Eguzkia hartzeko lekua, jatetxea |
| BERGARA | Kanpokoa | 10:00-20:00 | 2,5 / 5 € | Berdegunea, jolasak, taberna |
| OÑATI | Barrukoa | 07:30-21:30<br>10:00-20:00 (zapatuak) | 2,85 / 5,35 € | Eguzkia hartzeko lekua, taberna |
| ESKORIATZA | Barrukoa (helduak) | 08:00-21:00<br>10:00-20:00(zapatuak)<br>09:30-14:30 (domekak) | 4,20 € | Berdegunea, hamakak... |
| ESKORIATZA | Kanpokoa (umeak) | 10:00-20:00/10:30-14:30 | 2,30 € | Berdegunea, hamakak... |

(*) Eguneko sarrera: Umeendako / Helduendako


GOIENKARIA

tzitsuak sartu zituzten, eta bainurako hobeto egokitu zuten: soroslea, dutxak, aldagelak eta iturria izan ziren berritasun nagusiak. Hala, soroslea izan zen uztailaren 15etik irailaren 15era arte, eta aurten ere horretarako asmoa dute arduradunek, nahiz eta guztiz zehaztu barik dagoen oraindik.

**ESKORIATZAN ERE, BIHAR**

Eskoriatzan ere, Arrasaten bezala, bihar, zapatua, erabiltzeko moduan izango da kanpoko igerilekutxoa; umeei zuzendua dagoenez, igerileku estaliak zabalik jarraituko du, hori, helduendako. Horrez gain, erabiltzaile guztiendako berdegunea dago zabalik. Barruko eta kanpoko igerilekuek ordutegi desberdinak izango dituzte: barrukoak zabalik egongo dira astegunetan, 08:00-21:00; zapatuetan (orain arte itxita egon dira), 10:00-20:00; eta domeka eta jaiegunetan, 09:30-14:30. Umeen igerilekua zabalik egongo da, astelehenetik zapatura, 10:00-20:00; eta domeka eta jaiegunetan, 10:30-14:30. Eskoriatzan, gainera, tarifa bereziak dituzte bazkide ez diren erretiratu eta langabeendako: hala, eguneko sarrera 3 euro da. Beste tarifak hauek dira: 6 urtetik 17 urtera, 2,30 euro; eta helduak, 4,20 euro. Abonuak ere badaude, hamar egunerako: 6tik 17 urte artekoendako, 19,05 euro; eta helduendako, 37,10 euro.

**BADOAZ BAINULARIAK ARABARA**

Debagoiendar asko joaten dira Arabako Uribarri-Ganboa urtegira, dauzkan "hondartza" edo guneetan –Garaio, Landa edo Uribarri– egun pasa egitera, eguraldia lagun. Modu ofizialean ez bada ere, bainu-hartzaileek dagoeneko hasitzat eman dute han denboraldia, eta, Garaioko zaintzaileek dioskutenez, "azken bi aste bukaerotan dagoeneko egon dira bainu-hartzaileak eta soroslleak". Denetara, 13 soroslek dihardute. Bestalde, urtegia %80-85 inguruan dago beteta egunotan, eta uraren kalitatea "ona" dela esan digute zaintzaileek. Horren gaineko txostenak udako denboraldiarekin batera hasiko dira jasotzen.

Denboraldiaren hasiera ofiziala astelehena, ekainak 15, da han ere, eta orduan hasiko dira hainbat zerbitzu ematen: besteak beste, Garaion informazio bulego bat dago, eta honako ordutegian izango da zabalik: aste barruan, 09:30-20:30; eta aste bukaeretan, 09:30-21:30. Handik zerbitzu asko bideratzen dituzte: erakargarrienetariko bat bizikleten mailegua da, 11:00etatik 19:00etara, honako eguneko tarifekin: helduendako, 2 euro; adingabeendako, euro bat; eta 5 euroko fidantza bizikleta bakoitzeko.

Horrez gain, Mendixurreko parke ornitologikora bisita gidatuak ematen dituzte; ikasle eta aisialdi taldeei hegaztien gaineko, urpeko herrien gaineko edo uraren gaineko tailerrak eskaintzen dizkiete; eta udako tailerrak antolatzen dituzte, hegaztien eta orientazioaren ingurukoak, martitzen eta eguenetan; azken bi aukera horietarako, aldez aurretik izena eman behar da.

**AUTOBUSEAN ZARAUTZERA**

Debagoieneko eta inguruetako eskaintzarekin nahikoa ez, eta itsasoaz eta hondartzaz gozatzea gura duten debagoiendarrek autobusez Zarautzera joateko modua dute, Foru Aldundiak eta Pesa garraio-enpresak abian jarri duten zerbitzu berri bati esker. Hain zuzen, Donostia-Bergara-Arrasate-Donostia autobusa Zarautzen ere gelditiko da. Astelehenean hasiko da zerbitzu hori.

## Lau bainugune, bi txirrista, eguzkia hartzeko zelaia, taberna eta liburutegia

Kanpoko igerileku berria uztailaren 1a baino lehen irekitzea, hori da Bergarako Udaleko Kirol arduradunen nahia. Argazkian ikusten den moduan, bukatuta dago igerilekua, eta itxura ederra dauka; baina lana ez da azken ukituekin amaituko, erakargarritasun hori handitzeko hainbat aukera ikertzen dabiltza-eta arduradunak: hala, igerilekuaren bueltan dagoen pergola handia aprobetxatuta, joko eta jolasak ipini nahi dituzte; eta beste ideia batzuk ere badarabiltzate esku artean.

Igerilekua uretan jolas egiteko pentsatuta dago. Horretarako, lau gune berezi ditu: putzu bat 3,87 metro garai eta 24 metro luze den txirrista bustiarekin –semaforoa izango du–; bi metro luze den beste txirrista bat, txikitxoenendako gunean; korronte aurkako kanala duen beste putzu bat, ur azkarretan ibiltzeko; eta igeri egiteko laugarren bat. Denetara, igerilekuak 1.072 m2-ko hedadura du, eta metro erdi eta 1,40 metro arteko sakontasunak ditu. Lehen solairuko solariumak jarraitzen du, eta 3.600 m2-ko berdegunea dago.

Taberna egongo da berdegunean daudenendako; hamakak eta mahai eta jesarlekuak ere bai; eta liburutegiak udako zerbitzua emango du han.


Tobogan handia eta txikia gertu daude, erabiltzaileak noiz ailegatuko zain. LEIRE KORTABARRIA




SVMS SERVIMASA
Sukaldeko altzariak eta osagarriak
Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA
103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO


Kutxa Produktu Berdeen Lerroa
Onak ingurumenarentzat, onak zuretzat
Kutxan gogoko dugu ingurumena hobetzearren lan egitea. Eta gogoko dugu zu ere iritzi eta asmo berekoa zarela jakitea. Horregatik, eskura jartzen dizugu Produktu Berdeen Lerroa. Gordailu Iraunkorren bidez garapen iraunkorrarekin konprometiturik dauden hainbat enpresetan inbertitzeko eta Kreditu Berdeekin edozein proiekturi aurre egiteko aukera eskainiko dizun produktu-gama oparoa:
• Credikutxa Berde Etxeko Eraberritze-lanak
• Credikutxa Berde Automobila
• Hipoteka Berdea
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa

**AZPIEGITURAK** > AHT

# Etzi, AHTren gaineko eztabaida kalera ateratzeko manifestazioa

AHT Gelditu! Elkarlanak deitutako manifestazioa 18:30ean hasiko dute Seber Altuben

Bihar 09:00etan mendi ibilaldia egingo dute: Arrasate-Kobate-Besaide-Tellamendi-Kobate-Arrasate




AHT Gelditu! Elkarlaneko kideek manifestaziora joateko gonbita egin zuten astelehenenko prentsaurrekoan. AHT

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

Arrasateko AHT Gelditu! Elkarlanak manifestazioa deitu du domekarako. Astelehenean Arrasateko Kulturaten egindako agerraldian herritar guztiak gonbidatu zituzten."Proiektuaren inguruko eztabaida kalera ateratzen jarraitzeko prest gaude. Ibarreko txoko ezberdinetan Abiadura Handiko Trena eraikitzeko makinak sartu dituzten bakoitzeko jendartea ohartarazi dugu eta mobilizazioak hara eroan ditugu. Ez gara isilik geratuko, eta domekan erakutsiko dugu!", esan zuten AHT Gelditu! Elkarlanekoek. Manifestazioa 18:30ean irtengo da Seber Altube plazatik.

Bihar, bestalde, 09:00etan mendi martxa informatiboa egingo dute. Ibilbidea hau izango da: Arrasate-Kobate-Besaide-Tellamendi-Kobate-Arrasate. Atzo, bestalde, *Txikizioa argazkietan* delako saioa egin zuten.

**AHT-REN AZTARNAK BAILARAN**

AHT Gelditu! Elkarlanekoek esan zuten Debagoienean ere nabariak direla dagoeneko proiektu "txikitzaile eta sostengaezin" horren aztarnak; besteak beste, Untzillan, Kobate inguruan, Mazmelan eta Marinen. Gainera, esan zuten halako proiektuak ez direla "errentagarriak", eta adibide moduan Baiona eta Hendaia arteko AHTren proiektua aipatu zuten: "Proiektua bertan behera utzi dute. Frantziako Gobernuak onartu du merkantzien garraioaren arazoa ez dutela AHTrekin konponduko". Horren harira, salatu zuten Eusko Jaurlaritza gezurretan dabilela. "Diote milaka lanpostu sortuko dituela proiektuak, baina lanpostuak aldi baterako izango dira. Bestalde, AHTk ingurumena babestuko duela diote, errepideetan auto gutxiago ibiliko delako, baina autoz egiten ditugun ibilbideak herrialde ezberdinen barruan egiten ditugu, eta ez AHTk izango lituzkeen geltokien artean", salatu zuten prentsaurrekoan.

**ARANTZAZU** > APARKALEKUAK

# Domeketan ezingo da Arantzazuko plaza nagusian aparkatu 10:30 baino lehen

Aparkatzeko mugak jarri dituzte, eta aparkalekuak berrantolatzeko lanak egiten dihardu Foru Aldundiak

**LEIRE KORTABARRIA** > OÑATI

Arantzazura igotzen direnek itxuraz aldatuta topatuko dute sarrera osoa hartzen duen aparkaleku gunea. Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak hura guztiz aldatzeko obrak egiten dihardu; aparkalekuen zabalera eta, batzuetan, aparkaleku mota –bideari paralelo aparkatzetik baterian aparkatzera, albo batera dauden aparkalekuen kasuan– aldatu dute. Orain, azken ukituak ematen dihardute, hain zuzen ere, harrizko uharte edo isleta batzuk ipintzen dabiltza, aparkalekuko gune desberdinak banantzeko eta, bestetik, gidariendako, bistarako, hobeto seinaleztatuta gera dadin gunea.

Horrekin batera, beste neurri bat hartu dute, aspaldian lantzen zebiltzan ideia bat, baina eztabaida sortu zuena eta orain indarrean jarriko dena: santutegitik gertuen dauden aparkalekuak santutegira doazenendako gordetzea, eta beste helburu batzuekin doazenek plazatik kanpo aparkatu behar izatea. Hala, domeketan eta jaiegunetan, 10:30 baino lehen Arantzazuko plaza nagusian aparkatzea debekatuta egongo da. Ordura arte, sarrerara ailegatu aurretik seinaleztatuta dauden hiru aparkalekuak erabil daitezke. "Hartutako neurriaren xedea da nagusiei eta mugikortasun zailtasunak dituztenei puntako orduetan Arantzazura iristeko erraztasunak ematea da", diote arduradunek. Gogorarazten dute hori lortzeko jendearen "laguntza ezinbestekoa" dela, eta garraio publikoa ere badagoela: domeketan, 08:00etatik 20:00ak arte, Oñatitik autobusa dago, ordu oro.

ESANAK

**"Aparkaleku gutxiago dago, baina lekua askoz lasaiago dago orain; aparkalekuak estuegiak ziren eta arazoak izaten ziren"**

**Iñaki Beristain** > Frantziskotarra

Debekuaren berri emateko seinaleak jartzen ziharduten langileok egunotan, eta debekatutako lekuan aparkatzen dutenei oharra utziko diete.

**GIDARIENDAKO ERRAZTASUNAK**

Aparkaleku dezente gutxiago dago orain, 90 hain zuzen, baina, Iñaki Beristain frantziskotarraren esanetan, "askoz lasaiago dago plaza; lehen, aparkalekuak oso juxtu zeuden". Orain, erdiko aparkaleku multzoa bi lerrokoa da, eta ez laukoa, lehen bezala.

Horrez gain, autobusekin arazoak sortzen ziren batzuetan, haiendako bidea estuegia zelako, eta gainerako ibilgailuek ere leku arazoak zituztelako; orain, autobusendako pasabidea zabaldu egin da. Bestalde, gutxitasunak dituztenendako egokitutako aparkaleku gehiago dago.

**TURISMOA**

## Udan bisita bereziak Arrikrutzen

Uda'09 egitaraua aurkeztu zuen atzo Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziak

**M.B.** > OÑATI

Udari begira eskaintza berezia aurkeztu du Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziak. Besteak beste, Arrikrutzera bisita gidatu bereziak egingo dituzte.

**HIRU BISITA**

Hiru bisita mota egingo dituzte: *Arrikrutz zuzenean* (gidariak azalpen zuzenak emango ditu); *Arrikrutzeko kanpoaldea* (Gesaltza-Arrikrutz sistema karstikoa ikusteko aukera); eta *Arrikrutz barrutik* (Aldaola errekatik hasi eta Arrikrutzeko eszentrika ikusi arte). Bisita gidatuak uztaileko eta abuztuko egun zehatz batzuetan egingo dituzte. Informazio gehiagorako *www.oinati.org* helbidean begira daiteke.

**MAHAI INGURUA**

## Afrikako Astea bihar bukatuko dute

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Arantzazun antolatuko Afrikako III. Astea bihar bukatuko da. Hain zuzen ere, mahai ingurua egingo dute Mbuyi Kabunda irakasleak eta Baketik-eko zuzendari Jonan Fernandezek. Besteak beste, Afrikako Astearen ondorioak eta *Afrikandugu* delako proiektuaren zentzua eta edukia aurkeztuko dituzte. Ondoren, bazkaria egingo dute. Ekitaldian parte hartu gura dutenek aldez aurretik izena eman beharko dute, 943 25 10 05 telefonoan edo *info@baketik.org* helbidean.

**"OSO ABERASGARRIA IZAN DA"**

Antolatzaileak gustura daude Afrikako III. Asteak izan duen arrakastarekin. Astelehenean hasitako jardunaldiotan, batez beste, 50 lagun ibili dira. "Kualitatiboki eta kuantitatiboki balorazio positiboa egiten dugu. Oso aberasgarria izan da herrialde ezberdinetako adituek parte hartu dute-eta", diote antolatzaileek.

**EKONOMIA** > INDUSTRIAS LINACISORO

# Linacisoroko zortzi langile "arrazoirik gabe" kaleratu dituztela salatu dute

Enpresa "kosta ahala kosta" itxi nahi dutela ohartarazten du enpresa-batzordeak, "negozioa egiteko asmoarekin"




Suspentsioko ERE baten eraginpean egon da Linacisoro azarotik maiatzera arte. GOIENKARIA

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Altzairugintza alorreko Industrias Linacisoro lantegiko enpresa-batzordeak salatu du zuzendaritzak "kosta ahala kosta eta justifikatutako arrazoirik gabe" itxi nahi duela enpresa, "negozioa egiteko". Hori salatzeko esku-orriak banatu dituzte eta kartelak ipini dituzte. Euren salaketa nagusia da zortzi langile "modu bidegabean" kalera bota dituztela, eta maiatzeko nomina ez dutela kobratu. Langileek enpresa ez ixtea eskatzen dute.

**"EZ DAGO IXTEKO EGOERAN"**

Enpresa-batzordeak orain arte gertatutakoak gogorarazten ditu: "Apirilaren 1ean, merkataritza arloko 1. Auzitegiak konkurtso prozesu bidez eskatutako itxiera ukatu zion, kaudimen-gabeziarik ez zegoelako. Maiatzaren 19an, Gipuzkoako Lurralde-Ordezkaritzak kontratuak bertan behera uzteko EREa ukatu zion, ez zegoelako arrazoirik. Maiatzaren 27an, enpresako zuzendaritzak zortzi langile kaleratzen ditu, hori ezegokia zela onartuta".

Oraingoz, langileak "zain" daudela esan digute sindikatuetako ordezkariek: "Ixteko erabakia hartuta dute eta itxi egingo dute. Zer gertatuko den zain gaude". Enpresa-batzordeak gaineratzen duenez, "eskatu digute gure kaleratzeari prezioa jartzeko, baina guk esan diegu gure lanpostua nahi dugula, eta ez gara negoziazio horretan sartuko. Linacisorok ere krisiaren eragina igarri du, baina saneatuta dago, ez dago ixteko arrazoirik".

Linacisoro enpresako zuzendaritzari galdetuta, inongo adierazpenik ez dutela egin nahi erantzun dute.

ESANAK

**"Esan digute gure kaleratzeari prezioa jartzeko, baina guk lanpostua nahi dugu"**

Enpresa-batzordea

**"Linacisoroko zuzendaritzak ez du inongo adierazpenik egingo"**

Zuzendaritza

> AZPIEGITURAK

### Gipuzkoa Aurrerak ibarreko tranbia bultzatuko du

Kutxak, Adegik, Gipuzkoako Bazkundeak, Mondragon Taldeak eta Foru Aldundiak osatzen duten Gipuzkoa Aurrerak hainbat proiektu bultzatuko dituela esan du. Besteak beste, Debagoieneko tranbiaren alde egingo du. Ibarrean pertsonen eta merkantzien joan-etorria indartzeko tranbiaren beharra dagoela diote. Gipuzkoa Aurrera taldeak esku artean dituen proiektuak 2010. urtearen erdialdean jarriko ditu martxan.

> OPORRAK

### Minusbaliatuendako oporretarako izenematea zabalik

Minusbaliotasun fisikoa eta organikoa duten pertsonendako oporrak antolatu dituzte. Interesatuek bete beharreko baldintzak hauek dira: %50 edo gehiagoan minusbaliatua dela egiaztatzea eta 16 urte izatea. Adingabeek aitaren, amaren edo tutorearen baimena beharko dute.

Informazio gehigorako edo eskaera orria betetzeko Eskoriatzako Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo edo 943 71 31 36 telefonora dei dezakete.

**GIZARTEA** > HURKOA FUNDAZIOA

# Arrasaten bulegoa zabaldu zutenetik 40 bat laguni ematen die zerbitzua Hurkoak

Gaur egun bost langile ditu Arrasateko bulegoak eta beste lau boluntario lanetan; boluntario gehiago behar dituzte, "beharra oso handia da-eta"

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Gero eta joan-etorri handiagoa dago Arrasateko Ferrerias kalean, Hurkoaren egoitzan. Izan ere, otsailean zabaldu zutenetik, 40 bat gaixori ematen die zerbitzua.

Donostiako Elizbarrutiko Caritasen tutoretza fundazioa da Hurkoa; Gipuzkoan adineko pertsonen edo gaixotasun mentala dutenen eta ahulezia egoeran daudenen arretarako, babeserako eta tutoretzarako sortutakoa. 90eko hamarkadan sortu zen, Donostian. Eta, esandako moduan, otsaila ezkero Arrasaten ere ematen du zerbitzua, Debagoieneko eta Debabarreneko (Mutrikuraino) eta Goierriko herri batzuetako (Zumarraga, Urretxu eta Legazpi) gaixoei.

**BOLUNTARIO BEHARREAN**

Arrasaten bost langile ditu Hurkoak eta beste lau, boluntario lanetan. Bi lan administratiboak egiten eta beste bi gaixoei laguntzen. "Beraz, dagoen beharra oso-oso handia da", aditzera eman dute Hurkoa Fundaziotik.

Hauxe gaineratu dute: "Hurkoaren sorreratik boluntariorik egongo ez balitz, ezingo luke egin egiten dituen guztiak. Gauza bat da profesionalek betetzen ditugun atalak; baina boluntarioak betetzen dituen atalak oso garrantzitsuak dira eta askotan profesionalak iristen ez garen atalak dira: gertutasuna ematea gure tutelatuei. Boluntarioek beste gozotasun, gertutasun bat eskaintzen die… eta hori oso garrantzitsua da, batez ere kontuan hartuta pertsonekin egiten dugula lan eta, batez ere, askotan babes gabe dauden pertsonak direla".

Horren harira, azpimarratu dute boluntario jarduteko ez dela behar prestazio jakinik. "Bakoitza moldatzen gara dugun ahalmenekin. Garrantzitsua da denbora ematea konpromiso batekin: zure denbora gaixo horren esku ipintzea (astean behin, hamabostean behin…); ematen den hori jasotzen duenak ondo asko eskertzen du. Zer egin dezakeen? Ba, bisita tutelatuaren etxera. Edo laguntzea gestioren bat egin behar duelako edo berriketan egin, erosketak egin, eta abar".

markeline
haurrentzako moda
0 hilabetetatik 16 urtera

Jantzietan, zakuetan, pijametan
%30eko deskontuak

Aulkietarako funda bat erosiz gero, beste bat opari

MISS SIXTY · SCOTCH · DDP JUNIOR · berlingot · fransa kids · GAS Junior · cri cri · BÓBOLI · miniman · Pampolina · mim-pi · PJE

Herri Lagunak 6, behea BERGARA Tel.: 943 76 05 24

**HAUTESKUNDEAK** > EUROPAKO LEGEBILTZARRA 09

# Aniztasuna eta Europarekiko interes txikia

Irabazle ezberdinak izan dira lurraldearen arabera eta %60,07 izan da abstentzioa Debagoienean, Euskal Herrikoa baino handiagoa

**ENEKO AZKARATE** > BERGARA

Euskal Herria askotarikoa dela eta debagoiendarrok Europako Parlamentuarekiko interes txikia daukagula. Horixe erakutsi dute hauteskundeek. Europa osoan parte-hartzea txikia izan bada ere, are txikiagoa izan da Debagoienean, Hego Euskal Herrikoa baino txikiagoa. Abstentzioa %60,07 izan da Debagoienean. Araban bakarrik izan da handiagoa abstentzioa: %60,19. Hortaz, hamar lagunetik lau bakarrik joan ziren domekan botoa ematera gure eskualdean.

Irabazleei dagokienez, lurraldearen arabera ezberdina izan da. Hala, Hego Euskal Herrian PSOE nagusitu da; Euskal Autonomia Erkidegoan, EAJ; Bizkaian, EAJ; Araban eta Gipuzkoan PSOE; eta Nafarroan, PP. Debagoienean, ostera, Iniziatiba Internazionalista izan da nagusi, gutxigatik bada ere, bigarrenari, EAJri, 107 boto bakarrik atera dizkio-eta.

**INIZIATIBAK ETA PSOE-K GORA**

Aniztasuna, gure eskualdean ere bai; izan ere, Iniziatiba nagusi izan bada ere bailaran, herri nagusienetan ez du irabazi. Hala, hiru herritan EAJren koalizioa izan da irabazle: Bergaran, Oñatin eta Elgetan; eta Arrasaten, sozialistek irabazi dute, Espainiako Parlamenturakoetan moduan. Iniziatibak irabazi du gainerako herrietan.

Nabarmentzekoa da, bestalde, PSOE igo egin dela gure ibarrean. Ezker abertzaleak babestu duen alderdia eta sozialistak izan dira gora egin duten bakarrak, 2004ko hauteskundeekiko. Gainerako guztiek behera egin dute. Beherakada nabarmenena izan da Aralarrek eta EAk osatutako koalizioarena. Orain dela bost urteko hauteskundeetan, EA joan zen ERCrekin-eta koalizioan eta Aralar bakarrik aurkeztu zen. Oraingoan biak joan dira elkarrekin. Eta, emaitzak ikusita, ez du funtzionatu. Debagoienean ia bost puntu egin dute behera. Hala ere, Aralarko hautagaia, Iñaki Irazabalbeitia, Europako legebiltzarkide izango da aldi batean. EAJko Izaskun Bilbao ere bai. Elkarrekin joan izana modu ezberdinean baloratu dute Aralarrek eta EAk: Aralarrendako txarto atera da; EArendako balekoa izan da.

Kontuan hartzekoa, era berean, Ezker Batua-Berdeen beherakada eta baita alderdi horretatik joandako Alternatibakoen aukerak –Izquierda Anticapitalistaren aldeko botoa eskatu zuten, Zutikek bezala– lortutako emaitza eskasa.

Bestalde, Iniziatiba Internazionalistak hainbat irregulartasun kasu salatu ditu botoen kontaketari dagokionean. Gure ibarrean ez da halako irregulartasun kasuren berririk izan.

| | DEBAGOIENA | | ARABA | | BIZKAIA | | GIPUZKOA | | NAFARROA | | EAE | | HEGO EH | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ERROLDA | | 51.451 | | 245.708 | | 930.230 | | 559.168 | | 464.495 | | 1.779.534 | | 2.244.029 |
| ABSTENTZIOA | | %60,07 | | %60,19 | | %56,27 | | %60,04 | | %56,49 | | %58,04 | | %57,26 |
| INI. INTERNAZ. | **6.132** | **%29,42** | 10.623 | %10,92 | 52.477 | %12,95 | 52.181 | %23,42 | 22.985 | %11,46 | 115.281 | %15,89 | 138.313 | %15,07 |
| EAJ (1) | 6.025 | %28,91 | 18.989 | %19,52 | **133.541** | **%32,95** | 54.510 | %24,47 | 3.601 | %1,80 | **207.040** | **%28,54** | 210.658 | %22,96 |
| PSOE | 4.071 | %19,53 | **30.307** | **%31,15** | 112.072 | %27,66 | **57.870** | **%25,98** | 62.738 | %31,29 | 200.249 | %27,61 | **263.153** | **%28,63** |
| EA-ARALAR (2) | 2.434 | %11,66 | 4.591 | %4,72 | 17.873 | %4,41 | 18.499 | %8,30 | 13.992 | %6,98 | 40.963 | %5,65 | 54.961 | %5,99 |
| PP | 1.306 | %6,26 | 25.048 | %25,74 | 64.158 | %15,83 | 26.705 | %11,99 | **75.989** | **%37,90** | 115.911 | %15,98 | 192.101 | %20,94 |
| EB-Berdeak | 348 | %1,66 | 1.842 | %1,89 | 7.601 | %1,88 | 3.678 | %1,65 | 6.719 | %3,35 | 13.121 | %1,81 | 19.866 | %2,16 |
| IZQ. ANTICAP. (3) | 89 | %0,42 | 174 | %0,18 | 787 | %0,19 | 460 | %0,21 | 395 | %0,20 | 1.421 | %0,20 | 1.816 | %0,20 |

(1): EAJ Europaren Aldeko Koalizioaren barruan aurkeztu da. (2): Aralar eta EA Herrien Europa-Berdeak koalizioaren barruan aurkeztu dira. (3): Alternatiba taldeak euren aldeko botoa eskatu du.

**etxeko leihotik**



Iban Arantzabal > 'iarantzabal@goiena.com'

## Politikariak eredu? Ez! Izan daitezela politikari!

Eguazteneko *Berria*-n irakurri nuen labur bat: *EAJko legebiltzarkideak ez du etxebizitza hartuko: EAJk argitu du Garbiñe Saez legebiltzarkide jeltzaleak ez duela Amurrion (Araba) egokitu zitzaion babestutako etxebizitza hartuko. Alderdi jeltzalearen esanetan, Saezek legebiltzarkide ez zenean eman zuen izena zozketan, eta orduan baldintzak betetzen zituen. Egun, ez.*

Kafeko komentarioa izan da. Martitzenean askok zuten irakurrita gaztelerako periodikoren batean orri beteko notizia titular handi-handiarekin. Eta presioaren ostean: *EAJ-k esan dio Saez-i etxeari uko egiteko*. Ez zait ondo iruditzen! Zenbat eta zenbat daude babes ofizialeko etxebizitzan herentzia handi bat jasota ere? Zenbat Haziendari tranpa eginda? Zenbatek dute babestutako etxe bat eta gero diru gehiago irabazten den lanean jardun gaur?

**"Zenbat daude Haziendari tranpa eginda babestutako etxe batean?"**

Politikariei ez diet eskatzen eredu izatea. Ez. Eskatzen diet legeak egitea horrelakorik gertatu ez dadin, lauzpabost urtean behin-edo babestutako etxea dutenen datuak begiratzea eta baldintzak asko hobetu badituzte pare bat urtean etxea uzteko tramiteak hastea, esaterako.

Legea ondu dezatela. Momentu jakin batean etxe beharra duen guztiari eman bost bat urterako bizitzeko eskubidea. Gero aztertu. Egoera berririk balego (soldata hobeak...) denbora bat eman eta neurriak hartu.

**> Fagorren** lana egin, babestutako etxea lortzeko baino gehiago irabazi eta zer asmatuko eta...: eszedentzia hartu eta taberna batera pare bat hilabetean. Diru beltza kobratu eta baldintzak bete. Hauek ez dira politikariak eta ez dute azalpenik eman beharrik?

**> Jabetza** da bogan dagoena hemen, GURE etxea. Nik ere horixe ikasi eta erosi ere erosi dugu. Hala ere, hartu kontuan metro kuadroko kobratzen digutena, interesak... Alokairuan zenbat hilabeterako genuke? Bizi guztirako eta lasaiago bizitzeko aukerarekin!

**Usoa Urbieta** > San Martingo Gurasoen Elkarteko kidea

## "Eskola publikoen sarea indartzea eskatzen diogu administrazio berriari"

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

**Euskal Eskola Publikoaren jaia ospatu zen aurreko domekan Bergaran. Jaiaren balorazioa egiteko Usoa Urbieta San Martin ikastetxeko Gurasoen Elkarteko kidearengana jo dugu.**

**Domekan lortutakoarekin pozik agertu zarete...**

Bai, oso balorazio positiboa egiten dugu, aurreikuspenak gainditu genituelako eta antolakuntza aldetik dena ondo joan zelako.

**Nabarmentzeko, zer?**

Batez ere txikiendako guneak, 0-6 urte eta 6-12 urtekoendako guneak. Familia asko izan ziren bertan eta neska-mutilek primeran pasatu zuten. Bidebarriko kultura aniztasunaren gunean ere jende asko batu zen. Ikuskizunak, orokorrean, oso politak ziren eta jai koloretsua gertatu zen domekakoa. Bestetik, aurreko legealdiko zein hasi berri den legealdiko politikari asko etorri zen, eta eskertzen dugu haien babesa eskola publikoari.



E.M.

**"Jai koloretsua gertatu zen domekakoa eta pozik gaude dena ondo atera zelako eta partaidetza handiagatik"**

**Zenbat lagun ibili zineten lanean?**

Guztira, 300 guraso eta laguntzaile izan ginen, San Martin eta Ipintzako guraso eta irakasleak tartean. Inguruko herrietako gurasoen eta irakasleen laguntza izan genuen eta guztiei, Jai batzordearen izenean, eskerrak eman beharrean nago.

**Aniztasuna izan da aurtengo jaian ahoz aho ibili den hitza.**

Zalantzarik gabe, eskoletan landu eta konpondu beharreko kontua da, etorkinen (leku askotakoak gainera) presentzia gero eta nabarmenagoa delako. Eskolak aurre egin behar dio aniztasunari, garai berrietara egokituz eta elkarbizitza bultzatuz.

**Toki faltaren arazoa aldarrikatzen jarraitzen duzue.**

San Martingo gela batzuk Martinez de Iralan ditugu, eta, Jaurlaritzak agindu digunez, 2011. urterako gure esku izango da Martinez de Irala. Bertan joango dira Haur Hezkuntzako etapa guztiak, jangela eta haur eskola. Proiektu hori nola gauzatuko den zain gaude oraindik. Bitartean, daukagunarekin konpondu behar...

**Isabel Zelaa Hezkuntza sailburu berriak eskola publikoaren plan estrategikoa iragarri zuen domekan...**

Administrazio berriari hiru gauza eskatzen dizkiogu: batetik, eskola publikoen sarea indartzea, giza baliabideetan, teknologia berrietan; bestetik, ikasleria euskalduntzeko plan eraginkorra bueltatzea; eta, azkenik, ikastetxe publikoen autonomia garatzea.



zabalik

Maite Aristegi

# Europa dantzan

Badoiaz emendatzen Europako dantza saioko doinuak.Gehixenak nahixago izan dau dantzarik ez egitea. Bruselara bidean, aurpegi berriak baina oin dala 5 urteko jatorri eta kopuru berdintsua. Europako aginte-guniak gero eta eskumarago, 27 estadutatik 21ean eskumia agintzen. Herritarrengandik gero eta urrinago, lejitimidadia galduta be ezin oingoz hortik aldaketa handirik espero. Baina gure Herri honetan izan da fondoko beste musika bat, eta Ipar eta Hego, gure naziñuaren arazua zabaldu eta behingoz konponbidia bideratzen Europa bidelagun inportantia izan leikela diñuenen ahotsak altxatu dira. Eta *putxerazo* zarata ugari. Izen be boteriak beti asmatzen dau komeni ez jakona isileraztten; gero beste batzuei demokrazia klasiak emoten jardungo dogu, ezta Rubalcaba? Baina argi dago ekimen internazionalistaren inguruko abarrots guztiak partiduen legiak dakarren eskubide zibil eta politikoen ukazinoa Europaraino eruan dabela. Eta Sastrek harako trajia lortu ez arren, oztopuak-oztopo, ezker abertzaliak etapa honen klasifikazinuan salto ederra emon dabela.

**"Ezkerra eta bedar koloria, ezinbestekoak Europaren tonu ilunak argitzeko"**

Hegoaldian, autodeterminazino eskubidearen aldeko eta aurkakoek pareko jarraitzen dabenez, abertzaleon salto eta elkarlan handixagoak beharko dira Herri honen iraupen bidian. Zorionez Iparraldeak ekarri dosku poztasun pixkat morduak aukeratu ditue-ta euskal doinuak. Eta ezkerra hain zatittuta dagon honetan, bada hor burutxoa altxatzen doian mugimentu bat, hauteskunde honetako ondorixo garbi bat frogatu dabena: gauza zehatzetaz, Europa izan behar denaz, soluzinoetaz berba egin dabenak irabazi dabela gure artian. Bove baserritarra,eta Catherine, janari subirautza eta gizaeskubideen alde hartutako konpromisuak beteaz, Euskal Herriarentzako lagun onak izan daitezke. Ezkerra eta bedar koloria, ezinbestekoak Europaren tonu ilunak argitzeko.

usteak uste

Jasone Zabala

# Baskoniak liga irabazten badu...

Euskal taldeek kirol mailan zerbait garrantzitsua irabazten dutenean, euren poza euskaldun guztion poza da (ez beti). Gainera, ekaina amaitu aurretik, seguru nago saskibaloian, ACB ligan, talde euskaldun bat izango dugula txapeldun (nahiz eta jokalari euskaldunik ez egon taldean). Gertuko eta ez hain gertuko hedabideek zein kasu egiten diote gertakizun horri? Eskasa. Baina ez beti. Adibide argi bat jartzearren: Bartzelona-Athletic Kopako finala...

marrazkiz

Alex Ugalde




blog-top

# Hiru zor eta ikasgai bat

**Iñaki Peña**
www.asapala.org/mahatsorriak/patxilurra

Orain dala 8 urte Debagoieneko eskualde gipuzkoarrean hasi nintzan beharrean bertoko ospitale txikian, Gurutzetako ospitale erraldoitik jauzi eginez, eta denbora honetan guztian Arrasate alde horretan sendagile moduan izugarri hazi izan naz. Blogari moduan eskualde berak be aukera emon eustan idazten hasteko orain dala ia 4 urte, Goienako blog komunitatean. Bigarren zorra. Eta azken hilabeteotan Goiena Telebistan lantzean behineko kolaborazinoak egiteko aukera emon deustie Arritxu Barrusok gidatzen dauan *Magazine* saiorako. Hirugarrena.

Geure ogibidean askotan kexatzen gara gizartean orokorrean dagoan osasun hezibide faltaz, kalean dagozan mitoez eta abarretaz, eta horren erruaren zati bat *Saber vivir* moduko saioek eta hainbat sendagile telepredikatzailek deukie, etika profesioanalagaz jolasean dabiltzanak. Horren aurrean, gogora etorten jat *Más vale prevenir* mitiko hura, askok gogoratuko dozuenok, benetan telesaio hezitzailea izan zana. Eta hortik be badoia bere xumean GOITBko *Magazine* osasun tartea, morborik gabeko informazinoa eta ganera audientzia handiagaz, Botxoaldean gaur egun euskarazko hedabide batek proportzionalki lortu ezin dauana.

Honeri guztiari esker geure hizkuntza komunitate txikian espezializazinoa zein aberasgarria eta garrantzitsua dan beste behin konturatu naz, ekonomialariak ekonomian, informatikariak informatikan, biologoak biologian, txirrindulariak txirrindularitzan, medikuak medikuntzan eta abar. Barruan deukoguzan filologoa eta militantea apur bat isiltzea eta lanean ikasitakoaz berba egitea. Ziur aski militantziarik hoberena horixe da.

koplak

Manex Agirre

# Halabedi irratia Aramaion

Sei kopla hauen bidez ez nuke
Propagandarik egin nahi (!!!)
baina denok jakin behar/
genukeen
zerbait adierazi bai (???)

Duela hiru edo lau aste
(kalkulatzen dut) hasi zen
Hala Bedi irrati arabarra
Aramaion emititzen.

Kurtzetan gora aldapak sarri
Gogorrak izaten dira…
Betidanik bizi izan gara
Gipuzkoarantz begira.

Baina aukera polita dugu
Iritsi da bat-batean
Uhin bat ez da nekatzen nahiz ta
Portu bat izan tartean.

Irrati libre, zirikatzaile
Polemiken erruduna
Beste lekutan gordetzen/
zaigun
Estilo kritikoduna

107.4 juxtuan
Zain duzue Halabedi
Orain arteko beste irratien
Osagarri izan bedi.

Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Edu Mendibil (Goienka2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Pello Urizar 1986a ezkero da EAko afiliatua, alderdiaren sorreratik bertatik. Egun, Arrasateko Udaleko zinegotzia da, eta baita Gipuzkoako exekutibako kide ere. Urizarrek 41 urte ditu, informatika eta elektronikako teknikaria da eta Euskadiko Kutxan egiten du lan. EAko idazkari nagusi berria izan daiteke Urizar ekainaren 21etik aurrera.

**Pello Urizar** > Arrasateko EAko zinegotzia

# "EAren erronka nagusia da egoera zail honetatik irten eta ilusioa sortzea"

U.MADERA/ A.EZKIBEL > ARRASATE

**Astelehenean egin zuen Arrasateko Eusko Alkartasunak herri batzarra, eta bertan, herriko alderdikideen babes osoa jaso zuen oraingoz alderdiko idazkari nagusi izateko hautagai bakarra den Pello Urizarrek. Urizarrekin berarekin egon gara, eta bere hautagaitzaz hitz egiteaz gain, alderdikide batzuek EA utzi izanaz ere galdetu diogu.**


Pello Urizar, Arrasateko EAko zinegotzia. GOIENKARIA

**Herri batzarrean arrasatearren konfiantza jaso zenuen EAko idazkari nagusi izateko. Indarra hartzen dabil zure hautagaitza?**

Esan daiteke denbora aurrera doala eta ez dela beste hautagaitzarik aurkeztu. Baina, karrera guztien moduan, azkeneko momentura arte ez da erabakiko; kasu honetan, ekainaren 21ean erabakiko da.

**Ibarreko beste herrietan ze erabaki hartu dute?**

Antzuolan eta Aretxabaletan dagoeneko egin dute batzarra eta bietan babesa eskaini didate. Eskoriatzan, Bergaran eta Oñatin batzarrak astelehenean egin behar dituzte.

**Zein da hurrengo eman behar den pausoa?**

Hasiera baten, ekainaren 20an ponentziak landuko lirateke. Gero, hurrengo egunean, ekainaren 21ean, hautagaiaren aurkezpen ofiziala egingo litzateke; eta bertan, kongresuaren plenoak bozkatuko luke hautagai ezberdinen artean, eta hautagai bakarra balego bozketa egitea edo aho batez onartzea plenoak berak erabakiko luke.

**Hautagaitzak aurrera jarraituko balu, utzi egin beharko zenuke Arrasateko zinegotzi kargua?**

Ez, bateragarriak dira bi karguak. Arrasateko herriarekin konpromisoa hartu nuen orain dela urte bi eta gutxienez beste bi urterako beteko dut konpromiso hori.

**Azken egunotan denon ahotan ibili den gaia da EAko kide batzuek taldea utzi eta Alkarbide sortu dutela.**

Sekula ez da izaten gozoa horrelako gaiak zabaldu beharra. Zoritxarrez, aurrerapausoa ematea erabaki dute batzuek, eta ikusiko da gizarteak zelan erantzuten duen. Egia esan, gauzak argitu egingo ditu gai honek; hortaz, alderdiarendako ona izango da etorkizunean.

Azkeneko urteetan alderdiak behin eta berriro eskatu du alderdi barruan egon daitezkeen diferentziak alderdi barruan argitzea, eta ez alderditik kanpo eta hedabideetan. Hemendik aurrera, kanpora jo izan duten horiek euren burua beste alderdi batean kokatu dutenez, guk gure mezua argi plazaratzeko aukera izango dugu inolako barne istilurik gabe. Barne istiluak izan ditzakegu, baina, behintzat, hedabideen bitartez kanpora atera gabe. Horrek lasaitasuna ematen du etorkizunean lan egiteko.

**Hortaz, esan daiteke itxitzat ematen duzuela kontua?**

Bai, bai, itxitzat ematen dugu. Oraindik arazo tekniko batzuk egon daitezke lotu beharrekoak, baina etorkizunean Eusko Alkartasunak egin behar duen lanerako kontua itxita dagoela esan daiteke.

KONGRESUA

**"Ekainaren 21eko kongresuan hautagaiaren aurkezpen ofiziala egingo da"**

DIFERENTZIAK

**"Alderdiak behin eta berriro eskatu du diferentziak alderdi barruan argitzea"**

HAUTESKUNDEAK

**"Hauteskundeetako abstentzio handiak eragina izan du alderdi abertzaleetan"**

**Idazkari nagusiaren eginbeharrekoak zein dira?**

Zuzendari nagusiaren kargua izango litzateke hainbat lekutara joatea ordezkari moduan, beharrezkoa delako ordezkari bat edukitzea. Baina talde lana da azpimarratu beharrekoa. Beste edozein zuzendaritza taldetan gertatzen den moduan, ordezkari bat egon behar da, baina lana taldean egiten da.

**Orain, talde lan horretan murgilduta zabiltzate?**

Bai, bai. Taldea osatzen gabiltza. Ez da pertsona gutxiren arteko hausnarketa, baizik eta pertsona askoren artean egin beharreko hausnarketa.

Egunerokotasunean lanean gabiltza, 22tik aurrera dena prest izateko aurrera egiteko.

**Zeintzuk dira gaur egun EAk dituen erronka nagusiak?**

Esan gura dut betiko erronka nagusietako bat alderdi abertzale moduan, beste alderdi abertzale guztiek duten moduan, dela gaur egun daukagun egoera zail honetatik irtetea eta ilusioz betetako etorkizuna sortzea. Ardura hori denok daukagu eta prest egon beharko dugu denok akordioetara iristeko, azken finean hori da-eta euskal gizarteak eskatzen duena.

Nik uste dut hori izango dela etorkizunean Eusko Alkartasunaren erronka nagusia, eta baita beste alderdi abertzaleena ere.

**Domekako hauteskundeetako abstentzio handia ikusita egiten duzuen ondorioa da?**

Bai, bai. Hori izan daiteke hausnarketa bat. Izan ere, orain dela bost urteko hauteskundeetako emaitzekin alderatuta oraingo hauteskundeetako emaitzetan eragina izan du abstentzio handiak. Esan daiteke alderdi abertzale guztiei eragin digula, modu batean edo bestean.

Hor ikusten da euskal gizarteak eskatzen duen ilusio hori lortzeko alderdien arteko akordio batzuk lortu beharko direla.

**Iñaki Galdosek esan du domekan EAJri eman ziola botoa. Ze iritzi duzu?**

Nire ustez, Iñaki Galdos dagoeneko ez dago EAren barnean eta, hortaz, hark ikusiko du nori eman botoa.

Egia esan, ez dut minutu bat gehiago galdu gura, aurrera begiratu behar dugu.

# 'Vacio sanitario' (eta 2)

**Jesus Markaide**
Arrasate

Oihana Aranburu andreari eta Arrasateko Udaleko Gobernu batzordeko gainerako kideei:

Maiatzaren 15eko zure gutunean aldizkari honetan, esaten duzu Udal horretako langile Juan Antonio Urdangarin jaunarengana eta Ane Zabala andrearengana zuzendu natzaiela "errespetu falta nabarmenarekin", eta ez nagoela fakultatuta haien gainean berba egiteko.

Egia erdia da esatea Urdangarin jauna eta Zabala andrea langileak direla; funtzionarioak dira, langile pribilegiatu mota bat (horrela diote, behintzat, sindikatuek), eta gainerako langileok mantendu egiten ditugu gure interesen alde egin dezaten (hara, horixe bera da arrazoia, eta ez besterik, Administrazioa existitzeko, zuk zeuk ezagutzen duzun 30/92 legearen arabera); eta gainera, dirudienez, biak dira Udaleko goi-funtzionarioak. Udaleko goi-funtzionario bat da langile bat bere eguneroko jardunean (eta kolore guztietako udal korporazioko kide ohien arabera) ez duena nagusirik; hau da, haren nagusia da hauteskunde bidez hautatutako politikari bat, eta politikari horrek ez dauzka zertan izan goi-funtzionario horiek euren esparruetan dituzten konpetentzia profesionalak, ezagutzak, ezta haien esperientziarik ere; hori dela eta, praktikan, gura dutena egiten dute goi-funtzionarioek, euren kontzientziak, legeek (interpretazio propioa eginda) eta, noski, euren interes propioek jartzen dizkieten mugekin.

Hala, Urdangarinek guztienganako errespetu falta erakusten du inongo erabilerarik ez duen (eta hortaz, ezta baliorik ere) eta izango ez duen zerbait "20.000 euro baino gehiagotan" baloratuz. Nagusi ohiko bat duen tasatzaile batek bronka ederra jasoko luke horregatik. Eta tasazio hori epaile baten aurrean emateen badu eta kontran abokatu solbente bat badu, zigorra jaso dezake; baina Arrasateko Udalean, eta norbaiti isuna jartzeko bada, ez da ezer ere pasatzen.

Urdangarin jaunari eta Zabala andreari ezerk ez die eragozten behin eta berriro egindako *vacio sanitario* zer den galderari erantzutea "ahaztea", erantzunik ez (errespetuari falta eta legeari muzin eginda); erantzun bakarra jaso da, partzialki, 2009ko maiatzaren 8an (galdera 2008ko abenduan egin zen), eta, hara ze kasualitatea, komunikabide honetan bertan nire protesta-artikulu bat argitaratu zen egun berean (eskerrik asko, GOIENKARIAri), ditxosozko termino horretan oinarritutako zehapen-espediente bat ebatzi eta hilabete geroago.

Eta, are gehiago, batek ezin du errespetua eskatu hark ez badu errespeturik erakusten.

Gezurra da herritar batek ezin diezaiokeela erantzukizunik eskatu funtzionario bati (Udalari berari eskatzeaz gain). Prozedura Administratiboaren 30/92 Legearen arabera (eta haren ondorengo atalak), 9. puntuko 4. paragrafoan zera dio: "Aukera dago funtzionarioei erantzukizunak exijitzeko tramitatzen dabiltzan prozeduren gainean". Hau da, herritarrak akzioarako eskubidea du ez bakarrik Udalaren aurka, zuk diozun moduan, baizik eta funtzionarioaren aurka ere; eta zer da kritika, erantzukizun exijentzia modu bat baino (arinena). Funtzionarioei erantzukizuna ezin eskatzea 1956ko Legean zegoen (frankista), eta gero indargabetu zen.

Aipatutako 30/92 Legearen 35. artikuluaren G letrak zera adierazten du: herritarrak eskubidea dauka "aurrera eraman gura dituen proiektuen baldintza juridiko eta teknikoen gaineko informazio eta orientazioa jasotzeko". 2005eko maiatzean (zuek ez zeundeten Udalean, baina bai Urdangarin jauna gaur egun duen lanpostuan), herritar batek egindako galderari erantzuten zaio lokal baten ezin daitekeela garaje bat instalatu altura faltagatik, eta horregatik bakarrik (57 euro ordainduta kontsultagatik), ondoko lokal guztiak trasteleku eta garajetara bideratzen dira eta 2006ko apirilean, gastu asko egin ostean, herritarrari esaten zaio hura *vacio sanitario* dela, eta ezin dakiokeela ez akzesorik ezta erabilerarik eman lokal horri. Hori zer da, zure ustez? Errespetu falta, adarjotzea ala zer? Hori da herritarra informatzea eta orientatzea ala trabak ipintzea muturrekoa hartzeko eta horrela barre batzuk egiten ditugun?

Gezurretan zabiltza diozunean *vacio sanitario* terminoa zer den argitzeko egindako eskaerei erantzuna eman zaiela; erantzuteko falta den galdera da (orain dela gutxi galdetu da azken aldiz, apirilaren 15ean), zuk ondo dakizunez: zelan eragiten dio lokal bat vacio sanitario izendatzeak jabetza-eskubideari? Gutxienez notario bi eta jabetza-erregistratzaile bat daude, Eskubide Inmobiliario eta Urbanistikoez zerbait badakitenak, eta haiek ere ez dute ulertzen termino hori zuen azalpenekin; hortaz, ez naiz bakarra.

Hemen aipatu ditugun arbitrariotasun guztiengatik kaltetua dagoen pertsona gertu dago (zuen moduan) argitzera errespetu osoz (zuen aldetik ere hala izango den esperantzarekin) dauden arazo guztiak, zuek gura duzuen lekuan, gura duzuen moduan eta gura duzuenean. Nahiz eta orain denbora pixka bat (eta dirua) eskaini behar dion bere abokatuari, zuek jarritako bidegabeko zigorra Auzitegiaren aurrean errekurritzeko epea egun gutxi barru amaituko da-eta.

Bukatzeko, esan gura dut nire aurreko gutunean "bikain" adjektiboa agertzen dela Zabala andreari lotuta; bada, adjektibo hori kendu egin zen aldizkarira bidalitako testuan, baina okerren batengatik agertu egin zen. Barkamena, edozelan ere.

# Irudikatzeko gogoa daukat

**Gurutz Garmendia**
Azkoitia

Eman dezagun igaro direla jadanik urte batzuk, ez dakit bost bat adibidez. Eta Ameriketako Estatu Batuetako lehendakari jaunak bere horretan jarraitzen duela, pentsatu baino hobeto ari dela agindutakoak betetzen eta palestinarrei euren estatu propioa ematen diela. Bakeak egin arabiarrekin eta Al-Andalus ehunka urteetan musulmana izan zela esan. Gaur egun banatuta dauden bi Irlandak batze prozesuan egongo ziren eta Groenlandia herri burujabe izango zen dagoeneko. Euskal Herrian ere mugimendu handiak egongo ziren. Irudikatu PSE-PSN eta Hegoaldeko PP-UPN banandurik egongo zirela eta ezkerrekoak ezkerrekoekin batu eta eskuinekoak eskuinekoekin. Arboledako ezkertiarrek euskararen esanahia ulertzen dutela eta hemengoek, aldiz, irabazteko, bide berriak jorratu behar direla.

Batzuek herri proletarioaren indarrarekin eta besteak lurrak eta Amalurrak emandako lasaitasun eta harrotasunarekin. Mundu guztian zehar bertako jatorrien berri emanaz eta Alemania bezalako lurraldeetan harrera bereziki ona izanaz. Jakineko gauza izan arren, gure herria oso zaharra dela, orain badakigu oso zaharra izateaz gain, andregizonek hitz egindako aurreneko hizkuntza edo hizkuntzen ondorengo zuzena dela eta sasoi batean euskara Europa osoan zabaldurik zegoela gutxienez. Eta baita ere Stonehange-ko monumentuaren egileak Labar artea garatu zuten herri kantauriar-auñamendiarrekin erabat lotuta zeudela.

Bestalde, krisiak utzitako ondorioak ere latzak irudikatu behar dira. Nora doazen badakiten herriak, aurrera eta nora doazen ez dakitenak berriz atzera. Euskal Herriko gobernuetan ezkerrekoak nagusituz gero, jasangarritasuna abiapuntu gisa jarri eta lurrarekin harremanetan izango zen gizartea irudikatu. Hiria eta baserria eskuz esku eta hiritarrak harro euren baserritarrez, izugarri jateko onak eramaten dizkietelako.

Ordurako alemaniarrek jakingo lukete zergatik dauden horrenbeste toki izen euren lurraldean *ber, ur* edo *iz*-ekin lotuta. Jakingo zuten, aurreneko hitza ibai edo ibarretik datorrela, Eiber, Elgoiber edo Goitziberreko zuloa bezalaxe, bigarrengoa ura dela eta hirugarrengoa ere urarekin lotuta dagoela, Izarraitz, Izkitturri, Itziar, Itzurun izurde, izokin edo itsasoa bezalaxe. Jakin horrela euren arbasoak euskaldunak zirela eta agian eskaini Europako azken herri aborigena den herri honi, berea duen izarrik argitsuena.

# Mundumirako gertakaria

**Yurre Romaratezabala**
(Plataforma Zapatista)
Eskoriatza

Honen bidez gure barkamenik zintzoenak eskatu gura ditugu Mundumiran izandako gertakariengatik. Eskoriatzar batzuen kexa jaso dugu guk jarritako musikaren bolumenarengatik.

Egia da askotan, eta oraingoan horrela izan zen, jaiaren emozioarekin berarekin eta jai giro onarekin ez garela konturatzen sor dezakegun zarataz.

Borroka eredugarria iruditzen zaigulako, mugimendu zapatistari laguntzen saiatzen ari garen lagun talde bat gara, eta hango produktuak salduta irabaziak lortzen saiatzen gara beraien garapen proiektuan berrinbertitzeko; horregatik, horrelako ekitaldiak aprobetxatzen ditugu bertatik ahalik eta gehiena ateratzeko.

Aurtengo Mundumiran GKE guztiak jaigunetik nahiko aparte jarri gintuzten, eta ondorioz, ahalegin berezia egin behar izan genuen jendearen arreta erakartzeko; berriz diogu guretzat oso garrantzitsua dela horrelako ekitaldiak aprobetxatzea jende horri ahalik eta diru gehien bidaltzeko; eta hala eta guztiz ere, ezin ahal izan genuen horrelako jai batetik atera daitekeen guztia atera, batez ere gure kokapenagatik. Horrekin ez dugu justifikatzerik gura herritarrei sortutako eragozpenak, baina bai eskatu gura diegu antolatzaileei horrelako gauzak kontuan har ditzatela datozen urteetarako.

Eskoriatzarrek ulertuko digutelakoan, eta ez delakoan horrelakorik gehiago errepikatuko, besarkada bero bat eta ongi izan.

# Ezker Abertzalea berriro garaile Aramaion

**Juan Jose Peciña**
(Aramaioko Ezker Abertzalea)
Aramaio

Ezker Abertzaletik eskertu nahi diogu Aramaioko herriari Iniziatiba Internazionalistari bozkatzeagatik. Aramaio eta Euskal Herriko eskubide sozial eta politikoak lortu arte, egunero lanean tinko jarraitzen animatzen dugu.

# Agur, Lillo!

**Ruben Rodriguez**
Arrasate

Iñaki Badiolak Lillo Realera ekarri zuenean, talde nagusiaren entrenatzailea izateko, burura eroan nituen eskuak: Juan Malillo Realeko entrenatzaile? Izan ere, Lillo oso ezaguna zen eta da futbolean, baina ez bere lorpenengatik (Salamanca igo zuen lehen mailara eta hori izan da bere karrerako lorpenik aipagarriena), baizik eta hedabideetan aritzearren, berba jarioagatik, argentinarren erara mintzatzearren... tolosarra bada ere.

Bi urte eman ditu Realean eta ez du ezer aipagarririk lortu. Reala lehen mailara igotzeko kontratatu zuten eta ez du lortu. Baina, egia esan behar badut, Realera etorri zenean hari buruz neukan iritzia aldatu egin da, zerbait: lan ona egin du, jeneralean, futbol ikusgarririk egin ez duen arren, ustez emaitza onik lortzen ez dituen baina futbolean ondo egiten duten taldeak entrenatu ohi dituenean... Gizon zintzoa eta jatorra dela erakutsi du eta ez da gutxi gaur egungo futbolean eta Realak azken bi urteotan jasan behar izan dituenak kontuan izanda. Zorte on eta eskerrik asko, Juanma Lillo!

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 05**

**Faxa:**
**943 25 05 12**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**


Gipuzkoa,
garai berri bat
Eibar-Vitoria/Gasteiz autopista.
Gipuzkoaren historiako inbertsiorik
handiena gure segurtasunaren
eta erosotasunaren zerbitzura.
Vitoria-Gasteiz
500 m
AP-1
Eibar
Vitoria - Gasteiz
Eibar
GIPUZKOA
zurekin, aurrera

# Debagoieneko
# GREMIOAK



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

## ELEKTRIZITATEA

**AITZORROTZ ELEKTRONIKA**
Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa
Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

**ARANZABAL KOOP. E.**
Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

**ARETXARGI**
Aretxabaleta
• Instalazio elektrikoak
Belorrieta 15 behea
T: 943 532 628 / 645 734 032
F: 943 532 629
aretxargi@euskalnet.net

**BELLIDO ELEKTRIZITATEA**
Oñati
• Erreformak orokorrean
• Marka guztietako etxetresna elektronikoen konponketa
Kale zaharra 60 - 3 erd.
T: 943 78 23 10 / 615 74 94 94

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

**FRIXI ERAIKUNTZAK**
Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

## ITURGINTZA

**ARETXABALETA ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Sukalderako eta bainugelarako altzariak
Santa Kurtz 24, behea
T: 943 79 17 53
F: 943 79 17 53

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

**IMANOL ITURGINTZA**
Arrasate
• Iturgintza
• Berogailua eta gasa
• Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

**TXORROTA**
Arrasate
• Berogailua eta gasa
• Galdarak aldatzea
• Obra integralak
• Zaharberritzeak
Bolibar doktorea 5, behea C
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
F: 943 77 17 13

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

**VALES ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIC**
Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

**ION LEIHOAK**
Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

**YOSU THERMIK**
Arrasate
• Lehio eta ate isolatzaileak
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko lehioak
• Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)
Kataide poligonoa 4 Pab.
Tel: 943 77 01 57
F: 943 77 03 21

**IZBAR**
BERGARA
• Leiho eta ate isolatzaileak
• Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
• Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak
• Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
San Lorentzo industrialdea,
Urarte kalea 20
Tel: 943 79 69 91

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# Herriak

**Arrasate** > 14-18 **Bergara** > 19-22 **Aretxabaleta** > 24-26 **Oñati** > 27
**Eskoriatza** > 28-29 **Antzuola** > 30 **Elgeta** > 31 **Aramaio** > 32 **Gatzaga** > 33



**> BERGARA**
Meskita ipini nahi dute Zubiaurre auzoan herriko pakistandarrek **> 19**



**> ARETXABALETA**
Musika Eskolako ikasleek zuzenean erakutsiko dute ikasi dutena **> 25**



**> OÑATI**
Ekainaren 21ean jokatuko da herriko arrantza txapelketa **> 27**



**> ELGETA**
Asentzio egokitzen dihardute, eta jesarleku berriak ipini dituzte **> 31**

**ARRASATE** > ARRASATE EUSKALDUN DEZAGUN

# Domekan denok daude gonbidatuta ekitaldiz lepo datorren AEDren jaira

**BITERI PLAZAN**
Adin guztiendako eta denetariko ekitaldiak antolatu dituzte; guztiak Biteri plazan

**HERRI BAZKARIA**
300 lagunendako lekua izango duen bazkaria izango da ekitaldi nagusia eta txartelak salgai daude Monte, Kajoi eta Irati tabernetan eta AEDn



Eguerdian herriko historia hizpide izango duen ibilaldia egingo dute. AED



Haurrek euren txokoa izango dute goiz eta arratsaldez. GOIENKARIA

**JOKIN BEREZIARTUA**> ARRASATE
Urte berezia bizi izan zuen iaz AEDk. Gogoratzeko moduko urtea izan zen, zalantza barik. Denok dugu gogoan, adibidez, abenduan nola jaso zuen Ukan saria euskara elkarte aitzindariak.

2008an AEDk 25 urte bete zituen eta hainbat ekitaldi egin zituzten urteurrena ospatzeko. Amaia antzokiaren atarian egindako aurkezpenaren ondoren, omenaldi hunkigarri eta arrakastatsua, hizkuntza gutxituen inguruko nazioarteko jardunaldiak eta hitzaldi ziklo interesgarri batzuk egin zituzten, besteak beste. Azken hitzaldi ziklo horietan euskararen geroa aztertu zuten, eta baita etorkizunerako baliagarriak izan daitezkeen ondorioak atera ere.

**ETORKINEI PROTAGONISMOA**
Bada, domekan, 25. urteurreneko ospakizun ekitaldi horiei amaiera emateko jai berezia antolatu du euskara elkarte aitzindariak. Festari *Denok elkarrekin* deitu diote, apropos aukeratutako izena. Izan ere, AEDk herritar guztiak gonbidatu gura ditu jaialdira: euskaldunak eta euskaraz ez dakitenak. Hortaz, etorkinek protagonismo berezia izatea gura dute; izan ere, antolatzaileen ustez, etorkinek zeresan handia daukate herriaren euskalduntze prozesuan. Eta baita alderantziz ere: euskaldunok ere etorkinen herria ezagutu behar dugula uste dute. Horren harira, munduko jaki ezberdinak jarriko dituzte dastatzeko, ekimen sinboliko moduan.

**BAZKARIA, OSAGAI NAGUSIA**
Adin guztiendako denetariko ekitaldien lekuko izango da Biteri plaza. Hala ere, herri bazkaria izango da egunaren ardatza. Ondo azaldu du horren arrazoia Jon Azkoaga AEDko teknikari eta jaialdiaren antolatzaileak: "Egitaraua bazkarian zentratu dugu, egunaren erdian dagoelako. Gainera, goizean zein arratsaldean izango dira ekintzak, eta jendea batzeko zer hobeto bazkari bat egitea baino...".

300 lagunendako paella erraldoia egingo dute Biteri plazan bertan. Txartelak Monte, Kajoi eta Irati tabernetan eta AEDren egoitzan daude salgai, 8 eurotan. Eta, nola ez, bazkarian zehar eta bazkalostean kantua izango da protagonista. Horretaz arduratuko dira Kantujira taldekoak eta bertsolariak. Izan ere, Aitor Mendiluze, Erika Langoma, Jon Maia eta Xabier Silveira etorriko dira, eta Unai Elizasu izango da gai jartzailea. AEDk, beraz, bere historian gorriz agertuko den eguna bizi izango du domekan.

## Eguneko egitaraua osoa

**09:00** Mugarriz mugarri: Arrasateko landaredia eta paisaia ezagutzeko ibilaldia
**12:00** Arrasateko historiari buruzko ibilaldia, Arantza Otaduiren eskutik
**12:00** Munduko jaki ezberdinak dastatzeko aukera, Ekin elkartearen laguntzaz
**12:00-14:00** Haurrendako txokoa, Txatxilipurdiren eskutik
**13:00-14:30** Txalapartariak eta Kantujira Arrasateko Portaloi taldearekin
**13:30** Munduko dantza ezberdinak, Patxi Monteroren eskutik
**14:30** Herri bazkaria, Kantujirakoek alaituta
**16:00** Haurren txokoaren irekiera, arratsaldez
**16:30** Bertso saioa: Aitor Mendiluze, Erika Lagoma, Jon Maia eta Xabier Silveira
**17:30-18:00** Goikobalu abesbatzaren emanaldia
**18:00** Erromeria txistulari, abeslari eta dantzariekin
**19:00** Antzerkia emanaldia, DOKE antzerki taldearen eskutik
**20:00** Kontzertua: Muskaria eta Ain_1

Ekitaldi guztiak doan izango dira, bazkaria izan ezik. Txartelak Monte, Kajoi eta Irati tabernetan eta AEDren egoitzan daude salgai, 8 eurotan.

**Jon Azkoaga** > Antolatzailea

## "Lan handiena euskaldunona da, hor dago gure etorkizuneko erronka"



J.B.

**J.B.** > ARRASATE
**Jon Azkoaga (Arrasate, 1985) da *Denok elkarrekin* jaiaren antolatzaileetako bat. Hala bataiatu dute festa, denondako jaia izatea gura dutelako; Azkoagak dioen moduan, "etorkinak ere gure herria direlako".**

***Denok elkarrekin* aukeratu duzue lelo. Zergatik?**
Arrasate herri zabala eta askotarikoa da. AEDk Arrasate euskaldundu gura du eta euskalduntze hori denon artean egin behar dugu. Hori bai, ezin dugu ukatu lan handiena euskaldunona dela, hor dago gure etorkizuneko erronka. Hala ere, denok elkarrekin egin behar dugunez, euskaraz ez dakitenengana ere heldu gura dugu.

**Denondako jaia dela esan gura duzu.**
Azken finean, *Denok elkarrekin* jaiaren helburuetako bat etorkinei protagonismoa ematea da. Gure herriko biztanleak direla ulertu behar dugu, etorkinak ere gure herria direlako. Gure herria zer den erakutsi behar diegu eta eurek euren herria zer den erakutsi behar digute. Horregatik antolatu dugu domekan munduko jaki ezberdinen dastaketa ekitaldia, esaterako.

**Horretaz gain, AEDk beste behin ere kalean presentzia izan dezan balioko du, ezta?**
AEDk bere elkarte izaera kalean errotuta izan beharra dauka, eta horretarako aukera paregabea da domekako jaia. Bestalde, jaiak herriari zerbait eskaintzea ere badu helburu, eta horretarako adin guztiendako denetariko ekintzak antolatu ditugu.

**Jaia antolatzeko hainbat elkarteren babesa jaso duzue eta nola baloratzen duzue laguntza hori?**
Oso eskertzekoa da jendearen erantzuna. Oraindik ere lagundu gura duenak zabalik ditu AEDko ateak.

**Iñigo Garitano** > Udaleko Gizarte Ongizate Saileko teknikari-burua

# "Zerbitzuaren helburua ez da lo egiteko lekua bakarrik ematea"

UBANE MADERA > ARRASATE

**Udaleko Gizarte Ongizate Sailak Larrialdiko Etxebizitza zerbitzua abiarazi du aurten. Hain justu, joan den egueneko osokoak onartu zuen zerbitzu horren araudia. Iñigo Garitano Ongizate Saileko teknikariburuak eman ditu azalpenak.**


Iñigo Garitano. UBANE MADERA

**Larrialdiko etxebizitza abiarazteko beharra ikusi duzue?**

Bai, azken urteotan ikusi dugu gure zerbitzuan jasotzen dugula kalean bizi diren pertsona batzuen egoeren berri. Orain arte, kasu konkretuetan erantzuna eman izan du Udalak; baina ikusi da hori ez zela nahikoa eta halako zerbitzu batekin bilatzen dena da erantzun normalizatua ematea egoera horiei.

**Etxebizitza horren araudia onartu duzue orain, baina abendutik martxan da, ezta?**

Bai. Momentu honetan sei pertsona daude etxebizitza horretan. Zerbitzuarekin nahi dena da hor deskribatzen diren egoeretan daudenei erantzuna ematea, eta erantzuna ez da lo egiteko toki bat bakarrik. Hori lehen ere egin izan da, hotelen bidez. Zerbitzu horrek jo nahi du haratago. Helburua izango litzateke bazterketa egoera larrian dauden pertsonei denbora mugatu batean ostatua ematea eta, horrez gainera, zerbitzu osagarria ematea, euren egoera horretatik ateratzen laguntzeko. Udalean badauzkagu zerbitzu horiek, teknikariak eta abar, baina pentsatu duguna da halako etxe batean dauden pertsonek behar dutela beste errefortzu bat, eta hortik dator araudian jasotzea hezitzaile zerbitzua, kasuaren arabera.

> **"Ostatuaz gainera, bazterkeriatik ateratzeko laguntzak emango zaizkie, aukera izan dezaten gero bizimodu autonomoagoa egiteko"**

**Zein egoeratan egon behar da zerbitzu hori jasotzeko?**

Izan behar da egoera oso larria, kalean bizi den pertsona, baliabiderik ez duena (ekonomikoki, sare-sozialik...) eta ezinbesteko premia duena; bazterkeria egoera larrian bizi direnak.

**Zenbat lagun egon daitezke Larrialdiko Etxebizitzan?**

Orain dugun etxebizitza behin-behinekoa da. Behin betikoa beste bat izango da eta plaza kopurua etxebizitza horren ezaugarrien araberakoa izango da. Espero dugu oraingoa baino zerbait handiagoa izango dela, 6-7-8 plaza inguru izango dituela.

**Emakumeak eta gizonak batera biziko dira?**

Erabiltzen gabiltzan etxebizitzan hiru gela daude, hainbat pertsona pasatu dira handik eta batzuetan gizonak eta emakumeak elkarbizitzen izan dira, gela ezberdinetan, baina zerbitzu komunak batera erabili dituzte.

**Baina sei hilabetekoa da zerbitzu horren muga...**

Bai. Zerbitzua da larrialdi egoerei erantzuteko; larrialdi egoera definizioz mugatua da; orduan, Udalaren erantzuna da epe jakin baterako, larrialdiari erantzuteko, jakinda sei hilabete eta gero, kasu gehienetan (edo guztietan) etxe hori erabili dutenek, irtetean, egoera larrian segituko dutela. Baina erantzuna da hasierako momenturako. Helburua da sei hilabeteren barruan gizarte zerbitzuen baliabideekin lan egitea, bazterketa egoeratik ateratzeko laguntzak emango zaizkie, aukera izan dezaten, sei hilabeteren ostean, bizitza autonomoagoa izateko euren kabuz lortzeko etxebizitza edo beste alojamendu bat, eta abar.

**ZERBITZUAK** > GARAGARTZAKO ORTUAK

# Irailean zozkatuko dituzte Garagartza auzoko ortuak

## Ekainaren 16an zabalduko dute izena emateko epea, Biztanleen Arreta Zerbitzuan

U.M. > ARRASATE

Badago data Garagartzako ortu ekologikoen zozketarako: irailean egingo dute, irailaren aurreneko hamabostaldian, hain justu. Behin ortuak zozketatuta, urriaren hasieran adjudikatuko dituzte.

Guztira, 87 ortu ekologiko egokitu dituzte Garagartzan, eta horietatik 80 zozketatuko ditu Arrasateko Udalak. Gainerako zazpiak udal erabilerarako gordeko ditu: ikastaroak eman, umeei erakutsi eta halakoetarako. Ortu horiek 50 eta 70 metro karratu arteko azalera dute.

**BERRIRO ERE IZENA EMAN BEHAR**

Garagartzako ortuen gaineko araudia joan den asteko osoko bilkurak onartu zuen. Araudi horrek zehazten duenez, zozketa publiko bitartez banatuko dituzte ortuok. Eta zozketa horretan parte hartzeko, izena eman beharko da Biztanleen Arreta Zerbitzuan. Bestela esanda, lehenagotik Udalean izena emanda zutenen zerrendak ez du balio eta berria egingo dute.

Izena emateko epea ekainaren 16an zabalduko dutela jakinarazi dute asteon, eta gutxi gorabehera hilabeteko epea izango da izena emateko.

Zozketan parte hartuko dutenen zerrendari dagokienez, berriz, uztailaren erdialde inguruan argitaratuko dute behinbehineko zerrenda eta uztailaren amaieran behin betikoa.

**SANTA TERESA ETA BESTE**

Hori bai, esan beharra dago bi zatitan zozketatuko dituztela ortuak: lehenengo zozketan, 40 ortu zozketatuko dituzte. Eta zozketa horretan parte hartuko dute Arrasaten lehenagotik ortuak dituztenek, bereziki Santa Teresa, Makatzena, Uribarri eta Garagartzan dituztenek. Hori bai, ortu ekologikoetako bat eskuratuz gero, lehenagotik erabiltzen duten ortua utzi egin beharko dute.

Gainerako 40 ortuen zozketan, berriz, parte hartu ahal izango dute eskaera aurkeztu duten gainerako herritar guztiek. Zozketa biak publikoak izango dira, eta irailean egingo dituzte biak ala biak.

**ORTUAK 20 URTERAKO**

Ortuen erabilerari dagokionez, berriz, orturen bat tokatzen zaionak, asko jota 20 urtean erabili ahal izango du. Edozein kasutan ere, 2029ko irailean amaituko da adjudikazioa.


GOIENKARIA

# Agur ludotekei eta ongi etorri udalekuei

Perkusio kontuetan ibili dira herriko hainbat gazte azkenaldian, Txatxilipurdiren gidaritzapean. Hain justu, perkusio eta dantza afrikarren ikastaroa landu dute. Bada, horren harira, Txatxilik iragarri du ekainaren 19an agurtuko dutela ludoteken ikasturtea irailera arte, eta agur jairako, afrikar jaia egingo dutela, 17:00etatik 20:00ak arte, Biteri plazan. Iragarri dute, baita ere, hori baino lehen hiru ludoteketako haurrekin irteera egingo dutela Osintxura (Bergara) gaur, ekainak 12. Eta gogora ekarri dute laster udalekuekin hasiko direla eta astelehenean bertan abiaraziko dituztela udalekuetan parte hartuko dutenen gurasoekin batzarrak, 18:00etan.

## oharrak

ELKARTASUNA

**> 25.000 euro behar dituzte**

Sahararen aldeko Arrasateko Nubi eta Aretxabaletako Iesbaa elkarteek laguntza eskatu dute Oporrak Bakean proiekturako. "Uztailaren 10ean helduko dira Euskadira haurrak eta hilabete falta denean 25.000 euroko defizitarekin" daudela kontatu dute. Besteak beste, iragarri dute, iaz moduan, aurten ere argazki txartelak aterako dituztela informazioarekin, bereziki ikasleen artean banatzeko. 5.000 txartel banatuko dituzte, bi elkarteek dituzten hiru kontu korronteen datuekin nahi duenak aukera izan dezan dirulaguntza emateko. Edozelan ere, dirua eman gura izanez gero,Euskadiko Kutxa, La Caixa edo Gipuzkoako Kutxara zuzenean ere joan daiteke.

TXATXILIPURDI

**> Lan eskaintza**

Txatxilipurdi elkarteak jakinarazi du pertsona bat behar dutela bulegoan lan egiteko datorren ikasturterako. Lanaldi osoko kontratua eskainiko dute. Lanposturako aurkezteko gutxieneko baldintzak bete beharko dira: Gizarte Zientzietan diplomaduna; euskara maila handia, gidabaimena eta autoa. Eta kontuan hartuko dute harremanetarako eta komunikaziorako gaitasuna eta aisialdiaren eta euskalgintzaren ezagutza.

OSASUNA

**> Fibromialgia**

Fibromialgiaren eta neke kronikoaren gaineko hitzaldia egingo dute astelehenean, ekainaren 15ean, Kulturaten, 18:30ean. Jesus Acin medikua izango da hizlaria. Aspektu medikuak aztertuko dituzte.

ETORKINAK

**> Immigrazio Plana: batzarra**

Immigrazio Plana lantzen segitzeko hurrengo batzarra ekainaren 22an, 18:30ean izango da. *Lan Merkatua-Formakuntza eta Emakumea* landuko dute.



Arkaitz Biain eta Oihana Aranburu udal ordezkariak, Kulturaten. LEIRE KORTABARRIA

**UDALA** > IKERKETA

# Kultura zerbitzuez galdeketa egingo dute

## Herritarrek Kulturatez, Amaia antzokiaz eta Kultur Gidaz duten iritzia jakin gura du Udalak

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE

Arrasateko Udaleko Kultura Zerbitzuaren gaineko ikerketa egingo du Udalak. Helburua da herritarrek hainbat kultura zerbitzu eta azpiegituraren gainean –zehazki, Kulturate kultura etxea, Amaia antzokia eta Kultur Gida– duten iritzia jakitea eta horren gainean hausnarketa egitea Udalak. Horretarako, telefonoz inkesta batzuk egingo ditu Gizaker enpresak.

Asmo horren berri eman zuten martitzenean Udaleko Parte-hartze delegatuak, Arkaitz Biainek; Kultura, Jai eta Kirol batzordeko buruak, Oihana Aranburuk; eta Udaleko Kultura teknikariak, Jon Garaik.

**TELEFONOZKO INKESTAK**

"Helburua da kultura etxe berria ireki zenetik haren funtzionamenduaz, hobetu daitekeenaz… gogoeta egitea, eta herritarren ekarpenak jasotzea horretarako. Hiru esparru landu gura ditugu: zerbitzuen ezagutza, erabilera eta balorazioa", azaldu zuen Oihana Aranburuk.

Guztira, 200 bat laguni galdetuko diete. Prentsaurrekoaren beste helburua zen "jendea animatzea", tokatzen bazaie, galderak erantzutera. 10 bat minutuan erantzuteko moduko galdetegia da.

**INPRESIO ONA**

Kultura etxe berria 2007an zabaldu zuen Udalak, eta, horrekin batera, kultura zerbitzua ere zabaldu eta aberastu egin zen. Kultura arduradunen esanetan: "Zerbitzua hobea denez, jendea poziago dagoen pertzepzioa dugu, baina orain horren gaineko datuak jaso gura ditugu". Badirudi, bai, kultura azpiegiturak gehiago erabiltzen dituztela herritarrek: "Kulturate ireki zenetik, nabarmen igo da liburutegiko mailegu kopurua eta egunkarien erabilpena, Kulturateko batzar gelak ia beti hartuta daude, ordenagailuak ere bai…", esan zuen Jon Garaik, Udaleko Kultura teknikariak.

Hala ere, kultura etxeaz bakarrik galdetzea "motz" geratzen zela iritzita, Amaia antzokiaz eta Kultur Gidaz galdetzea ere erabaki du Arrasateko Udalak.

**PARTE-HARTZE PLANA**

Foru Aldundiak martxan jarritako herritarren parte-hartzea bultzatzeko plan baten barruan egingo du ikerketa hori Udalak, eta hori da plan horren barruan bultzatzen dituen bi parte-hartze prozesuetatik bigarrena; aurretik, Biteri plazaren gainekoari ekin zion.

ESANAK

**"Herritarrek eskaintza ezagutzen duten, zelan erabiltzen duten eta zelan baloratzen duten jakin gura dugu"**

**Oihana Aranburu** > Udala, Kultura





"Velasmooth" eta "Cavitación", liposukzioaren ordezko azken teknikak

**"VelaSmooth"** kirurgia gabeko zelulitisaren aurkako eta gorputza modelatzeko tratamendu onena da. ELOS teknologia erabiliz, argiaren energia, irrati-frekuentzia eta masajea konbinatzen ditu.

**"Cavitación"** gorputz tratamenduetan azken berrikuntza da. Kirurgia gabe, koipea kentzeko teknikarik aurreratuena.

LIRAIN
ESTETIKA-ZENTRUA
Bixente Ferrer, 1
20500 ARRASATE
943 79 52 17

kanpotarrak arrasaten

**Carsten Bartsch** > Alemaniakoa
Ingeniaria

# "Autoen klaxonek harritu naute; Alemanian zaratatsuagoak dira"

J.ZABALA/M. BIKUÑA > ARRASATE

**Carsten Bartsch Alemania hegoaldeko ingeniaria da. Beste kultura batzuk ezagutzea gustuko du, eta horregatik etorri zen Arrasatera. Gainera, profesionalki aurrerapausoak emateko eta mundua ezagutzeko aukera izan du azken hilabeteotan.**

Carsten Bartsch joan de urteko urrian etorri zen gurera. Alemaniarra da, Erlangen herrikoa, eta ingeniari elektrikoa da. Arrasaten Ikerlaneko telekomunikazio arloan dihardu. "Joan den urtean Alemaniako ikerketa zentro batean lanean nengoela, lankide nafar batek Arrasate eta inguruko zentro teknologikoetaz hitz egin zidan", esaten du. Carsten Bartsch-i interesgarria iruditu zitzaion ideia, profesionalki ikasteko eta mundua ezagutzeko, eta baita bere espainola hobetzeko ere.

Era berean, interesgarria iruditu zitzaion enpresako ikerketa arloa eta Arrasateko kokapena: "Mendia eta itsasoa gertu izatea gustuko dut, Erlangen-en itsasotik nahiko urrun gaude-eta; hain zuzen ere, 600 kilometrora. Gainera gustuko dut hemengo arrain aukera zabala. Oso arrain zalea izan arren, badago jaki bat ezin dudana ikusi ere egin: txipiroiak. Agian prestatu ondoren duen kolore beltzagatik izan daiteke, baina oraindik ez dut probatu. Ez dakit ausartuko naizen".



Carsten Bartsch.

**"Nire jaioterritik faltan igartzen dudana ogi beltza da"**

**ANTZEKOTASUNAK**

Arrasaten ikusitako hainbat gauzek harritu dute Bartsch; alde batetik, autoen klaxona: "Alemanian autoen zaratak ozenagoak dira; Italian ere egon naiz eta uste nuen Italia bezain zaratatsua zela inguru hau". Egiten duen euriak ere asko harritu du.

Bertako biztanleen gaineko iritzia eman digu: "Kirol asko egiten du hemen jendeak: mendira igo, bizikletan ibil, korrika egin... Oso kirolariak dira eta asko harritzen nau horrek!"

Arrasate eta Erlangen-en arteko antzekotasunak aipatu dizkigu: "Biek daukate industria asko eta unibertsitatea". Bere jaioterritik faltan igartzen duena ogi beltza dela esan digu.

txaloak eta txistuak





ROMAN LOPEZ

## Gazteluondoko 17 autoren kristalak apurtu dituzte

Arrasatear batek oso haserre deitu digu Gazteluondoko autoei egin dietena salatzeko: "Aurreko domekan, ekainak 7, 17 autoren kristalak apurtu zituzten, eta duela beste bi aste, beste 17 autorenak. Nahiko nazkatuta nago, dagoeneko 14 aldiz apurtu didate-eta autoko ispilua. Aste bukaeratan zaintza berezia jar dezatela!"



**ARDO ETA GAZTA EGUNA** > IV. EDIZIOA

# Dastamena dantzan jartzeko, ardoa eta gazta

Arrasateko Udalak eta Arrasateko futbol taldeak antolatutako ekitaldia bihar goizean izango da, Herriko Plazan; Ibai Arteren laguntza izango dute

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

Ardoaren kultura gero eta indar handiago hartzen dabil gurean, modan dagoela esan daiteke. Horren adibide da Arrasaten azken urteetan Ardo eta Gazta Egunak izaten duen arrakasta. Aurten, laugarren urtez jarraian antolatu dute jaia.

**HERRIKO PLAZAN**

Goiz guztian zehar Herriko Plazan 19 upategitako ardoak dastatzeko aukera egongo da. Ardoaren feria horretarako, antolatzaileek azokako kita jarriko dute salgai 5 euroren truke. Kitak hau dauka: ardo kopa bat Mondrako armarriarekin eta poltsa.

Gainera, 0,50 euroko bi txartel izango ditu poltsak. Gogoratu behar da azokako dirua txartelak izango direla. Postu guztietan salgai egongo dira 40 txarteleko taloitegiak; baina bakarka erosteko aukera ere egongo da.

Bestalde, Herriko Plazan gazta egongo da salgai, eta 11:00etan, gazta lehiaketaren finala egingo dute. Gainera, gazta baita txistorra ere dastatzeko aukera egongo da bertan.

**IBAI ARTE, LAGUNTZAILE**

Zortzi mila txartel banatuko ditu Ibai Artek bezeroen artean ardoa dastatzera joan daitezen. Ardoa eta gazta dastatzea, aste bukaera pasatzeko modu ezin hobea.



2006ko irudia; ordukoa lehenengo Ardo Eguna izan zen. GOIENKARIA

**ERAKUSKETA** > PINTURA

## Arrasate Margo Taldearen lanak, orain Kulturaten

San Juan jaien barruan, gainera, pintura lehiaketa antolatu dute

**A.E.** > ARRASATE

Gaurtik aurrera eta hilaren 28ra arte Arrasate Margo Taldearen erakusketa egongo da ikusgai Kulturaten.

Margo taldeko 20 lagunen lanak izango dira jarriko dituztenak. "Estilo guztietakoak izango dira: olioak, akuarela, akrilikoa...", azaldu du Amaia Arantzabal taldeko kideak. Urtero egiten duten erakusketa da; baina orain arte Harresi aretoan egin izan dute. Oraingoan, Kulturaten izango da.

**PINTURA LEHIAKETA**

Bestalde, San Juan jaien barruan ohiko bilakatu den V. Herensuge pintura lehiaketa antolatu dute ekainaren 20rako. Goizeko bederatzietatik aurrera izango da lehiaketa. Parte hartu gura duenak 10:00ak arte izango du aukera izena emateko Tamayo paper dendan. Gainera, izena ematerakoan euskarria ere aukeratu beharko dute. Lehiaketa 14:00etan amaituko da.

Gaia eta teknika norberak aukeratutakoak izango dira; baldintza bakarra Arrasateko alde zaharrean lan egitea izango da. Sariak banatzerakoan hiru kategoria hartuko dira kontuan: nagusiak, gazteak eta umeak.

**JAIAK** > SAN JUANAK 2009

## Mexikoko doinuak jaietan, kaleak animatzeko asmoz

**A.E.** > ARRASATE

Aurtengo jaiak ohikoak baino luzeagoak izango dira eta, gainera, nobedadez beteak.

Arrasate Musikaleko Big Band taldeak, esaterako, motorrak berotzeko asmoz kontzertua emango du hilaren 19an Monterronen. Kontzertua 22:30ean izango da, eta sarrera doakoa izango da. Bestalde, musikaren jarraituz, aipatzekoa da San Juan egunean Mexikotik etorritako Dolores San Juan eta Mariachi Tequilero taldeak egingo duen kalejira.

**TXOSNAGUNEA**

Aurten ere Txosna batzordeak egitarau oparoa prestatu du jaietarako. Herri bazkariarekin hasiko dituzte jaiak eta ondoren bikoizketa erotikoak, krisi probak... egingo dituzte.













**ARETO FUTBOLA** > ZALDIBARKO TXAPELKETA

# Kopa irabazita, Paulaner Dribling 'doblete'-aren bila

Bihar jokatuko dituzte Zaldibarren ligako finalerdietako partiduak (16:30)

**XABIER URTZELAI**> ARRASATE

Paulaner Driblingek joan den zapatuan egin zuen urte biribila lortzeko lehenengo urratsa: kopa irabaztea. Baina, horrekin konformatu barik, Driblingeko mutilek aukera dute liga ere poltsikoratzeko, dagoeneko finalerdietan daude-eta. Hori bai, beste hiru talde daude helburu bera dutenak: McAwen Dauen, AT Celaya eta Lasagabaster.

Bihar, zapatua, arratsaldean jokatuko dituzte finalerdietako norgehiagoka horiek. 16:30ean Paulaner Driblingek McAwen Dauen taldearen kontra jokatuko du eta 17:30ean izango dira aurrez aurre AT Celaya eta Lasagabaster taldeak.



Kopako finala jokatu zuten Paulaner Driblingeko eta Ekaitz Tabernako jokalariak, partiduaren amaieran. ZALDIBARKO ANTOLATZAILEAK

**KOPAN 5-1 IRABAZI ZUTEN**

Joan den asteburuko finalean Driblingek egin zuen lehenengo gola (1-0, Inaxio). Aurretik egonda ere erasoan jarraitu zuten Driblingekoek, eta Mansok egindako beste bi golek eta Matalobosek penaltiz egindakoak ia erabakita utzi zuten finala (4-0). Ekaitz Taberna, baina, ez zen kikildu eta *Lasaga*-ren eta Keparen golek bizitasuna eman zioten finalari (4-2). Baina, Frutosek egindako bosgarren golak bertan behera utzi zuen Ekaitzekoen ahalegina (5-2).



GOIENKARIA

## Arrasateko atletei esker, Bidasoak eutsi

Arrasate Kanpanzar taldea lehenengo mailan dabilen Bidasoaren harrobia da, eta joan den asteburuan etxeko neskek Alicanten lortutako puntuei esker Bidasoak kategoriari eutsi dio. Eukene Dorronsorok zilarra irabazi zuen (200m). Pertika saltoan ere bikain, lehena Lore Mar eta bigarrena Malen Ruiz. Eta, salto hirukoitzean Oihane Urtzelai hirugarren izan zen, eta laugarren luzera saltoan.

**GIMNASIA ERRITMIKOA** > EUSKADIKO TXAPELKETA

# Tolosatik bueltan, San Joanetako saioa prestatzen Dragoiak

Denboraldia amaituta, Arrasateko neskak hilaren 19an Seber Altuben egingo duten erakustaldia dabiltza prestatzen

**XABIER URTZELAI**> ARRASATE

Arrasate Dragoi Gimnasia Taldekoak gustura itzuli ziren Tolosan egindako lanarekin. Bakarkako saioetan lan oso txukuna egin zuten Aintzane Rodriguezek, Nerea Otxoak, Ane Ormaetxeak eta Ane Miren Errazkinek.

Eta, taldekako lanean Arizmendiko neskak ere ondo ibili ziren (Eider Etxebarria, Nerea Otxoa, Olatz Fernandez, Paula San Miguel, Aintzane Rodriguez, eta Ainhoa Delgado), baina aurtengo edizioan Bizkaiko gimnastak oso ondo prestatuta joan ziren txapelketara, eta eurek eman zuten sorpresa: "Normalean Gipuzkoan Araban baino maila hobea egoten da. Eta, bizkaitarrak boladaka ibiltzen dira. Aurten, baina, entrenamenduetan konturatu ginen Bizkaikoak oso indartsu zetozela", adierazi du Edurne Elkorok.

**HURRENGOA SEBER ALTUBEN**

Gimnastek Euskadiko Txapelketarekin amaitzen dute denboraldia, baina Dragoiek hilaren 19an beste hitzordu bat izango dute, Seber Altuben: "Badira lauzpabost urte San Juanen egitarau barruan gimnasia erakustaldia egiten dugula, Seber Altuben izaten da hori". Eta gimnastendako oso berezia izaten da, jende askoren aurrean egiten dituztelako saioak: "Urtetik urtera geroago eta neska gehiago ditugu, eta neurri handian, horrelako ikuskizunengatik animatuta etortzen dira gurera".

arbolapeta
arrasate
beinke

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA
- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra
Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Monte taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

ERLIJIOA > ISLAMA

# Meskita zabaldu gura dute pakistandarrek Zubiaurren

## Kultura jarduera musulmanetarako eta errezorako gune gisa egokitu nahi dute

## Bergarakoez gain, Debagoieneko gainerako pakistandarrei ere emango die zerbitzu



Zubiaurre kaleko 21. zenbakian, behean, egokitu nahi dute. JASONE ZABALA

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Kultura jardueretarako eta errezorako gune izango den lokala egokitu nahi du herrian Debagoieneko pakistandar komunitateak. Zubiaurre kalean egokitu nahi dute eta datorren ramadanerako prest izatea da euren gogoa, Mohamad Afzal Chohan Khatanak azaldutakoaren arabera. Hala ere, hasierako urratsak ematen dihardutela aurreratu du, eta bidea luzea izango dela: "Udalera jo dugu eta halako jarduerak inskribatzeko ze urrats jarraitu behar diren jakiteko informazioa eskatu dugu. Gauzak ondo egin nahi ditugu, legea erabat betetzen, ez dugu-eta inorekin arazorik izan nahi. Terrorismoaren gaia hor dago"...

Jarduera legeztatzearekin batera, egoitza egokitzeko lanak ere egin beharko dituzte, eta horiek, neurri handi batean, komunitatea osatzen duten kideek egingo dituztela azpimarratu du. Antolaketari dagokionez, hiru gune nagusi izango ditu: errezorako gunea, kultura jardueretarakoa eta emakumezkoena.

**BAILARAKO LEHEN MESKITA**

Kultura jarduerei dagokienez, Debagoieneko pakistandarren topaleku izateaz gain, "Pakistandik datozen ume eta emakumeei hemengo hizkuntza erakusteko gune izango da, besteak beste", azaldu du Chohanek. Izan ere, hona etorritako gizonezkoen gero eta familia gehiago ari da etortzen.

Horrez gain, errezorako leku ere izango da, bailarako lehena, eta egun bailaran dauden 150etik gora pakistandarrei emango die zerbitzu. Hala, han ospatuko dituzte jai erlijiosoak, eta, Chohanek aurreratu duenez, zabalik egongo da edozein nazionalitatetako musulmanei. Oraingoz imanik ez dutela izango ere aurreratu du.

ESANAK

**"Legea erabat bete nahi dugu, ez dugu-eta inorekin arazorik nahi. Terrorismoaren gaia hor dago..."**

**Mohamad Afzal Chohan Khatana**
> Pakistandarra


Iazko jaialdian parte hartu zuten gaztetxoak, Munibeko agertokian. JARDUN

EUSKARA > JARDUN ELKARTEA

# Ikasturte bukaerako jaialdia egingo du gaur Jardunek

## Ikasturtean barrena elkartearen jardueretan ibilitako 250 gaztek hartuko dute parte

M.B. > BERGARA

Jardun euskara elkarteak jaialdi batekin emango dio amaiera ikasturteari. Gaur, egubakoitza, egingo dute jai hori, 18:00etan hasita, Munibe plazan. Jaialdi horretan, ikasturtean barrena elkarteak antolatutako ikastaro eta bestelako egitasmoetan parte hartu duten neska-mutiko eta gazteak arituko dira; Jarduneko kideen esanetan, 250 bat inguru.

Hala, ikusi ahal izango dira Munibe plazan trikiti eskolakoen saioa, bertso eskolakoena, dantza taldekoena, euskara errefortzuetakoena eta aisialdi taldekoena. Amaieran, oparia jasoko dute parte-hartzaile guztiek eta oporrak hartu urrira arte.

JENDARTEA > JAIAK

# San Antonio eta Elosu auzoetan jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran

## San Antonion arte azoka egingo dute, eta Elosun, herri kirolen erakustaldia, biak ala biak domekan

M.B. > BERGARA

Egubakoitzean hasi eta domekara arte, askotariko ekitaldiak egongo dira San Antonion. Umeendako jolasekin ekingo diete ospakizunei: 18:00etan hasita aritu ahal izango dira umeak zaku karreran, kukañetan… 20:00etan, bederatziurrena ospatuko da kaperan, eta 21:00etan, herri bazkaria egingo dute auzoko plazatxoan, eta DJ Angie egongo da musika jartzen.

Bihar, zapatua, meza egongo da 10:30ean, eta 12:00etan, San Joxepe abesbatzak emanaldia egingo du plazan. Gero luncha egongo da Gure Ametsa elkartean. 12:00etan poneyak, basurdeak eta zezen txikiak egongo dira umeendako, eta 16:00etan, mus txapelketa. 16:30ean, 73. San Antonio txirrindulari lasterketa egongo da eta 18:00etan, kalejira, Itziarko Urarte anaiekin eta buruhandiekin.

18:30ean, txirrindulari lasterketako sariak banatuko dituzte, eta 20:00etan, mus txapelketakoak.

Jaiei amaiera emateko, etzi, domeka, arte merkatua egingo dute 11:00etatik 14:00etara, eta 14:30ean, ohiko bazkaria izango da Gure Ametsa elkartean.

**OTABA JAIAK**

Elosun, Otaba jaiak ospatuko dituzte domekan eta astelehenean. Domekan, meza nagusia izango da 11:00etan, eta 12:00etan, Goenatxo II.aren omenezko jaialdia egingo dute hainbat harri-jasotzaile eta trikitilarik. 16:00-19:00 ordutegian, umeendako puzgarriak egongo dira, eta 18:00etan, berriz, gauera arteko erromeria. Astelehenean, auzoko hildakoen omenezko meza egongo da, 13:00etan

bere ustez


Unai Lopez

# Europa sortzen pausoz pauso

Hauteskunde ondorengo beste biharamun berri bat. Estatistika guztion ahotan, ehunekoak gora, botoak behera, irabazleak txapeldun eta galtzaileak irabazle, guztion kontsolamendurako denok pozik.

Kontinente zahar honen lema gobernatuko duten parlamentariak aukeratu dira jada. Ekonomiari eusten edo mundu mailako hamaika gatazken korapiloak askatzen nahikoa lan izango dutela ezin ukatu. Hala ere, abstentzioaren zenbakiak ikusita beste behin agerian gelditu den europar nortasun eza horri buelta ematen badiote bai demaseko erronka. Gizaldi dezente pasa beharko dira hangook eta hemengook Europa guztion arteko giza elkargune politiko, ekonomiko eta kultural bezala ikus eta sinets dezagun. Momentuz, besteak beste Finlandia, Errumania edo Txiprek komunean dituzten antzekotasunak aurkitzea ez da erraza, urte ugari aurretik nolabaiteko berdintasunera heltzeko, bizitza mailan behinik behin.

**"Abstentzioaren zenbakiak ikusita agerian geratu da europar nortasun eza"**

Azkeneko honen adibidea Portugaleko herrixka bateko biztanleek hauteskundeei eginiko boikota: gaur egun Interneten konexiorik ez duen eskualde batentzat… non daude europar izatearen abantailak? Zer da benetan Europa?

ARRI
Industri hornidura
Latigilloak
Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

**PAZKOAK** > TXOSNA BATZORDEAREN BALORAZIOA

# Txosnagunearen garbitasuna azpimarratu du batzordeak, egindako balorazioan

Txalo egin nahi izan diete Pazkoetan gune alternatibora gerturatutako herritar eta musikariei

Eta txistua jo diote "indar polizialen jarrera bortitzari"

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Txosna batzordeak Pazkoetako balorazioa egin du asteon, eta, oro har, balorazio positiboa egin du.

Balorazioaz berba egiten hasi aurretik, baina, aurre-lanaz jardun zuten Txosna batzordeko kideek eta prestakizunetan aldarte onez jardun izanak emaitza onean zeresana izan duela azpimarratu zuten. Horrekin batera, Xaxau birusa sortzeak eta jaien aurreko egunetan birusaren karteltxoak kalean jarri izanak –jakin-mina pizteko kanpaina, batzordekoen esanetan–, jendearen arreta piztu zuela ere esan zuten.



Txosna batzordeko kideak *Xaxau* birusa besarkatzen. MONIKA BELASTEGI

**AZPIMARRATZEKOAK**

Bereziki nabarmendu dute agertokia lekuz aldatzeak kontzertuei ekarritako "goxotasuna". Rock maratoiendako ere aipamen berezia izan dute batzordekook: "Arrakastatsua izan zen, ekimen bikaina eta oso jendetsua".

Aurtengo menu bereziarekin herritarrak "gustura" ikusi dituztela ere aipatu zuten: "Aurreko urteetan baino jende gehiago gerturatu da sardina, saiheski eta ogitartekoak jatera".

Gunearen garbitasunarekin ere oso pozik daude: "Xaxauren irudiarekin aterarako koloretako edalontzi berrerabilgarriak direla-eta, zabor gutxiago sortu da". Baina edalontzion harira kritikak ere jaso dituzte, horiek bueltatzeko aukerarik ez zegoeneta. Hori dela-eta, esan dute "datorren urterako beste aukera batzuk ere aztertuko" dituztela.

**TXALOAK ETA TXISTUAK**

Zer txalotu eta zeri txistu egin ere garbi izan dute. Txalotu dituzte herritarrak eta musika taldeak. Txistu egin, Ertzaintzari, "zapatu eta domeka goizean, guztiz armatuta, presoen argazkiak kentzera etorri zirelako, giro ona zapuztuz".

## oharrak

IKASTAROA

**> Udal Euskaltegiak ikastaro trinkoak emango ditu uztail eta irailean**

EGA, HABEko 3. maila eta gainerako maila guztiak emango dituzte, uztail eta irailean. Matrikula egiteko epea da ekainaren 28ra arte, bulego orduetan. Informazio gehiagorako deitu 943 76 44 53 zenbakira edo idatzi *berg.eusk@udal.gipuzkoa.net* helbidera.

AISIALDIA

**> Ur jolasak izango dira aste bukaeran Agorrosin Ekintza Gunean**

Bihar, zapatua, umeendako ur jolasak egongo dira Agorrosinen, arratsaldez. Agorrosindik jakinarazi dutenez, Udalak kaleratutako kultura agendan dio ekainaren 6an izatekoak zirela jolasok, baina akatsa da.

BAZKARIA

**> Umore Onako bazkideen bazkaria San Martzialen**

Umore Ona elkarteko bazkideek urteroko bazkaria egingo dute ekainaren 28an, San Martzialen. Hori horrela, bazkarira joan nahi duten bazkideek izena eman beharko dute elkartean. Bazkide bakoitzak gonbidatu bat eraman ahal izango du.

BICIPRECISIÓN IGARTUA Zubieta kalean 943 76 11 21

Sei hilabetetan ordaintzeko, interes barik!







**Errepideko bizikletetan eskaintzak:**

| | LEHEN | ORAIN |
|---|---|---|
| * Orbea Orca Ultegra Ksryrum elite | 4.100 € | 2.090 € |
| * Orbea Onix Ultegra karbonozkoa | 2.100€ | 1.190 € |
| * Cervelo R3 Sram Red | 5.980 € | 3.990 € |
| * Cervelo R3 SL Durace 2009 | 6.500 € | 4.880 € |
| * Goka Zero 8 Ultegra + aksium | 2.080 € | 1.600 € |
| * Goka Knife triathlon Ultegra + aksium | 2.280 € | 1.600 € |
| * Goka One 1 Ultegra + aksium | 2.010 € | 1.600 € |
| * Karbonozko gurpilak | 1.190 € | 799 € |

**Mendiko bizikletetan eskaintzak:**

| | LEHEN | ORAIN |
|---|---|---|
| * Orbea aluminiozkoa freno hidraulikoarekin | 700 € | 475 € |
| * Orbea aluminiozkoa freno hidraulikoarekin Master | 980 € | 699 € |
| * Goka monokaskoa XT-LX | 1.780 € | 1.000 € |
| * Goka Desert Deore osoa | 990 € | 639 € |
| * Goka Alpine SLX osoa | 1.100 € | 738 € |
| * Goka Sloper Full Suspension | 1.600 € | 1.025 € |

Thule bizikleta-eramatekoa Lehen:750 € Orain: 360 €

Errepideko bizikletetan muntaia neurrira!

**PINTURA** > ERAKUSKETA

# Laia Bedosen 'Gertuago' margo erakusketa

Artista katalanak 20 bat lan batzen dituen erakusketa zabalduko du gaur, 19:00etan



Laia Bedos artista katalana Aroztegin erakutsiko duen lanetako baten ondoan. EDU MENDIBIL

**EDU MENDIBIL** > BERGARA
Gaurtik ekainaren 18ra arte Laia Bedos margolari katalanaren erakusketa ikusgai izango da Aroztegi aretoan. Laia Bedosek (Blanes, 1975) urte bete inguru darama Bergaran bizitzen eta, *Gertuago* izenburupean, azken bi urteotan egindako 20 bat lan erakutsiko ditu Barrenkaleko areto horretan.

Arte Ederretan lizentziaduna da eta 1993tik hainbat sari jasotakoa da han eta hemen. Gaur zabalduko duena da gure artean egiten duen lehenbiziko erakusketa. Formatu txikiko eta handiko lan abstraktuak zintzilikatu ditu Aroztegin. Haren esanetan, "nire kasuan, pintura absentzia, presentzia eta ekintzarako aukera mugagabearekin lortuta dago. Gorputzak inguruarekin duen harremana da lanaren abiapuntua eta nik bizi dudanak hitz egiten saiatzen naiz koadroetan". Bergara bizitzera etorri izanak eragina izan du Laia Bedosen lanetan, "argiak, jendearen izaerak edota hizkuntzak berak niregan eragina dutelako. Pintura espresiobide bat da eta jendearengan emozioak sortzen saiatzen naiz, biziztarako ilusioa pizten".

**ABANGOARDIA KATALANA**
Abangoardia katalanen, Miroren eta abarren eragina aitortzen du bere lanetan eta Kandinskyren aipu bat aukeratu du bere lanen aurkezpenerako: "Pintura arimarentzat indarra da".

**UZTAILEAN, KATALUNIAN**
Bergarako erakusketaren ondoren, uztailean bere jaioterritik gertu, Tossa de Mar-en, egingo du erakusketa eta datorren urterako Logroñon, Castellon eta Kordoban erakusketak egitea aurreikusita dauka.

Bien bitartean, Bergaran duen estudioan dabil lanean. *www.bedosbonaterra.com*

**MUSIKA** > 'KANTARI'

# 'Kantari' ikuskizuna, Zabalotegin

**E.M.** > BERGARA
Goiena Telebistako *Kantari* karaoke ikuskizunaren saioak grabatuko dituzte bihar eta etzi Zabalotegi aretoan. Bergarako eta Antzuolako neska-mutikoak elkartuko dira kantuan eta dantzan egiteko. Grabatutako saioak GOITBn emango dituzte datozen egunotan.



Bergarako 240 eta Antzuolako umek hartuko dute parte saioetan. GOIENKARIA

**266 LAGUN ZAPATUAN ETA DOMEKAN**
Bigarren aldiz antolatu dute Goiena Komunikazio Zerbitzuek *Kantari* karaoke ikuskizuna. 8 eta 12 urte arteko umeei zuzenduta dago *Kantari*. Bergarako 240 eta Antzuolako 23 gaztetxo izango dira oraingo aste bukaeran Zabalotegin. Zapatuan eta domekan hamaika saio grabatuko dituzte telebistarako: zapatuan 16:00etan hasiko dira grabaketarekin eta domekan, berriz, 16:30ean.

Urduri izango dira neska-mutiko asko, baina kantuak eta dantzak ondo baino hobeto ikasi dituztela erakutsiko dute aste bukaeran. Entseguetan Maite Albes (Antzuolan) eta Josu Montero (Bergaran) irakasleak izan dituzte lagun.

**SARRERAK ESKURAGARRI BIHAR**
Zabalotegiko aretoan arazorik sor ez dadin sarrerak banatu zaizkie parte-hartzaileei (bi bakoitzari). Hala ere, sarrera gehiago izango dituzte bihar eta etzi hara joaten direnendako. Doanekoa izango da sarrera.

> JARDUN

## Trikiti afaria Artatse elkartean hurrengo egubakoitzean, Jardun elkarteak antolatuta

Jardun euskara elkarteak trikiti afaria antolatu du datorren egubakoitzerako, hilaren 19rako. Artatse elkartean izango da afaria, 21:30ean. Aurretik, 20:00etan, Pol-Polen elkartuko dira, trikitilarien laguntzarekin poteoa egiteko. Txartelak eskuragarri daude Jardunen:12 eurotan bazkideendako eta 15 eurotan besteendako.

> ZINEKLUBA

## Eguenean, hilaren 18an, 'Garaje' filma eskainiko dute Zabalotegin, zineklubeko programazioan

Lenny Abrahamson zuzendari irlandarraren *Garaje* filma eskainiko dute eguenean, hilaren 18an, zineklubean, 20:00etan. Turingo zinema jaialdian saritu zuten *Garaje*. Ekainaren 25ean Lucia Puenzoren *XXY* emango dute zineklubean, ordu berean.

> ERAKUSKETA

## EHGAM elkartearen 'Borrokaren koloreak' erakusketa kultura etxean, ekainaren 22tik

EHGAMek, Euskal Herriko Gay eta Lesbianen Askapenerako Mugimenduak, *Borrokaren koloreak* izenburuko erakusketa jarriko du ikusgai kultura etxean, ekainaren 22tik uztailaren 3ra. Aste barruan izango da zabalik, 18:00etatik 19:00etara.

trinmer telecomunicaciones
tdt televisión digital terrestre
Bergaran ere badago Lurreko Telebista Digitala!
Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.
TRINMER 20 urte antenetan
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne
TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR
Tel.: 943 12 73 50 – 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60
*antenas@trinmer.com* | *www.trinmer.com*

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57
1929az geroztik zure zerbitzura

ARANE
KRISTALDEGIA
Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

**ARETO FUTBOLA** > KOPAKO FINALAK

# Kopako finala jokatuko dute etzi Labegaraietako txapelketakoek

Zigalikatis eta Akabaoak taldeek neurtuko dituzte indarrak, 12:15ean, eta horren ondoren luncha egingo dute

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Labegaraietako areto futbol txapelketak azken txanpa beteko du domekan; alegia, kopa txapelketako finala jokatuko dute Labegaraieta kiroldegian. 12:15ean irtengo dira kantxara txapelketako bi talde onenak: Zigalikatis eta Akabaoak.

Antolatzaileek diote partidu polita jokatuko dutela bi taldeek: "Akabaoak taldeak joko polita egin du liga eta kopa txapelketetan. Joko azkarra eta zuzena egiten dute. Zigalikatisek, ordea, Akabaoak taldeko izarrak geratzeko ahalegina egingo du. Partidua gogorra izango da, baina ikusleendako ederra. Gainera, liga irabazi ondoren, Akabaoak taldeak denboraldiko bigarren titulua irabaz dezake", esan digu antolaketa taldeko Pedro Zafrak. Finala bukatu ondoren, partehartzaile guztiekin luncha egingo dute.

**FINALERDIAK**

Labegaraietako kopa txapelketako finalerdiak aurreko aste bukaeran jokatu zituzten.

Lehenengoa arrasatearren arteko finalerdia izan zen. Hain zuzen ere, Zigalikatis eta Carboneros taldeak lehiatu ziren. Carboneros taldeak agindu zuen minutu gehienetan markagailuan, baina Zigalikatisek binako berdinketa egin zuen lehia bukatzeko hiru minutu falta zirela. Penalti jaurtiketatan Zigalikatis izan zen hobea eta finalerako txartela lortu zuen.

Bigarren finalerdian ligako txapeldun Akabaoak eta Los Latinos taldeak lehiatu ziren. 10-5 irabazi zuen Akabaoakek, baina gauzak zail jarri zizkion Los Latinos taldeak. Eurek egin zituzten gol aukera gehien, baina Akabaoak taldeko atezain Jose Miguel Calle izan zen jokalari onena. Denboraldiko talde indartsuena izan direla erakutsi zuten.



ARIZNOA

## Sari ugari Euskadiko txapelketan

Ariznoako neskek domina ugari lortu zituzten Tolosan jokatutako Euskadiko txapelketan. Kadete A eta B eta gazte A mailetan taldeka urrezko domina lortu zuten. Aldiz, gazte B mailan zilarrezkoa lortu zuten. Bestalde, Ainize Lizarraldek gazte B mailako banakako ariketan, urrezko domina jantzi zuen. Kadete B mailan Jennifer Pineda bigarren tokian sailkatu zen. Dena den, gimnasta guztiek egin zuten lan ona.

## Bergarako neskek kopa irabazi zuten

Bergarako infantil mailako neskek kopa txapelketako finala irabazi zuten aurreko aste bukaeran Donostiako Intxaurdi taldearen kontra, 4-2. Joserra Lasak zuzentzen duen taldeak pozarren jaso zuen txapeldunaren kopa, eta biziki ospatuko zuen garaipena zelai erdian.

Zumaiako Aita Mari futbol zelaian jokatu zuten finala. Bergarararrek lau gol egin arren, norgehiagoka gogorra jokatu zuten. Bi taldeen jokoa oso intentsua izan zen. Bergarararren lau golak Melanie jokalariak egin zituen.



BERGARA FUTBOL TALDEA

## Futbol taldekoak, Gorlara

Bergara futbol taldeko jokalariak Gorlara igo ziren bizikletaz, denboraldia agurtzeko. Plazatik irten ziren tropelean eta azkarrena Josu Agirreazabal izan zen. Haren atzetik sailkatu ziren Markel Egaña eta Iñaki Muxika. Ondoren, hamarretakoa egin zuten Gorlako kantinan.

Denboraldia agurtzeko beste irteera bat geratzen zaie: ekainaren 20an Errioxako upategi batera egun osoko irteera egingo dute.



MANU DIAZ

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

**txaloak eta txistuak**



OIHANA ELORTZA

## Eguna eta ordua zaindu hondakin handiak ateratzeko

Martitzenetan batzen dituzte Bergaran etxeko hondakin handiak, baina 20:00etatik 22:00etara atera behar dira, ez lehenago. Goiko argazkia, adibidez, martitzenean ateratakoa da, Irizar pasealekuan, baina 11:30ean. Mankomunitateari abisatu behar zaio zer hondakin eta non aterako den. Horretarako telefonoa hau da: 943 71 19 38.

**mingainari tiraka**

**Mari Carmen Nogueiras** > Mirari jantzi denda

# "Bergararrak oso ondo janzten dira, estilo handia dute"



**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

**Duela 21 urte zabaldu zuen Mari Carmen Nogueirasek Mirari jantzi denda. Mertzeriako produktuak saltzen hasi zen, baina egun, emakumeendako, gizonendako eta jaioberriendako arropak eta osagarriak saltzen ditu. Alaba zaharrenaren izena du dendak.**

**Ze koloretako arropa ari zara saltzen udarako?**

Gorria, berdea, horia eta zuria, gehienbat.

**Nolakoa da dendara datorren bezeroa?**

Bergaratik ez ezik, inguruko herrietatik ere etortzen dira eta konfiantza handia daukagu elkarrengan. Bestalde, gizonendako arropa ere eduki arren, etortzen diren gehienak emakumeak dira. Gizonak lagunduta etortzen dira gehienetan.

**Zer moduz janzten da Bergarako jendea? Badu estilorik?**

Bai. Bergararrak oso ondo janzten dira. Estilo eta klase handia dute. Ikusi egiten da, gainera, kalean.

**Fijatzen zara famatuak nola janzten diren?**

Bai.

**Norekin erosten duzu arropa?**

Feria eta desfileetara joaten naiz; Madrilgora, adibidez, urtero. Alaba zaharrarekin joaten naiz. Hark gazteen arropen aldera jotzen du eta nik, agian, estilo klasikoagora, baina ederki moldatzen gara, gustu biak uztartzen ditugu.

**Dirutan ala txartelarekin ordaintzen dute bezeroek?**

Gehienek txartelarekin.

ORAIN BERGARAN

Teoria-ikastaro trinkoak

EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ

Nahi izanez gero, ordenagailu bidez

Ikastaroaren iraupena asistentziaren araberakoa izango da
(4, 6, 8… egun)

GOIERRI Autogidarien Eskola

LARRAÑAGA AUTOESKOLA

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

Artekale 22 (laster Masterrekan) Tel.: 943 76 16 63 BERGARA
Santa Ana 11 Tel.: 943 74 10 11 ELGOIBAR

**INGURUMENA** > -ASTE BERDEA

# Ikus-entzunezko bi eta ikastaroa izango dira Aste Berdean

Gidatzerakoan kutsadura eta gastua zelan murriztu erakutsiko dute

Urkuluko hegaztien gaineko berbaldia martitzenean

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Ingurumenaren Nazioarteko Eguna izan zen ekainaren 5ean, eta egun hori kontuan hartu eta Aste Berdea antolatzea erabaki du aurten Ingurumen Sailak. Herritarren sentsibilizazioa eta hausnarketa bultzatzea helburu duen astean hiru ekitaldi egingo dituzte: ikus-entzunezkoak bi berbaldiekin osatuta eta ikastaroa gutxiago kutsatuz automobila gidatzen ikasteko.

**HEGAZTIAK ETA KUTSADURA**

Martitzenean, hilak 16, Urkuluko hegaztien gaineko berbaldia egingo du Foru Aldundiko Mendi eta Natur Ingurunearen teknikari Mikel Olanok. Urkuluko urtegian bizi diren eta etortzen diren hegaztien bilakaeraren berri emango du eta azken 20 urteotan izan diren aldaketak aipatuko ditu Olanok, beste kontu batzuen artean. Hain zuzen, Arkupeko Zaraia aretoan izango da berbaldia (19:30).

Eguaztenean (19:30), hilak 17, ostera, Ekologistak Martxan taldeko kide Martin Mantxo etorriko da. Hirietan automobilek duten eragina aztertzen duen *Lineas discontinuas* ikus-entzunezkoa eskainiko du lehenengo eta ondoren, autoek sortzen duten kutsaduraren gaineko hausnarketa egingo du elkartutakoekin.

**IKASTAROA MARTITZENEAN**

Martitzenean ikastaroa ere egingo dute. Gidatzerakoan gutxiago kutsatzen eta gehiago aurrezten erakutsiko dute; baita dirutan zenbat aurrezten den esan ere. Lau orduko ikastaroa da eta saio teorikoa eta praktikoa daude. Debalde da eta automobilak antolatzaileek ekarriko dituzte.

Interesatuek aurrez eman behar dute izena Arkupera deituta (943 08 10 01), eta gaur da horretarako azken eguna. Ikastaroa, ostera, martitzenean izango da eta bi saio jarri dituzte aukeratzeko –txandaka lan egiten dutenak kontuan hartuta–: 09:00-13:00 edo 16:00-20:00.

**INGURUMENA** > ESKOLA AGENDA 21

# Publizitatearen gaineko hausnarketa egin dute, eta konpromisoak eskatu Udalari

Kurtzebarri eskolako gaztetxoek adierazpen libreko gune gehiago eskatu dizkiote eta 'Publizitaterik ez' pegatinak herritarren eskura jartzeko

**M.A.** > ARETXABALETA

Kurtzebarri eskolako ikasleek publizitatearen gaineko hausnarketa egin dute ikasturtean zehar Eskola Agenda 21 egitasmo barruan. Aztertutakoa azaldu eta proposamenak aurkezteko bilera egin zuten martitzenean Inaxio Garro alkatearekin eta Joxe Anjel Antxia Ingurumen zinegotziarekin.

**AZTERKETA LANA**

Lehen Hezkuntzako eta DBHko 60 bat ikasle elkartu ziren Arkupen. Herrian publizitateak duen lekua eta eragina aztertu dute eta konturatu dira publizitate asko jasotzen dugula eta gehienek kontsumoa bultzatzen dutela. Adierazpen libreko gunetik kanpo jarritako asko dagoela aipatu zuten, sarritan errepikatuta eta data pasatuta. Eta publizitatearen berri gehiago jakiteko bisitak egin dituzte Atai eta Eguzkigraf enpresetara, eta dendaz denda galdezka ibili dira.

Azterketa egin eta gero hainbat konpromiso hartzeko gertu azaldu ziren ikasleak: *Publizitaterik ez* pegatina jarri atarian, gutxiago kontsumitu eta birziklatu eta iritzi kritikoarekin behatu. Publizitatea, baina, batzuetan beharrezkoa dela onartu zuten eta kanpora joaten direnean herriaren berri emateko konpromisoa hartu zuten.




Ikasleak publizitatearen gainean egindako lana aurkezten, alkatearen eta Ingurumen zinegotziaren aurrean. M.A.

**UDALARI KONPROMISO ESKE**

Udalak ere baduela zeresana gogorarazi zieten Udal ordezkariei, eta hainbat konpromiso hartzeko eskatu: adierazpen libreko gune gehiago jarri eta publizitatea bertan bakarrik dagoela zaindu –Udala eredu izanda–; *Publizitaterik ez* pegatinak herritarren eskura jarri eta postariei errespetatzeko eskatu; enpresei publizitate gutxiago egin dezaten eskatu eta partidu politikoen propaganda kendu. Era berean, herria ezagutzera emateko zelan egin publizitatea proposatu zieten: komunikabideetan herriari buruzko iragarki gehiago jarri; eslogan erakargarri eta dibertigarriak erabili eta inguruko herrietan Aretxabaletaren berri ematen duten kartelak jarri.

Alkateak eskerrak eman zizkien egindako lanagatik eta oporren bueltan berriz batuko direla esan zien, erantzuna emateko.

**ELKARTASUNA**

# Dirua behar du Iesbaak Saharako umeendako

Uztailean Lasturrera etorriko diren umeen egonaldia ordaintzeko da

**M.A.** >ARETXABALETA

Uztailaren 10ean Saharako umeak etorriko dira gurera uda pasatzera. Batzuek familietan pasatuko dute –Aretxabaletan hiru ume–, baina gehienak Lasturrera (Deba) joango dira. Aljeriako Tindouf herrian dauden errefuxiatuen kanpamentuetako 13 ume etorri ziren iaz, eta aurten bost gehiago izango dira. Ume horien gastua herritarren laguntzari esker ordaindu zuten iaz Sahararen alde lan egiten duten Iesbaa eta Nubi elkarteek, baina aurten larri dabiltza dirua lortzeko, tartean dirua jasotzeko egindako ekimenek –II. Are-krosa, Mundumira, Elkartasun Eguna…– ez dutelako iaz besteko arrakastarik izan.

**25.000 EURОREN BEHARREAN**

25.000 euroko zuloa dute umeak etortzeko hilabete eskas geratzen denean; horregatik, herritarren laguntza ezinbestekotzat jo dute Iesbaa eta Nubi elkarteetako arduradunek. Argazkidun 5.000 txartel banatuko dituzte egunotan, ikastetxeetan, egoeraren berri eman eta jakinarazteko hiru kontu korronte dituztela zabalduta laguntza jasotzeko: Euskadiko Kutxan, La Caixan eta Kutxan.

Argibide gehiago jaso gura duenak telefonoz dei egin dezala (626 63 91 61) edo honako helbidera idatzi: *iesbaa@gmail.com*.

> EUSKARA

## EGA gertatzeko eta sakontze ikastaroak Udal Euskaltegian

Leintz Udal Euskaltegiak hainbat ikastaro antolatu ditu uztail eta irailerako. EGA azterketa gertatu gura dutenendako, batetik, eta euskaraz jakin baina gehiago sakondu gura dutenendako, bestetik –akatsak zuzendu…

Ikastaroak uztailaren 1etik 24ra egingo dituzte eta irailaren 1etik 30era; egunean hiru ordu. Izenemate epea dagoeneko zabalik daukate Leintz Udal Euskaltegian; azken eguna ekainaren 26a da. Argibide gehiago gura duenak edo izena eman bertara jo dezala (943 79 21 68).

KONTZERTUA > LEIZARRA MUSIKA ESKOLA

# Kurtsoko azken kontzertua martitzenean

Ikasturtean ikasitakoaren erakustaldia egingo dute ikasleek Iturrigorri frontoian

Joan den astean dantza saioak egin zituzten; 200 bat ikaslek hartu zuten parte, ume zein heldu

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA
Leizarra musika eskolako ikasleek oporrak hartuko dituzte laster, ekainaren 22an. Aurretik, baina, ikasturtean ikasitakoaren berri eman gura diete guraso eta lagunei. Hala, bada, ikasturte bukaerako kontzertua eskainiko dute martitzenean, hilak 16, Iturrigorri frontoian (18:30).

**ABESBATZA ETA INSTRUMENTUAK**
Joan den aste guztian dantza saioak egin zituzten musika eskolako dantzariek. 200 ikasle baino gehiago izan ziren erakustaldi horietan –umeak eta helduak– eta Arkupen bertan eta Herriko Plazan egin zituzten.

Datorren astean, ostera, musikarien txanda izango da. Saioa ikaslerik txikienek hasiko dute kantuan –musika tailerrean dabiltzan 4 eta 6 urte artekoak– eta hainbat musika tresnarekin osatutako taldetxoak agertuko dira gero: tronpetariak; flauta, piano eta gitarra joleak; biolin laukotea; txistu taldea; trikitilariak eta beste hainbat musikari. Musika eskolako abesbatzak ere hartuko du parte, *Cicle of life* abestuko du bakarrik eta *Malko bi* talde mixtoarekin batera; eta banda txikiak *Parque Jurasico* doinua eskainiko du. Musika eskolan osatutako taldetxoek, ostera, abesti entzutetsuen bertsioak egingo dituzte; tartean, AC/DC eta Metallicaren abestien bertsioak.

**MATRIKULATZE EPEA ZABALIK**
Leizarra musika eskolako arduradunak datorren ikasturtea gertatzen hasita daude eta matrikulatzeko epea zabalik dago hilaren 18a bitartean. Interesatuek Arkupeko hirugarren solairuan dagoen musika eskolako bulegora jo behar dute (17:00-19:00). Hona hemen musika eskolak eskaintzen duena: musika tailerrak eta dantza (4 urtetik aurrera), musika eta dantza helduendako, instrumentuen ikasketak –biolina, gitarra, pianoa, txistua, trikitixa…–, instrumentuekin osatutako taldeak, eta konboak –musika inprobisatzen jakitea.


Musika eskolako dantzariak, egunotako saio baten. MUSIKA ESKOLA


Musika tailerreko ikasle txikienek, 4 eta 6 urte artekoek, kantuan egingo dute martitzenean. MUSIKA ESKOLA

LEHIAKETAK

## Andramaixa jaietako lehiaketak abian dira

Jaiak iragartzeko kartela gura dute eta jaiegunak girotzeko, esaldiak

M.A. > ARETXABALETA
Andramaixak gertatzen hasi da Kultura Saila eta jaiak iragarriko dituen kartela hautatzeko lehiaketa deitu du. Edonork har dezake parte eta teknika librea da. Kartelaren neurria 50x70 zentimetro izango da eta disketean ekarriz gero, A-3. Derrigorrez ondorengo testua izan beharko du: *Andramaixak 2009. Abuztuaren 14a, 15a, 16a eta 17a. Aretxabaleta*.

Aurkezteko azken eguna uztailaren 3a da, eta kultura etxera edo udaletxera eroan behar dira. Saria 300 euro izango da.

**ESALDI LEHIAKETA**
Prebentzio Zerbitzuak, ostera, esaldi lehiaketa deitu du jaiak girotzeko helburuarekin. 13 urtetik gorakoendako da eta gura beste esaldi aurkez ditzakete. Hori bai, ez dituzte onartuko neurriz kanpoko kontsumoa bultzatzen duten esaldiak, ezta jarrera sexistak bultzatzen dituztenak ere. Udaletxean edo kultura etxean utzi behar dira esaldiok eta ekainaren 26a da azken eguna. Egitarauan erabiliko duten esaldia asmatutakoak 120 euro jasoko ditu eta pegatinak egiteko hautatutakoen egileek 60 euro.

Bi lehiaketetako saridunen berri uztailaren 7an emango dute Kultura Sailak eta Prebentzio Zerbitzuak.


Mahai-inguruko gonbidatuak, ikasleen aurrean. MIRARI ALTUBE

HEZKUNTZA > EUSKARA

# Mahai-ingurua egin dute gazte ezagunekin Kurtzebarri eskolan

Euskararen gaineko hausnarketa helburu zuen proiektuari bukaera eman diote DBHko ikasleek

M.A. > ARETXABALETA
Euskararen erabileraren gaineko hausnarketa egiten jardun dute azken asteotan Kurtzebarri eskolako DBHko bigarren mailako ikasleek. Proiektuari bukaera emateko mahai-ingurua antolatu zuten eta hainbat arrazoirengatik ezagunak diren gazteak elkartu zituzten eguazten goizean, eskolan.

**OIHAN VEGAK GIDATUTA**
Oihan Vega Bergarako musikari eta irrati esatari ezagunak bideratu zuen mahai-ingurua eta haren alboan honakoak zeuden: Maite Iturraran –*El conquistador del fin del mundo* lehiaketan egondakoa–, Oinatz Agirre –UDAko futbol jokalaria–, Maria Cruickshank –*Goenkale*-ko aktorea–, Ibai Agirreurreta –ikasle ohia eta musikaria–, Gabriela Gerasimova –Bulgariatik etorritako ikaslea– eta Izaskun Aiastui –eskolako irakaslea.

Ikasle eta gonbidatuen artean hausnarketa polita egin zuten. Eskolako ikasleek onartu zuten gaztelaniaz egiten dutela berba, eta horren arrazoiak aztertu: komunikabideen eragina, kanpotik etorritakoen eragina, zirraragarriagoa izatea… Eta hori zuzentzeko konpromisoak hartzeko gertu azaldu ziren.

**KIROLA** > UDAKO KIROL KANPAINA

# Gaztetxoek udan kirola egiteko izenemate epea zabalik dago

## Kirol etxerik ez izan arren ekainean eta uztailean izango dira gaztetxoendako kirol jarduerak

## Trialsinean jarduteko gunea egokitu dute harri eta egurrekin, kanposantura bidean

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Urtero legez, opor sasoirako jarduerak antolatu ditu Kirol Zerbitzuak. Udako kirol kanpainaren berri ematen duen esku-orria banatu du egunotan eta izenemate epea zabalik dago.

**JOLASAK ETA KIROLA**

Adinari egokitutako taldeak egingo dituzte. 4tik 7 urtera artekoek jolasak egiteko (11:00-12:00) eta patinekin jarduteko (15:00-16:00) aukera izango dute egunero –10 euro. 8tik 11 urte artekoek multikirola egingo dute (10:00-11:30 eta 15:00-16:30) –25 euro: tenisa, patinajea, futbola, pilota… Eta ikastaro batzuk ere eskaini dizkiete: frontenisa, patinajea, batuka, trialsina eta golfa. 12tik 15 urte artekoek ikastaroak izango dituzte aukeran–10euro: frontenisa, patinajea, batuka, trialsina eta skate. Eta 15 urtetik gorakoek beste ikastaro batzuk: taichi, capoeira, funky eta circuit training.

Bi txanda egongo dira jardueretan parte hartzeko: ekainaren 29tik uztailaren 10era eta uztailaren 13tik 24ra. Lehenengo txandan izena emateko epea hilaren 19an bukatuko da, eta bigarren txandarako, uztailaren 9an. Argibide gehiago eskatzeko eta izena emateko Zainduz gimnasiora deitu behar da (943 71 26 28).

**TRIALSINERAKO GUNEA**

Kirol etxerik ez egotera, beste gune batzuk erabiliko dituzte kirol jarduerak egiteko: futbol zelaia, Iturrigorri frontoia, Arlutz osteko kantxa… Eta trialsinean jarduteko gune berria egokitu dute. Kanposantura bidean dago, skate parke ostean, eta egurrezko oholak eta hainbat tamainatako harriak jarri dituzte. Kirol horrek herrian duen arrakasta izan da gune hori egokitzeko arrazoietako bat.



Kanposantura bidean egokitu dute gunea trialsinean jarduteko. MIRARI ALTUBE

**OSPAKIZUNA**

# Kurtzebarri eskolako jaialdia dago bihar

## Goizean jolasak egingo dituzte, herri bazkaria gero eta dantzarekin bukatu

**M.A.** >ARETXABALETA

Ikasturte bukaera ailegatu dela-eta, Kurtzebarri eskolako jaialdia egingo dute bihar, zapatua. Antolatzaileen esanetan, 300 lagunetik gora elkartuko dira eskola inguruan, ikasturtea agurtu eta ondo pasatzeko gogoarekin.

10:00etan elkartu eta etxafuegoak botata eta *Altxorraren bila* jolasa eginaz hasiko dute eguna. Tailerrak izango dituzte gero umeek (12:00) eta bolo txapelketa gurasoek (12:30). Bazkal aurretik luntxa egingo dute (13:15), eta gero, bazkaria (14:15). Gaztelu puzgarriak izango dituzte txikienek arratsaldean, eta joko-lata tailerra, gainerakoek. Jaialdiari Bide Batez taldeak girotuko duen dantzaldiarekin esango diote agur.



Kanpai-jotzaile eskolako kideak, Juane Madinabeitia erdian dela. KANPAI-JOTZAILE ESKOLA

**JENDARTEA** > HERIOTZA

# Juane Madinabeitia kanpai-jotzailea zendu zen domekan

## Kanpaiak jotzen aparta Areantzako kanpai-jotzaile eskolaren bultzatzailea izan zen

**M.A.** > ARETXABALETA

Domekan, hilak 7, hil zen Juane Madinabeitia, 78 urte zituela. Areantza auzoan jaioa, txikitatik kanpai-jotzaile aparta izan zela jakinarazi digute Areantzako kanpai-jotzaile eskolako kideek, eta eskolaren sorreran zeresan handia izan zuela: "Haren eskutik jaso genituen Areantzan inoiz jo izan ziren 15 kanpai joaldi ezberdinak, 2001ean, eta bere azalpen eta guzti bideo txukuna osatu genuen. Ordutik Areantzako kanpai-jotzaile eskola sortzeko arrazoia eta inspirazioa izan da. Bere jakituria eskuratzea eta bere erara jotzeko gai izatea izan da eskolakoon erronka".

Kanpai-jotzaile eskolako kideek agurra bidali gura izan diote maisu izan dutenari: "*Arientzan Kanpaiek die* grabazioa bukatzen den moduen zera esaten dizugu: *Eskerrik asko Juane, urtietan joittezun kanpaiek hemen jaso ahal izenttulako*".

**GAZTERIA** > LEHIAKETA

# Grafiti lehiaketa antolatu du Gazteria Zerbitzuak

## Irabazleak 300 euro jasoko ditu eta herriko horma bat margotuko du uztailaren 11n

**M.A.** > ARETXABALETA

Aurten 15 urte beteta dituzten aretxabaletarrei edo Aretxabaletako ikastetxeren baten ikasten dutenei egin die lehiaketa deia Gazteria Zerbitzuak. Grafitiaren zirriborroa aurkeztu beharko dute lehiakideek A-3 neurrian eta CD baten. Teknika eta gaiak libreak izango dira.

Lanak Gazteria Zerbitzuan aurkeztu behar dituzte interesatuek –Arkupe kultur etxean– uztailaren 1a baino lehen. Grafitiaren zirriborroarekin batera egilearen datuak eroan beharko dituzte kartazal itxian.

Irabazleak 300 euro jasoko ditu saritzat eta grafitia herriko horma baten irudikatuko du. Horretarako behar duen materiala antolatzaileak emango dio. Uztailaren 11 izango da grafitia margotzeko eguna, hip hop jaialdia ospatuko dutelako orduan herrian.



Horma baten egindako grafitia. GOIENKARIA

**oharrak**

DANTZA
**> Baleteko ikasleen saioa**
Baleta ikasten dabiltzan umeek erakustaldia egingo dute gaur, Arkupen (19:00).

KONTZERTUA
**> Sabinaren kantuen kontzertua**
Joaquin Sabinaren kantuak gogorarazteko kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, Arkupen (22:00).

KONTZERTUA
**> The Upper Room gospel taldearen doinuak**
Donostiako taldeak gospel doinuak ekarriko ditu Arkupera, domekan, hilak 14 (19:30), 5 euroren truke.

ERRETIRATUAK
**> Elvi sabeliztunaren saioa**
Elvi sabeliztun ezagunak *Ventriloqueando* ikuskizuna eskainiko die erretiratuei astelehenean, hilak 16 (16:00).

ERRETIRATUAK
**> Zainketen gaineko berbaldia**
Nagusiek behar dituzten zainketen gaineko berbaldia egingo dute martitzenean, hilak 16, Basotxon (17:00).

AURKEZPENA
**> Bertan behera 'La historia del Valle de Leniz' aurkezpena**
Bihar zen liburuaren aurkezpen ekitaldia baina irailera atzeratu dute.



San Pedroko zubitik gora egin ahalko dute arrantzan parte-hartzaileek, 09:00etatik 12:00etara arte. GOIENKARIA

**KIROLA** > ARRANTZA

# Hilaren 21ean egingo dute herri mailako arrantza txapelketa

Izenematea ekainaren 19an itxiko dute, eta parte-hartzaileak lau mailatan banatuko dituzte: alebinak, infantilak, gazteak eta helduak

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Pago Uso elkarteak antolatuta, herri mailako arrantza txapelketa jokatuko dute hilaren 21ean. Hain zuzen, 09:00etatik 12:00etara egin ahalko da arrantzan era librean; hau da, zizarearekin, koilaratxoarekin edo euliarekin. Bukaeran sariak banatuko dituzte.

Parte-hartzaileak lau mailatan banatuko dituzte adinaren arabera: alebinak (11 urtekoak), infantilak (14 urtekoak), gazteak (15-18 urte artekoak) eta helduak (18 urtetik gorakoak).

Txapelketan parte hartu gura dutenek izenematea bi modutara egin dezakete: alde batetik, Pago Uso elkartean eman dezakete izena, ekainaren 17an, 18an eta 19an, 20:00etatik 21:00etara; edo, beste alde batetik, Nicolas Ugarte ile-apaindegira jo dezakete, egunero.

**PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**

Txapelketan parte hartzeko, bi baldintza bete behar dituzte: federatu txartela eta arrantzarako baimena eguneratuak izatea, hain justu ere.

Arrantzale bakoitzak ezin izango du hiru amuarrain baino gehiago harrapatu. Berdinketa gertatzen bada, kontrol gunera lehenago iristen denak irabaziko du txapelketa.

> SENIDETZEA

### Familiak behar dituzte Chateubernard-eko bisitariak hartzeko

Chateaubernard-etik datozen bisitariendako harrera familiak bilatzeko deialdiak erantzuna ona izan du herritarren artean. Baina, oraindik 10-12 bat lagunendako familiak behar dituzte. Izena emateko deitu 943 78 28 77, 695 75 17 27 edo 943 78 34 53 zenbakietara.

> DEIALDIA

### Afari solidarioa egingo dute Bidaurretako fraileen etxean, gaur

Oñatiko Misio Taldeak afari solidarioa egingo du gaur Bidaurretako fraileen etxean, 20:30ean. Afaltzeko patata tortilla letxugarekin jarriko dute. Afal ondoren, Benin-eko apaiz batek han egiten dihardute proiektuaren gaineko azken berriak azalduko ditu.

> OSPAKIZUNA

### Astelehenetik hilaren 26ra arte ate irekiak Txaloka ludotekan

Txaloka ludoteka barrutik ezagutu gura dutenendako, ateak zabalduko dituzte astelehenetik hilaren 26ra arte. Astelehenetik egubakoitzera zabalduko dituzte ateak 17:00etatik 20:00etara arte. Ludotekan 4-10 urte arteko neska-mutikoendako ekintzak antolatzen dituzte.

**JENDARTEA** > ISUNAK

## Txakurren kaka jaso barik uzten duen jabeari 600 euroko isuna jarriko diote

Udaltzaingoak dio "erabat debekatuta" dagoela txakurren kakak ez jasotzea eta katuendako jana botatzea

**M.B.** > OÑATI

Txakurren kakak jaso gabe eta kalean katuendako janaria uzten duten herritarrei isuna jarriko diete aurrerantzean. Hain justu ere, 600 euro arteko isunak jarri ditzakete.

Udaltzaingoak bidalitako oharrean azpimarratzen du "debekatuta" dagoela txakurren kakak jaso barik eta katuendako janaria kalean uztea; besteak beste, bide eta plaza publikoetan, jolasparkeetan, lorategietan eta ,oro har, herritarrak ibiltzen diren tokietan. Era berean, azaltzen dute debeku horri jaramonik ez egitea 10/1998 legearen "kontrakoa" dela. Arau-hausleari isuna jarriko diote.

**ANIMALIENDAKO JANARIA**

Azalpen berberak ematen dituzte katuendako edo beste animalia batzuendako kalean janaria uzten duten herritarrendako. Araua betetzen ez dutenei 600 euro arteko isuna jarriko diote. "Herritar askok janaria botatzen dute, batez ere gauetan. Animaliiek ia guztia jaten dute, baina hondarrak jaten arratoiak ibiltzen dira. Auzo batzuetako bizilagunak kexu etorri zaizkigu, gero eta arratoi gehiago daudela esanez. Hori guztiori janaria kalean botatzearen ondorio da", esan digute.

**ETXEBIZITZA** > UGARKALDEKO ETXEAK

## Etxeari uko egiten diotenek ez dute Udalaren zozketetan parte hartuko hiru urtetan

Etxeari uko egitearen arrazoia ekonomikoa bada, zigorra urte betekoa izango da

**M.B.** > OÑATI

Ugarkalde 5. eta 6. zenbakietako etxeen zozketa arazo barik egin zuten astelehenean. Zubikoa kiroldegiko frontoia lepo bete zen zozketa zuzenean ikusteko.

Zortea izan zutenek, etxeen gaineko informazioa jaso zuten zozketaren bukaeran, eta orain, 15 egun dituzte dokumentazio guztia aurkezteko.

**ZIGORRA**

Zozketaz egokitutako etxeari behar besteko arrazoi barik uko egiten diotenek, ezin izango dute hiru urtez udalaren zozketatan parte hartu. Arrazoia ekonomikoa bada, zigorra urtebetekoa izango da.

### Ugarkalde 5 eta 6ko etxebizitzak

| ESLEIPENDUNAK | ETXEBIZITZA* | ESLEIPENDUNAK | ETXEBIZITZA* |
|---|---|---|---|
| Roberto Ferreiro Dorado | 5-behe-A | Daniel Velazquez Gartzia | 6-behe-B |
| Jose Maria Ugarte Bikuña | 5-behe-B | Iñigo Biain Berraondo | 6-behe-C |
| Jon Aranburu Zubia | 5-behe- C | Maria Mercedes Garin Goitia | 6-1-A |
| Josu Aguirre Gartzia | 5-1-A | Nerea Agirrebaltzategi Lopez | 6-1-B |
| Aitor Otamendi Zurututza | 5-1-B | Eneko Madina Letamendi | 6-1-C |
| Izaskun Ormazabal Urtzelai | 5-1-C | Sergio Gil Gil | 6-1-D |
| Laura Valderas Limia | 5-1-D | Amada Aguiar Carrion | 6-2-A |
| Xabier Zulaika Errasti | 5-2-A | Agurtzane Intza Bartolome | 6-2-B |
| Nerea Arenaza Vieira | 5-2-B | Beñat Neguerela Elortza | 6-2-C |
| Jesus Azkarate Jauregialtzo | 5-2-C | Raul Felipe Lopez Delgado | 6-2-D |
| Andoni Romano Pedregal | 5-2-D | Maria Azpitarte Sanchez | 6-3-A |
| Iñaki Romaris Graña | 5-3-A | Ane Etxebarria Untzurruntzaga | 6-3-B |
| Roberto Altzelai Barrena | 5-3-B | Josefa Rodriguez Gonzalez | 6-3-C |
| Koldo Urteaga Urkizu | 5-3-C | Aitor Zurututza Perianes | 6-3-D |
| Jon Kerman Losada Perez | 5-3-D | Leire Fernandez Kortabarria | 6-4-A |
| Ivan Martinez Grille | 5-4-A | Maialen Azpiazu Andueza | 6-4-B |
| Fernando Mugartza Etxeberria | 5-4-B | Iker Zubia Ugarte | 6-4-C |
| Jose Pablo Larrea Agirre | 5-4-C | Wilmer Burgos Loor | 6-4-D |
| Aintzane Ezeolaza Soraluze | 5-4-D | | |
| Idoia Bollar Askasibar | 6-behe-A | | |

*Ataria-Solairua-Atea

**Joseba Gabilondo** > Axtroki argazki taldeko kidea

# "Zenbait herritarrek argazkiak ateratzeko egindako irteeretatik sortu zen taldea egiteko ideia"

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

**Eskoriatzak elkarte berria du: Axtroki argazki elkartea. Taldeko kide Joseba Gabilondok ideia nondik datorren eta etorkizunari begira dauzkaten asmoen berri eman digu elkarrizketa honetan. Denbora laburra badaramate ere, dagoeneko ekimenak antolatzen hasi dira; tartean, zapatuan, Ferixiaren harira, egindako argazki lehiaketa.**


Axtroki argazki taldeko kide da Joseba Gabilondo. M.B.

**Arizmendi ikastolak antolatutako Ferixiaren harira, Eskoriatzako I. argazki rallya egin zenuten joan den zapatuan. Pozik lehiaketa horrek izandako harrerarekin?**

Bai, oso pozik. Espero genuen baino jende gehiago aurkeztu zen. Lehiaketak, guztira, Euskal Herriko hainbat tokitatik iritsitako 17 partaide izan zituen: Eskoriatzakoez gain, Laudio, Elorrio, Lezama, Aretxabaleta eta Arrasateko jendea egon zen. Eguraldiak lagundu egin zuen eta argazki onak jaso genituen. Horren harira, teknikak ez zuen horrenbesteko garrantzia lehiaketa horretan; inportanteena bakoitzaren ikuspuntua jasotzea zen.

Bi kategoriatan egon zen banatuta: helduen mailan Iban Pagaldai gailendu zen; umeei dagokienez, berriz, Deianek eta Olaiak osatutako bikoteak irabazi zuen.

**Lehenengo proiektua, Eskoriatzako I. argazki rallya; bigarren proiektuarekin dagoeneko lanean hasi zarete?**

Zerbait pentsatu dugu. Jendeak hala eskatuta, argazkilaritzaren gaineko hainbat ikastaro antolatzea buruan daukagun zerbait da. Oinarrizko ezagutzen gainekoa izango litzateke bat eta editatzeari buruzkoa bestea. Buruan bai, baina oraindik zehazteke dago nola eta noiz egingo ditugun.

**Horretaz gain, zeintzuk dira, etorkizunari begira, Axtroki taldearen asmoak?**

Rallyaz eta ikastaroez gain, erakusketak antolatuko ditugu. Lehena dagoeneko labean dago. Zapatuko lehiaketarekin egingo dugu. Argazkiak herriko bost tabernatan jarriko ditugu hemendik pare bat astera: Inkernun, Bentamotzen, Ciprisen, Nairan eta Mirentxun.

**Nolatan animatu zarete argazki taldea osatzera?**

Herrian argazkilaritzazaleak diren eskoriatzarrak daudela konturatu ginen. Ni taldean sartu nintzenerako, zenbait eskoriatzarrek ilunabarrak eta bestelako irudi ederrak ateratzeko irteerak egiten zituzten. Handik sortu zen taldea eratzeko ideia orain dela bi hilabete inguru. Handik gutxira, orain dela bi aste, elkartu ginen lehen aldiz.

**"Espero genuen baino jende gehiago aurkeztu zen zapatuko argazki lehiaketara"**

**"Lehiaketako irudiekin erakusketa jarriko dugu hemendik pare bat astera"**

**"Lehen Axtroki euskara taldea zegoen tokian egongo da gure lokala, Intxaurtxuetan"**

**Esan genezake, hortaz, nahiko azkar antolatu zaretela. Lokala izango duzue dagoeneko...**

Horretan gabiltza orain, baina ez, oraindik ez daukagu. Udalari dagoeneko eskatu diogu, baina oraindik ez dugu hitzarmenik sinatu harekin. Lehen Axtroki euskara taldea zegoen tokian egongo da gure tokia, Intxaurtxuetan. Lokal hori erabili nahi dugu hemendik aurrera antolatzen ditugun hainbat ekimen egiteko.

**Zenbatek osatzen duzue Axtroki argazki taldea?**

Orain, bost lagun gaude: lau eskoriatzar eta bilbotar bat. Baina edonor sar daiteke taldean. Interesa dutenak gurekin jar daitezke harremanetan webgunearen bitartez: *www.axtrokiargazkitaldea.wordpress.com* webgunean, hain zuzen.

Blog horretan, antolatzen ditugun ekimenen berri emango dugu eta ateratzen ditugun argazkiak igoko ditugu. Teknologia berriek eskaintzen dizkiguten egungo erremintak aprobetxatu behar ditugu, askotariko aukerak eskaintzen dituzte-eta.

**Herrian argazki taldea egon da aurretik?**

Baiezkoan gaude. Orain dela urte asko zerbait egon zen, kultura etxean argazkiak errebelatzeko gela ilun bat zegoen-eta. Baina ez dakigu hori oraindik jarraitzen duen edo ez. Horren gainean galdetu beharko dugu.

**JAIAK** > LEHIAKETA

# Jaietako esaldiaren aukeraketa gertu

San Pedro jaietako esaldi lehiaketaren 10. urteurrena da eta aurreko edizioetan aurkeztutako lelo onena aukeratu dute

**M.B.** > ESKORIATZA

Eskoriatzako Udaleko Euskara Sailak hamar urte daramatza San Pedro jaien harira esaldi lehiaketa antolatzen. Esandako urteurrena ospatzeko, aurten lehiaketa berezia egitea pentsatu dute: azken bederatzi edizioetan lehiaketa irabazi duten esaldi guztien artean onena aukeratzea eta aurtengo jaietan hori erabiltzea.

**ESALDI GUZTIAK WEBGUNEAN**

Interesa dutenek udaleko webgunean, *www.eskoriatza.net*, aurkituko dituzte bederatzi urteotako lelo guztiak. Besteak beste, *Euskerie ibilixaz kantzau biherrien inddertu gastau biharrien gehittu*; *Sanpedrotan edaririk onena? euskerien itturrittik datorrena* edo *Jaixek die nire pekatu. Aurtenguagatik, San Pedro, barkatu!* leloak daude. Botoa emateko epea astelehenean, ekainak 15, amaitzen da. Hortik ateratzen den esaldi irabazlearekin pankarta jarriko da kultura etxeko balkoian.

Jakina denez, esaldi lehiaketa horren helburua da San Pedro jaiak girotuko dituen esaldia aukeratzea.

**AISIALDIA** > LEHIAKETA

# Udalak leiho eta balkoietako loreen lehiaketa deitu du

Ez da izenik eman behar: San Juanetarako balkoiak eta leihoak prest izatearekin nahiko da

**M.B.** > ESKORIATZA

Udaleko Kultura Sailak bigarrenez antolatu du leiho eta balkoietako loreen lehiaketa. Aurreko urteko lehiaketarekin alderatuta, baina, aldaketarekin dator aurtengoa: hain zuzen, lehiaketan parte hartu ahal izateko ez da beharrezkoa izango izenik ematerik. Nahikoa izango da leiho eta balkoiak lore, aihenbelar edo beste edozein landarerekin apaintzea.

Ekimen horren helburua da herria edertzea, eta, hortaz, Kultura Sailak hirigunean dauden eta jendeak kaletik ikus ditzakeen eraikinetako leihoak eta balkoiak apaintzeko gonbita egin du. Lore apainketaren diseinua librea izango da, eta sanjuanetarako guztiek prest egon beharko dute, epaimahaiak baloratu ahal izateko.

**ERABAKIA, EKAINAREN 28AN**

Epaimahaia Kultura Saileko udal ordezkariek eta lorezaintza eta artearekin lotutako profesionalek osatuko dute. Irizpide "estetikoak" bakarrik izango dituzte kontuan horiek baloratzeko. Epaimahaiaren erabakia San Pedro bezperan, hilak 28, jakinaraziko da. Saria bertako produktuz osatutako saskia da.


Joan zen urtean Genoveva Morenoren balkoia izan zen ederrena. GOIENKARIA



Irudian, V. Aste Zapatistaren harira joan den urtean egindako jaialdia. JOSETXO ARANTZABAL

ELKARTASUNA > JAI ZAPATISTA

# Aste Zapatistari amaiera borobila emateko jaialdi berezia egingo dute bihar

Besteak beste, janari mexikarrez egindako herri bazkaria eta, arratsalde partean, herriko tabernetan kontzertuak egongo dira bihar

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Asteon VI. Aste Zapatista egiten dihardute herrian. Astelehenean eman zioten hasiera aurtengo edizioari, oinarrizko errentaren gaineko berbaldiarekin. Martitzenean, berriz, zahar egoitzan daudenek adi entzun zituzten yurrek indigenek bizi duten egoeraren gainean emandako azalpenak. Eguaztenean eta atzoko jardunaldien ostean, gaur, barikua, Mugarik Gabeko Albaitariak elkarteak *Elikagai subiranotasuna eta merkataritza askerako ituna Ugandarekin* izeneko hitzaldia egingo du kultura etxean, 19:00etan.

**BAZKARI MEXIKARRA**

Aurtengo Aste Zapatistari amaiera emateko, jaialdi xume baina berezia prestatu dute. Betiko moduan, herri bazkaria egongo da plazan, Amuskako emakumeek gertatzen lagunduko dutena. Aurten ere janari mexikarra dastatzeko aukera egongo da. Antolatzaileek jakinarazi digute txartelak oraindik salgai daudela 15 eurotan honako tabernetan: Nairan, Aldatzen, Inkernun, Ziprisen eta Alkazarren. Bazkariak irauten duen bitartean, musikari argentinar batek plaza girotuko du boleroekin eta rantxerekin.

Eta eguna behar bezala amaitzeko, kontzertuak egongo dira arratsalde partean herriko hainbat tabernatan: Elektrotunako partaideek osatutako Amargor, Sharon Stoner eta The Honkytonks taldeek joko dute. Horiez gain, talde sorpresa ere egongo da.

## oharrak

OPORRAK

**> Udarako aldi baterako egonaldiak, nagusiendako**

Diputazioak udarako aldi baterako egonaldiak antolatu ditu. Irailerako izenematea gaur egongo da zabalik.

KIROLA

**> Bihar, zapatua, emango diote hasiera udako kanpainari**

Kanpoko igerilekua zabalduko dute bihar honako ordutegian: astelehenetik zapatura 10:00etatik 20:00etara; eta domeka eta jaiegunetan 10:30etik 14:30era. Barruko igerilekuek ere udako ordutegia dute bihartik aurrera: astelehenetik barikura 08:00etatik 21:00etara; zapatuetan 10:00etatik 20:00etara; eta domeketan 09:30etik 14:30era.

KIROLAK

**> Txikirri-Txikirri mendi martxa egingo dute domekan**

Txikirri-Txikirri ibilaldia dago domekan. 07:00etan abiatuko da, eta izena egun horretan eman ahalko da, 06:00etan. Prezioa bost euro da.

AUTOBUSA

**> Hatortxu Jaialdira joateko izenematea, eguaztenera arte**

Hatortxu Rock jaialdiaren harira, hilaren 21ean Hatortxu Egunera joateko autobusak Arrasatetik irtengo dira, 09:00etan. Izena Inkernu, Aldatz edo Zipris tabernan eman behar da ekainaren 17a baino lehen. Gainera, ekainaren 19ko jaialdira joateko autobusa ere irtengo da, 17:00etan. Horretarako sarrerak Inkernu tabernan daude salgai.

TOKI ALDAKETA

**> Olazar kaleko 9. zenbakiko edukiontziak, Gaztanaduira**

Olazarko 9. zenbaki aurrean dauden edukiontziak lekuz aldatu dituzte. Gaztanaduiko 2. zenbakiaren aurrera eraman dituzte.

HEZKUNTZA > JAIALDIA

# Luis Ezeizaren jaialdia herrira zabaldu gura dute aurten

Goizean, plazan egongo dira umeendako ekimenak, eta arratsaldean, ikastetxeko patioan

M.B. > ESKORIATZA

Biharko, zapatua, Luis Ezeiza herri eskolak urteroko jaialdia antolatu du. Ekintzak 10:00etan hasiko dira; hasierako ekitaldia eskolako patioan izango den arren, jarraian egingo den jaialdia herriko plazara eramango dute.

Antolatzaileek jakinarazi dute modu horretan jaia "herriari" eta, hortaz, "eskoriatzar guztiei" zabaldu gura dietela. Goiz osoan zehar, beste askoren artean, etxeko txikienendako tailerrak, jolasak, antzerkia, ping-pong txapelketa eta arku-tiroketa egongo dira plazan.

**BAZKARIA ETA APARRAREN FESTA**

Eguerdian eskolako patiora itzuliko da jaialdia. 14:00 aldera, herri bazkaria egongo da han. Guztira, 110 lagun inguru elkartuko dira aurten. Bazkaldu ostean, berriz, aparraren festarekin ederto pasatzeko aukera izango dute umeek. Horren harira, antolatzaileek gomendatu dute bainujantzia eta txankletak eroatea. Ekimen hori 16:00etan hasiko dela aurreikusi dute.

Luis Ezeizaren jaialdia ez da horrekin amaituko. Ordubete geroago, 17:00etan, dantzaldia egongo da. Bakoitzak dantza egiterakoan duen trebetasuna erakutsiko du orduan.



Umeek ederto pasatu zuten iazko jaialdian. LUIS EZEIZA HERRI ESKOLA

**AZPIEGITURAK** > ABIADURA HANDIKO TRENA

# AHTren Antzuola-Bergara trazatua aurkeztu dute herrian

## Udalak alegazioak aurkeztuko ditu, herritarren ongizatean eta ingurumenean kalteak egiten dituela argudiatuta




Planoak udaletxean egon dira ikusgai asteon; irudian, ikuspegi orokorra. GOIENKARIA

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Joan den astean egin zuen Udalak Abiadura Handiko Trenaren Antzuola eta Bergara arteko zatiko trazatuaren eta proiektuaren aurkezpena herritarren aurrean. "Antzuola osoa ere ez du hartzen; esaterako, San Blas, Basalde ingurua ez du hartzen. Hartuko lituzke Goizper eremua, Altamira baserri ingurua, Errekalde auzoa eta Olaker ingurua gutxi gorabehera Egurrabei baserriraino", azaldu digu Pedro Iturbe alkateak.

Aurkezpenean 70 lagun inguru izan ziren, eta azalpenak emateaz gain, proiektuari alegazioak ipintzeko aukeraren berri eman zieten. "Egitasmo hau gelditzeko bidean denak lanean jartzea da gure asmoa", dio alkateak.

Alegazioetarako epea gaur amaitu da eta asteon udaletxean egon da proiektua ikusgai.

**UDALAK, ALEGAZIOAK**

Udaletik hainbat alegazio egingo dituzte proiektu horrek aurrera egin ez dezan. Alkatearen esanetan: "Alegazioak egiteko orduan argudiatuko ditugu herritarren ongizatearekin zerikusia duten gaiak: zarata, esaterako; ingurumenarekiko kalteak; enpresei sor diezazkiekeen kalteak: bibrazioak, adibidez; baserri bideak eta ur emariak..."

Gai juridikoak ere hartuko dira kontuan: "Ingurumen inpaktuari buruzko azterketa egin zenetik urte mordoa pasa denez, berriz egin beharko litzateke. Olaker inguruan industriagunea egiteko asmoan proiektuak duen eragina ere alegatuko dugu", dio alkateak.

Proiektuak Antzuola osotasunean aztertzeko modurik ematen ez duenez, alegazioak egiteko mugak daudela ere salatu dute.



IRATI AGIRREAZALDEGI

# Kanasta berriak ipini dituzte kanpo beltzean

Eguzki auzoaren eta Beheko auzoaren artean dagoen kanpo beltzean saskibaloirako kanasta berriak ipini dituzte, lehengoak egoera eskasean zeudelako. 3.600 euroko kostua izan dute kanasta berriek. Bestalde, kanpo beltzean, lehen parkea zegoen tokian skate park bat egiteko asmoa ere izan dute Udalean esku artean, baina oraingoz bertan behera utzi dute, dirurik ez dagoelako.

**JAIAK** > CORPUSAK

# Ondarren gertu dute jai egitaraua asteburuKO

## Zapatu arratsaldean umeendako ekintzak izango dira nagusi; domekan prozesioa

**I.A.** > ANTZUOLA

Aste bukaeran Ondarreko Corpus jaiak izango dira eta auzokoek hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Zapatuan, ekainaren 13an, umeendako bizikleta jinkana izango da, 12:00etan.

Arratsaldean, 16:30ean, jolasak edo igerilekuak egongo dira, eguraldiaren arabera. 18:00etan krosa izango da eta ondoren, merienda jan bitartean, Kontu Kantoi ipuin kontalariek marrazkiz lagundutako kontaketa saioa eskainiko dute. Indarrak hartu ostean, buruhandien aurrean egin beharko dute lasterka, 19:15ean.

**AFARIA ETA DANTZALDIA**

Gauean, umeak ez ezik auzoko helduak ere afaritarako elkartuko dira, 21:00etan; eta 22:00etan erromeria izango da Maixa, Ines eta Maiterekin. Gainera, Ondarrekoek kafea banatuko diete jaira gerturatzen direnei eta eta urdaiazpiko baten zozketa egingo dute.

Domekan, 09:30ean txistularien dianarekin esnatu ondoren, 10:00etan meza izango da eta 11:00etan prozesioa. Dantzariek saioa eskainiko dute gero. Jaiak amaitzeko, berriz, salda eta txorizoa banatuko dute, 11:30ean.

Ondarreko bizilagunek herritarrak gonbidatu nahi dituzte jaiak eurekin gozatzera.



Kontu Kantoiren ipuin kontaketa izango da, marrazkiz lagunduta. GOIENKARIA

## oharrak

HEZKUNTZA

**> Matrikulazio epea zabalik Haurreskolan**

Ekaineko lehengo hamabostaldian jaio diren umeek ekainaren 15era arteko epea dute izena emateko; bigarren hamabostaldian jaiotakoek hilaren 15etik 30era. Denak urrian hasiko dira.

ERRETIRATUAK

**> Irteera eta batzarra**

Erretiratuek ekainaren 17rako irteera antolatu dute Bilbora. Bestalde, ekainaren 20an batzar berezia izango dute 18:00etan. Idazkari aldaketaz eta tabernako funtzionamenduaz jardungo dute.

BATZARRA

**> Gaztelugain elkartea**

Zapatuan, ekainaren 13an, Gaztelugain elkarteko bazkideek batzar orokorra izango dute elkartean; 16:00etan da lehen deialdia eta 16:30ean bigarrena.

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak



Asteon eserleku berriak ipini dituzte Asentzion. LARRAITZ ZEBERIO

**AISIA** > ASENTZIO GUNEA

# Asentzioko egokitze lanak udazkenera bitartean egingo ditu Mendilankor enpresak

Autoendako 50 aparkaleku, komun publikoak, mahaiak eta barbakoa berriak ipiniko dituzte, besteak beste

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Lanak ekaineko osoko bilkuran esleituko ditu Udalak, baina asteleheneko Hirigintza batzordean Mendilankor enpresak aurkeztutako aurrekontua onartzea erabaki zuten. Lanon helburua da Asentzioko sarreran egokitzapen lanak egitea eta putzuko naturgunearen kontserbazioa ziurtatuko duten neurriak hartzea. Eusko Jaurlaritzaren Ihobe erakundeak ordainduko ditu lanok: 185.543 euro. Udalak BEZ zerga ordainduko du, 29.686 eurokoa.

**AISIALDIRAKO GUNEA**

Asteon eserleku berriak ipini dituzte Asentzion. Datozen hilabeteotan autoendako eta autokarabanendako 50 aparkaleku, komun publikoak, aisialdirako mahaiak eta barbakoa metalikoak jarriko dituzte. Aparkalekuak Angiozarrerako bidegurutzean egingo dituzte, eta ibilgailuak putzuraino sar ez daitezen piboteak ipiniko dituzte bertan. Behar izanez gero, lurjabeek udaletxean giltza eskatzeko aukera izango dute. Bidezidorra ere egingo dute errepide albotik. "Aisialdiguneko zerbitzuak hobetu gura ditugu", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak. "Ez dugu ahaztu behar Asentzio gerraren gaineko ibilbidearen sartzen dela".

**KIROLA** > ASTE BUKAERA

# Motor jaia eta Kirol Zerbitzuetako saio irekiak asteburuko agendan

Motor jaiaren II. edizioak domekara arte iraungo du eta bihar spinninga, aerobitona, pilatesa eta gimnasia doan egiteko aukera izango da

**L.Z.** > ELGETA

Gaur iluntzean hasiko dira motorrak Elgetara iristen. Domekara arte izango ditugu herrian; izan ere, Elgetako II. motor jaia ospatuko da gurean.

Motorzaleendako ez ezik herritar guztiendako hainbat proposamen egiten dituzte. Espaloia Kafe Antzokian motor klasikoen erakusketa izango da ikusgai, eta plazan salmenta postuak ipiniko dituzte. Film proiekzioak eta rock kontzertuak ere antolatu dituzte gaztetxean. Guztiak doan izango dira, eta herritar guztiei zabaldutakoak. Abilezia jokoak ere egingo dituzte. Salbador kalean izango da hori, zapatuan, 19:15ean. Kontzertua ere bihar izango da, gaztetxean: Los Balas, Alligaitors eta Disorders taldeak izango dira.

**KIROL ZERBITZUEN SAIO IREKIAK**

Bihar arratsaldean, berriz, Udaleko Kirol Zerbitzuek antolatuta, saio irekiak egingo dira herrian. Spinning, aerobiton, mantentze gimnasia eta pilates saioak izango dira; denak doan eta herritar guztiei zabalduak. "Datorren ikasturteko kirol zerbitzuetan eskainiko ditugun jarduerak zeintzuk izan daitezkeen erakutsi nahi diegu herritarrei", adierazi du Rebeka Uberak, Kirol zinegotziak. "Elgetarrak saio irekiotara etorri eta proba egitera animatzen ditut".

Ordu beteko lau saio izango dira, eta guztiak doan. 16:30ean hasita spinning saioa eta aerobitoia egingo dituzte Herriko Plazan. Maala parkean mantentze gimnasia saioarekin hasiko dira 17:30ean, eta pilates saioak hartuko du lekukoa 18:30ean. Eguraldi txarrarekin, kiroldegira eta eskolako psikomotrizitate gelara eramango dituzte ekintzok.

> KOADRILEN EGUNA

### Datorren zapatuko Koadrilen Eguneko gisatu lehiaketan parte hartzeko dei egin du Udalak

Herriko Plazan egingo da eta norberak eraman beharko ditu sua, sukaldeko tresnak eta osagaiak. Gisatu lehiaketa 10:30ean hasiko da eta goxoena prestatzen duen koadrilak 100 euroko saria eramango du. Beste bi sari ere egongo dira, 60 eta 30 eurokoak.

Egun osoko jaia izango da. Haurrendako puzgarriak ipiniko dituzte 11:00etan Salbador kalean. Bazkaria 14:30ean izango da. Udalak mahaiak eta aulkiak ipiniko ditu eta jatekoa nork berea eraman beharko du. Gisatu lehiaketaren sari banaketa 16:30ean egingo dute eta ondoren, 17:30ean, erromeria egongo da plazan Erdizka Lauetan taldearekin. Astean, korro-dantzen ikastaroa emango du Patxi Monterok Espaloian.

> ERAKUSKETA

### Sonia Mirandaren margolanak ikusgai Espaloia antzokian

Hogeitik gora margolan zintzilikatu ditu Elgetara bizi izatera etorri berria den Sonia Mirandak kafe antzokian.

Akrilikoak dira eta salgai ere ipini ditu. "Pozik nago, lehenengo egunotan lau bat margolan saldu direlako dagoeneko".

Erakusketa hil amaierara arte egongo da ikusgai kafe antzokian.



Sonia Miranda. L.Z.

> FRONTENIS

### Elgetako I. frontenis txapelketarekin pozik daude Udala, antolatzaileak eta parte-hartzaileak

Publiko ugari batu zen zapatuan frontenis txapelketako finalak ikusteko. Lau norgehiagoka jokatu ziren eta amaitutakoan, txapelketak datorren urtean jarraipena izango duela adierazi zuten Asier Osoro antolatzaileak eta Oxel Erostarbe alkateak. "Lehenago hasi beharko dugu", esan zuen Osorok. "Bikote gehiago hurbildu zaizkit parte hartuko luketela adieraziz". 17 bikote aritu dira aurten eta txapelak Idoia Sernak, Nagore Ojangurenek, Eñaut Arantzetak eta Haritz Gallastegik eraman dituzte. Antolatzaileek aipamen berezia izan zuten Lete Toldoak babeslearendako.



Finalak eta finalerdiak jokatu dituzten bikoteak. L.Z.

**oharrak**

PODOLOGOA

**> Hilaren 18an, eguena, etorriko da podologoa Elgetara**

Podologoaren ekaineko kontsulta hilaren 18an izango da. Kontsultara joateko interesa duten erretiratuek txanda hartu behar dute, podologoak ez ditu-eta 22 bezero baino gehiago hartuko. Txanda hartzeko Nati Arrietari deitu behar zaio ondorengo telefono zenbakira: 943-76 80 77.

DANTZA

**> Gau latindarra bihar, zapatua, Bolatoki tabernan**

Txa-txa-txa, sanba, runba, boleroa... Motor jaia dela aprobetxatuz, proposamen berezia egin dute aste bukaera honetarako Bolatoki tabernakoek. Gorputza doinu latindarren erritmora astintzeko gogoz daude, eta DJ bat ariko da musika ipintzen gauerditik aurrera. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

**JAIAK** > SAN MARTINAK

# Udalak gertu dauka dagoeneko San Martin jaietako egitaraua

Uztailaren 3tik 6ra bitartean jai giroa izango da nagusi; astelehenean herri afaria izango da San Martin jaiei bukaera emateko




Mikel Ruiz de Azuak irabazi du kartel lehiaketa.

**EDU MENDIBIL** > ARAMAIO

Dagoeneko Aramaio Udalak zehaztu du San Martin jaietako egitaraua. Ohi bezala, jaiak txupinazoarekin hasiko dira uztailaren 3an eta hilaren 6ra arte hamaika ekitaldi izango dira. Besteak beste, bertso triki poteoa izango da uztailaren 3an eta zapaturako, uztailaren 4rako, tortilla lehiaketa, plater tiroketa txapelketa edo Txirritolinpiadak iragarri dituzte. Domekan, berriz, herriko dantzarien emanaldia, herri kirolak eta bertso bakarrizketak izango dira herriko plazan.

Astelehenean, uztailaren 6an, bukatuko dira jaiak eta goizean umeendako jolasak izango dira, Txan magoaren saioa eguerdian eta arratsaldean koadrilen arteko jokoak. Herri afariaren ondoren disko jartzaileak izango dira txosnetan, giroa alaitzeko.

Mikel Ruiz de Azuak irabazi du jaietako kartel lehiaketa, 16 urtetik gorakoen artean. 150 euro jaso ditu. Gaztetxoetan, Nerea Uribarren, Miren Aretxaga, Nerea Ibabe, Ane Fernandez eta Ainhoa Kortabarria saritu dituzte.

**BURUHAUNDI TAILERRA BIHAR**

Bihar, zapatua, buruhandi tailerra egingo da, 10:30ean hasita. Bestalde, jaietan buruhandi moduan kalera irten nahi dutenendako dei egin du Udalak. Izena emateko kultura etxera jo dezakete interesatuek, ekainaren 26a baino lehen.

**ADINEKOAK** > TOPAKETA

# Adineko pertsonen XII. topaketa uztailaren 10ean

Gasteizera egun osoko irteera egingo dute; izena emateko epea, uztailaren 2ra arte zabalik

**E.M.** > ARAMAIO

Zuiako Koadrilak antolatuta, adinekoen XII. topaketa izango da uztailaren 10ean. Gasteiz ezagutzea izango da helburua. Izena emateko epea uztailaren 2ra arte dago zabalik. 26 euro sartu behar dituzte topaketara joan nahi dutenek Vital Kutxako kontu korrontean eta ondoren agiria udaletxeko bulegoetara eraman. Egun osoko irteera izango da eta bazkaria Olarizu jatetxean egingo dute. Plazak mugatuak dira.



Gasteizeko irudia. GOIENKARIA

> IRRATIA

## Hala Bediren aurkezpena datorren egubakoitzean

Arabako Hala Bedi irratia dagoeneko entzun daiteke Aramaion, FMko 107.4an. Aramaioko berriak *Suelta La Olla* eta *Zebra Bidea* magazineetan entzuteko aukera izango da.

Hala Bediren aurkezpena egingo dute egubakoitzean, hilaren 19an: 19:00etan bertso poteoa izango da plazan eta jarraian, 21:30ean, luncha Zubiondo elkartean. Aurkezpenaren ondoren bazkide kanpaina abiaraziko dute, emisio gastuak ordaindu ahal izateko.

> UDALA

## Musika ikasketetarako eta eskola garraiorako dirulaguntzak

Musika ikasketetarako eta eskola garraiorako dirulaguntzak emango ditu Aramaioko Udalak. Ikasketen kasuan, Aramaion erroldatuta egotea, Arrasate Musikalen matrikulatuta egotea eta langabea izatea eskatzen da. Eskola garraioaren kasuan, DBH (Arrasateko institutukoak izan ezik), HSAOG, erdi eta goi mailako heziketa zikloak eta Unibertsitate mailako ikasketak dituztenendako dira. Eskaerak hilaren 26rako jaso behar dira.

**AUZOAK** > AIXOLA

# Santikurtz ermita auzolanean konpontzeko deialdia egin dute

Teilatua zein barne eta kanpoko hormak konponduko dituzte; datorren asterako (ekainak 20 eta 21) eta hurrengorako egin dute hitzordua



Ohiturari jarraituz, Santikurtz ermitan meza eta erromeria izan ziren ekaineko lehenbiziko domekan. GOIENKARIA

**E.M.** > ARAMAIO

Aixola auzoko Santikurtz ermita auzolanean konpontzeko deialdia egin dute. Teilatua osorik konpontzeko eta barne eta kanpoko hormak apaintzeko behar handia du ermitak. Betiere partehartzearen arabera, auzo lanak hiru aste bukaeratan egin ahal izango direla uste da eta datorren asterako (ekainak 20 eta 21) eta hurrengorako (ekainak 27 eta 28) egin dute hitzordua. Interesatuek euren auzo alkateari eman diezaiokete izena.

Lanak egiteko traktoreak ere behar izango dira, materiala traktoreekin pagadiraino eramateko eta bertatik eskuz ermitaraino eramateko. Joan den urtean egin zituzten Santikurtz ermita auzolanean konpontzeko saiaketa batzuk, baina bertan behera laga behar izan zituzten eguraldi txarragatik. Ermitako erretaula konpondu dute eta orain bestelako lanak egitea aurreikusi dute, ekaineko giro ona aprobetxatuz.

**ERROMERIA IZAN ZEN DOMEKAN**

Santikurtz ermita oso estimatua da Aramaion, eta, hain zuzen ere, aurreko domekan ospatu zen erromeria bertan, mezaren ostean. Maiatzaren 3an da Santikurtz eguna, baina ekaineko lehenbiziko domekan ospatzeko ohitura dago Aixola auzoan. Ehun bat lagun batu ziren domekan.

AISIALDIA > IRTEERA

# Landetara asteburu-pasa, Gurelek antolatuta

Ia 30 lagunek eman dute izena eta, bateren bat zalantzan egon arren, gehienak joango dira

Ez dute aurrez planik egin; gurasoak eta seme-alabak elkarrekin lasai egotea da helburua

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Landetara (Frantzia) doaz gaur, egubakoitza, hainbat gatzagar aste bukaera pasatzera. Gurel guraso elkarteak antolatu du irteera eta ia 30 lagun joango dira familia giroan.

**IGERILEKUAN EDO HONDARTZAN**

Gaur arratsaldean irtengo dira Gatzagatik, nor bere automobilean, eta afalordurako izango dira Akitaniako Messanges herrian. Bertan dagoen Le Vieux Port kanpinean pasatuko dituzte egunok, bungalowetan lo eginda. Familia giroko irteera da eta, hain zuzen, helburu bakarra horixe dute, gurasoak eta seme-alabak elkarrekin lasai egotea bi egunetan. Hori azaldu digute Gureleko ordezkariek: "Ez dugu inolako planik egin aurrez. Eguraldia lagun izango dugula entzun dugu eta hori aprobetxatuta ur inguruan ibiliko gara, igerilekuan edo hondartzan. Izan ere, ekainaren erdian gaude eta umeak uretarako gogoz daude; hortaz, planik arrakastatsuena, zalantza barik, horixe izango da". Hain zuzen horregatik aukeratu zuten hondartza alboan eta mendititik gertu dagoen kanpina Gureleko kideek, paisaiarekin gozatu eta hainbat ekintza egiteko aukera eskaintzen duelako.

Ur inguruan edo mendi inguruan, baina atseden hartuta itzuli gurako lukete gurasoek. Bada, domeka arratsaldean izango da hori.



Gureleko kideek Urkiolara egindako irteeran, umeak harriaren inguruan jolasean. GUREL

**UDALEKUAK UZTAILAREN 6TIK 17RA**

Urtero antolatzen du irteeraren bat edo beste Gurelek. Sarritan ikasturte bukaeran egin dituzte, baina eskiatzera ere joan izan dira negu partean. Azken urteotan egun pasakoak izan dira, eta uztaileko udalekuen barruan ere urtero egin izan dute irteera, gehienetan Araba aldera zaldian ibiltzeko. Oraingoan, baina, aste bukaera pasatzera joatea erabaki dute sasoi baten legez.

Hain zuzen, uztaileko udalekuak gertatzen dabil Gurel azken asteotan. Uztailaren 6tik 17ra bitartean egingo dituzte, hortaz, interesatuek lehenbailehen eman dezatela izena gura dute antolaketa lanak samurtzeko. Begirale lanak egingo dituzten gazteak, aurten, herrikoak izango dira. Bi astetan zer egin zehazten duen egitaraua aurkeztu diete Gureleko zuzendaritza batzordeko kideei eta aurreko urteetan egindakoen antzekoak egingo dituzte: jaialdiak, irteerak, eskulanak, jolasak… 2 urtetik gorakoek eman dezakete izena.

GIZARTE ZERBITZUAK > LAGUNTZAK

# Teleasistentzia eta etxerik etxeko zerbitzua arautzen dituzten erregelamenduak, onartuta

Zerbitzu horietakoren bat eskatzeko udaletxean dagoen Gizarte Zerbitzuetara jo behar dute herritarrek

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Bideberri mankomunitateak behin betiko onartu ditu teleasistentzia eta etxerik etxeko zerbitzua arautzeko erregelamenduak. Foru Aldundiaren eta Bideberri mankomunitatea osatzen duten Antzuola, Elgeta eta Leintz Gatzagako udalen artean zerbitzuaren kudeaketa hitzartu dute.

**TELEASISTENTZIA**

Teleasistentzia zerbitzuaren helburua da arriskuren bat izan dezaketen edo mendekotasun edo urritasunen bat duten herritarrek euren etxean bizi izaten jarraitzea autonomia eta segurtasuna indartuz. Erabiltzaileak telefono linearen bidez eta komunikazioen eta informatika ekipamendu berezi bat erabiliz arreta zentro batekin harremanetan jartzen ditu. Onartutako erregelamenduan erabiltzaileen betebeharrak zehaztu dituzte, baita tarifak ere. Horren guztiaren berri dakar hilaren 10ean argitaratutako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak.

DATUA

**2**

**HERRITAR**

Etxerik etxeko laguntza zerbitzua bi herritarrek daukate Gatzagan. Mendekotasunaren balorazioak zehazten du zenbat orduko zerbitzua dagokion eta balorazio ekonomikoak zenbat ordaindu.

**BI ERATAKO ZERBITZUA**

Etxerik etxeko zerbitzuari dagokionez, bi eratako zerbitzua emateko da: laguntza pertsonala –garbiketa pertsonala, jantzten eta jaten laguntzea…– eta etxerako laguntza –arropa garbiketa, bazkariak gertatzea… Eulen enpresa hartu du oraintsu Bideberri mankomunitateak zerbitzua emateko eta Gatzagan bi lagunek daukate.

Bi zerbitzu horietakoren bat eskatzeko udaletxean dagoen Gizarte Zerbitzuen bulegora jo behar dute herritarrek, martitzen goizetan. Gizarte laguntzaileak jakinaraziko die zenbat orduko zerbitzua dagokien –balorazioa egin behar da– eta zenbat ordaindu beharko duten –egoera ekonomikoaren arabera.

> ERRETIRATUAK

## Errioxa aldera joango dira erretiratuak uztailaren 3an

Gatzagako Toki Eder erretiratuen elkarteak Errioxa aldera antolatu du irteera. Uztailaren 3an izango da, egubakoitza, eta izenemate epea zabalik daukate. Elkarteko zuzendaritzako kide Pedro Mari Elkorobarrutiari edo Tere Aranburuzabalari jakinarazi behar diote interesatuek ekainaren 22rako.

Egun-pasa egingo dute Errioxan. San Millan de la Cogolla herri entzutetsua bisitatuko dute, eta bertan dagoen Yuso monasterioa ikusteko asmoa daukate erretiratuek. Bazkaltzera, ostera, Castañares herriko Casa Palomo jatetxera joango dira.

Udaberrian eta udazkenean egiten dituzte irteerak erretiratuek eta azkenetan 25 bat lagun joan izan dira. Oraingoan, baina, gutxiago izango direla uste dute antolatzaileek. Irteera polita delakoan daude eta animatzeko dei egin diete.

> INTERNET

## Begiralea izango da KZgunean gaur eta hilaren 26an

Gaur, hilak 12, eta hilaren 26an izango da herriko KZgunean Haizea Odria begiralea. Goizez etorriko da ekainean (09:00-13:00), eta, gai baten inguruko ikastarorik ez antolatu arren, herritarren zalantzak argitu eta Interneten gaineko oinarrizko azalpenak emateko gertu egongo da.

Gatzagan ikastarorik ez egin arren –oso jende gutxi egoten delako– inguruko herrietan hainbat izaten dira –oinarrizkoak zein gai zehatz baten gainekoak– eta interesa duten gatzagarrek bertara jo dezakete. IT txartela eskuratzeko azterketak ere egiten dituzte eta ONA txartelaren gaineko argibideak eman ere bai. Eskoriatzako eta Aretxabaletako KZguneetan, gainera, Haizea Odria bera aurkituko dute. Azterketak egin edo ikastaroren baten izena emateko aurrez deitu behar dute interesatuek KZgune horietara.




Reyes Azkoitia entrenatzailea Bergarako finalistekin Udal Pilotalekuan: Eneko eta Ander Mugurutza, Gallastegi, Beñat Rezusta, Aritz Rezusta eta Irizar. IRATI AGIRREAZALDEGI

## Sarrerak Bergarako frontoiko leihatilan

Finalerako sarrerak frontoiko leihatilan jaso daitezke egubakoitzean 18:00etatik 20:00etara eta zapatuan 12:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 19:00etara. Kantxakoek 12 euro balio dute; lehen solairukoek eta errebotekoek 6 euro; bazkariak 28 euro; eta autobusak 5 euro.

Donostiarako autobusak ere antolatu dituzte. Autobusean joan nahi dutenek 636 371 591 telefonoan sarrerak enkargatzerakoan jakinarazi behar dute. Baita zuzendaritzakoekin eta herriko pilotariekin Añota sagardotegian bazkaldu nahi dutenek ere. Izena eman ez dutenek sarrerak jasotzerakoan galdetu behar dute oraindik tokirik ba ote dagoen.

Pilotarien, senideen eta zuzendaritzakoen autobusa 08:15ean irtengo da geltokitik eta ikusleena 09:00etan. Partiduak amaitutakoan Bergarara bueltatuko dira batzuk eta sagardotegian bazkalduta iluntzean besteak.

**PILOTA** > HERRI ARTEKO TXAPELKETA

# Bergarako pilotariak, Hernanikoei finala irabazteko esperantzaz

Donostiako Atano III.a pilotalekuan jokatuko dute finala domekan, 10:30ean hasita

Kadeteek irabazteko aukera dute; gazteek zail daukate eta nagusien esku egon daiteke txapela

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Joan den aste bukaeran donostiarrei irabazi ostean, Herri Arteko Txapelketako finala jokatuko dute domekan bergararrek. 10:30ean hasiko dira partiduak Atano III.a pilotalekuan eta hernaniarrak izango dituzte aurkari.

Kadete mailan Mikel Gallastegik eta Beñat Rezustak jardungo dute. Finalerdiko azken partidua irabazi eta finalean ere irabaztera aterako direla esan digute: "Orain arte izan ditugu partidu zailak eta aurrera egin dugu; hortaz, irabazteko esperantzaz joango gara finalera".

Reyes Azkoitia entrenatzaileak ere badu esperantzarik eurengan: "Kadeteetan gu gehiago izango garela uste dut, baina han jokatu behar da". Aurrelariak defentsan izugarrizko lana egiten duela eta atzelariak gehiago atakatzen duela dio Azkoitiak.

**GAZTE MAILAKOEK, PARTIDU ZAILA**

Gazte mailako Aritz Rezustak eta Gorka Irizarrek partidu gogorra aurreikusi dute. "Ahalik eta lasaien irtengo gara kantxara, eta ea zorteak laguntzen digun. Aurkariak sake bizia du eta ez da komeni pilotak biziegiak izatea, baina motelak ere ez". Ezagutzen dute euren aurkako aurrelaria eta gogorra dela diote. Reyes Azkoitiak ere uste du hernaniarrek gazte mailan izan dezaketela abantailarik. Hala ere, haren esanetan: "Gure aurrelariak toke berezia du, batik bat ezkerrean; atzelaria mutil handia da eta, pixka bat motelagoa izan arren, esku biekin ondo jarduten du".

Nagusien mailan Eneko eta Ander Mugurutzak jokatuko dute eta prestatzeko ezer berezirik ez egin arren, nahikoa entrenatuta eta irabazteko gogoz joango direla diote.

"Kadeteek irabazteko moduko partidua dute, gazteek zaila daukate; hortaz, gure partiduan erabaki liteke dena. Hernanikoak finalera iritsi dira; hortaz, argi dago aurkari gogorrak direla, baina gure mailan jokatzen badugu lana emango diegu", esan digute mugurutzatarrek.

Entrenatzaileak partidua irabazteko moduan ikusten ditu: "Aurrelariak zezen baten pareko indarra du; atzelaria, aurrelari izandakoa, teknika handikoa da; pilota asko eraman eta jotzen ditu eta kantxa guztia betetzen du".

**HERRITARREN ANIMU ESKE**

Reyes Azkoiak ez du gogoan Bergara azken aldiz finalera iritsi zenekoa, baina azken 20 urteotan herri arteko final guztiak ikusi ditu. "Beti amestu izan dut zein polita izango litzatekeen norbere herrikoekin han egotea, eta azkenean ametsa bete egingo da. Egun horretan urduri egon gaitezke, baina mutilak ahalik eta gutxien egotea da nire nahia, eta esperantza daukat eurengan".

Jokalariak gogoz, baina herritarren animuak ere eskertuko dituzte: "Bergararrei esan nahi genieke domekan zarata ateratzeko, animatzeko eta ea euren laguntzarekin txapela lortzen dugun".

ULMA
Grupo ULMA, Koop. E.
Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA

DEIA

**Eguna:** 2009ko ekainaren 19a.
**Ordua:** 10:30ean lehen deialdia eta11:00etan bigarrena.
**Tokia:** Santa Ana antzokia - Oñati.

GAI ZERRENDA

1. Aurreko akta onartzeari buruzko txostena eta Batzar honetako akta onartzeko bi bazkide izendatzea.
2. 2008ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea.
3. 2008ko ekitaldiko urteko kontuak onartzea.
4. Emaitzak banatzeko proposamena.
5. ULMA Talde mailan aplikazio orokorreko eta araudi izaerako gaiei buruz kooperatiba bazkideen Ohiko Batzar Nagusiek hartutako erabakiak berrestea.
6. Kontseilu Errektoreko kideak berritzea.
7. Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
8. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea.
9. Galderak eta eskaerak.

Kontseilu Errektoreko lehendakaria
*Oñati, 2009ko ekaina*

OHARRA: Bazkide guztiei gogorarazten zaie kanpo auditoriak aztertutako urteko kontuak, emaitzak banatzeko proposamena eta gestio txostena egoitza sozialean eskura dituztela Batzar Nagusira bitartean aztertu ahal izateko.

UNED-Bergara
*Urrutiko unibertsitatea baina etengabeko harremana*



HITZALDI INFORMATIBOA
**Ekainak 17, Asteazkena. 19etan**
Kutxaren Areto Nagusia
Andia kalea / Donostia.
■ **Publiko orori irekia**

- 30 Unibertsitate ikasketa baino gehiago
- Jarraipen pertsonalizatua eta eskaintza egokitua
- Europar eremura egokitutako titulazio berriak
- Doktoretza ikastaroak, graduondokoak, masterrak...

UNED BERGARA

UNED-Bergara ■ San Martin Pl 4, 20570 Bergara ■ Tel 943 769 033 ■ info@bergara.uned.es ■ www.uned.es/ca-bergara

**FUTBOLA** > IGOERA FASEA

# Mondrako neskek bi goleko errenta behar dute domekan

Nazional mailara salto egiteko igoera fasean dabiltza Mondrako neskak; domekan bi goleko errenta behar dute Abantoren kontra



Arrasateko aurrelari Maitane Roa, Soraluzeren kontra jokatutako partiduan, Ipintzan. IMANOL SORIANO

**X.U.** > ARRASATE

Domekako partidua erabakigarria izango da Mondrak nazional mailara igotzea lor dezan. *Txiskoren* neskek sekulako denboraldia egin dute –Gipuzkoako txapeldunak dira–, baina urtea *errematatzea* falta da. Orain arte jokatutako igoera fasean ere ondo moldatu dira, jokatutako hiru partiduetatik bi irabazi dituzte-eta. Baina Abantoren zelaian 2-0 galdu zuten, eta gora egiteko *gol average* hori gainditu egin beharko dute domekan (12:00, Mojategi).

Helburua ez da erraza, baina Mondrako neskak konbentzituta daude gauza direla Abantori bi goleko aldeagatik irabazteko: "Gipuzkoako txapelketa ere hala irabazi genuen. Bazirudien Soraluzeri irabaztea ezinezkoa zela, eta lortu egin genuen", adierazi du aste barruan Araitz Etxabe kapitainak. "Abanton 2-0 galdu genuen, baina zelaia oso txarto zegoen eta ezinezkoa zen futbolean jokatzea. Eurak indartsuak dira atzean eta aurrelari azkarrak dituzte. Baina, etxean dakigun moduan jokatzen badugu, badugu aukerarik".

### "Zaleen babesa ezinbestekoa izango da"

Mondra taldeko neskek familiako eta koadrilako lagun mordoa eramango dituzte domekan Mojategira; baina hori ez da nahikoa, Arrasateko futbol zale guztien laguntza beharko dute-eta: "Bizkaitarrak jende askorekin etorriko dira, partidua berdindu edo irabazten badute kategoriaz igoko direlako". Horrenbestez, Mojategiko harmailetan etxeko zaleen babesa ezinbestekoa izango da.

> ZIKLISMOA

### Markel Irizar eta Iban Velasco Suitzako Itzulian lehiatuko dira

Irizarrek maila polita erakutsi du Luxenburgoko Tourrean eta Velasco Errioxako Itzulian izandako erorikotik errekuperatzen dabil. Euskaltelek zortzi ziklista izango ditu bihar irteera puntuan.

> ATLETISMOA

### Mari Sol Ramos bosgarrena izan da Europako txapelketan

Oñatiko lasterkaria Danimarkan izan da Europako maratoi erdian esku hartzen eta bosgarren sailkatu da (1:31). Berriki izan duen lesioak galarazi egin zion Oñatikoari podiumera igotzea.

> ESKUBALOIA

### Infantil mailako selekzioek Oñatin jokatuko dute bihar

Corpusetako hirugarren eskubaloi txapelketa egingo dute bihar. Hala, infantil mailako Gipuzkoako, Arabako, Bizkaiko eta Nafarroako selekzioak izango dira lehian goiz eta arratsalde Zubikoan.

Eskerrik asko!

Ekainaren 7a egun borobila izateko lagundu duzuen guztioi:





Antolaketan,
lanean,
babesten,
animoak ematen

eta nola ez,
JAIAZ GOZATZEN!







obatu

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Ekaineko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Kuota: 40 euro

MUNDUMIRA PACK-A
Mundumira
Mundumirako pack-a.
BIDALI AG MUNDUMIRA 5533 zkra.


UMEENTZAKO PUZZLEA
Ikastolen Elkartea
Argitxo eta bere lagunen puzlea.
Bidali AG PUZZLEA 5533 zkra.


KAMISETA
skunkfunk
Skunkfunk kamiseta bat.
BIDALI AG KAMISETA 5533 zkra.


PENDRIVE
Goiena
Goienako Pent-Drive bat.
BIDALI AG PENDRIVE 5533 zkra.


SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

BELAONTZI BATEAN IRTEERA HONDARRIBIATIK

J.L Abuinen eskutik
J.L ABUIN / PUY BIDEBURU
25 urtetan teknika naturalak zure eskura jartzen
Mendia jauregia 639 02 47 14
S. Josepe, 10 943 77 01 33
Kiroldegia 943 77 16 77

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

**ATLETISMOA** > OÑATIKO VII. NAZIOARTEKO HERRI LASTERKETA

# Txantxikuaren bila dator Chema Martinez

Madrilgo lasterkariak Europako txapelketa irabazi zuen joan den asteburuan Portugalen, eta ahalegin berezia egin du Oñatin egotearren

**XABIER URTZELAI** > OÑATI

Bihar arratsaldean punta-puntako hogei atleta izango dira Foru plazako irteera puntuan (19:00). Hori izango da aurtengo berritasunetako bat; alegia, lasterkari profesionalak bakarrik izango direla proban. Eta, tamalez, emakumezkorik ere ez da izango bihar, antolatzaileek zailtasun handiak izan dituzte-eta babesleak lortzeko orduan, eta erabaki hori hartu behar izan dute.

**MARTINEZ, AFRIKARREN KONTRA**

Hala, biharko probarako faboritoetako bat da Chema Martinez, afrikarra ez den bakarra. Lasterkari madrildarra txantxikua jasotzeko asmoz dator, 2007an egin zuen moduan (28:51). Madrilgo lasterkariak ahalegin berezia egin du Oñatira etortzearren, eta, egia esan, ez du aurkezpen handirik behar: Behobia-Donostia lasterketan urtetan ikusi dugu lehenengo helmugaratzen; Europako txapelduna da 10.000 metrotan; eta badaki munduko txapelketako eta Olinpiar Jokoetako finaletan egotea zer den.

Martinezek, baina, kontrario oso indartsuak izango ditu: batetik, iazko irabazle Peter Kirui (29:12), baina Kiruirekin batera faboritoen zerrendan daude Ronald Kipchumba, munduko txapelketako 3.000 metroko oztopo-lasterketan irabazle; David Kibel, iazko Donostiako maratoi erdiko irabazlea; Matthew Kipchirchir, Pragako maratoi erdiko irabazlea; Victor Bitok, Iruñeko maratoi erdiko irabazlea; Francis Kosgei, Malagan lehena; eta Nixon Kipyego, Berlinen azkarrena.

**GORPUTZALDI ONEAN**

Atleta horiei aurre egiteko moduan egongo da, baina, Chema Martinez. Izan ere, Madrilgo atleta gorputzaldi oso onean dator, joan den domekan Ribeira Bravan (Madeira, Portugal) egin zuten Europako Txapelketan nagusituta. Martinezek 27 minutu eta 57 segundo behar izan zituen 10.000 metroko lasterketa egiteko –Espainiako aurtengo marka onena–. Hori bai, zail izango du Zerzenay Tadessek 2006an Oñatin egin zuen 27:54ko marka hobetzea.


Chema Martinez 2007ko lasterketako podiumean, txantxikua eskuan. J.A.

> HERRI KIROLAK

### Goenatxo II.ari omenaldia egingo diote Elosuko jaietan

Domekan eta astelehenean ospatuko dituzte Elosuko Otaba jaiak, eta auzokideek omenaldi berezia prestatu diote Goenatxo II.ari. Berez azkoitiarra bada ere, Elosukoek auzokide moduan kontsideratu izan dute beti, eta lehenengo omenaldia etxean egin nahi izan diote.

Domeka eguerdian hasiko dute omenaldia, herri kirol jaialdiarekin. Harri-jasotzaile eta aizkolariak izango dira; besteak beste, Goikoetxea II.a, Aimar I.a, Jokin Eizmendi, Miren Urkiola, Olasagasti, Esnaola, Flores, Arrospide eta beste asko. Eta, omenaldiarekin jarraituta, 14:30ean bazkaria egingo dute.

> KARATEA

### Ibarreko kluben arteko kyokushinkai txapelketa egingo dute bihar

Bihar, zapatua, arratsaldean, Debagoieneko kluben arteko VI. kyokushinkai txapelketa egingo dute Musakolan, 16:00etan hasita. Txapelketa horretan Aretxabaletako UDAko karatekak, Bergarako Giartzuko karatekak eta Arrasateko Saioako karatekak lehiatuko dira, eta guztira 75 lagun inguru batuko dira.

Lehenengo kyokushinkai txapelketa Aretxabaletako klubekoek egin zuten, 2003an. Eta hurrengo urtean Saioako eta Giartzuko karatekak ere animatu ziren. Hala, antolatzaileek kirol hori hobeto ezagutzeko gonbita egiten diete debagoiendar guztiei.

> ZIKLISMOA

### Zapatuan egingo dute 73. San Antonio saria, Agirregabiria memoriala

Bihar arratsaldean (16:00) egingo dute Bergaran 73. San Antonio saria. Lasterketa hori Euskadiko Txapelketarako baliagarria da eta lehenengo eta bigarren mailako kadeteek hartuko dute esku.

San Antonion bertan egingo duten irteera neutralizatua izango da, eta ondoren ziklista gazteek 69 kilometro izango dituzte aurretik. Lasterkariek Osintxu, Elorregi (San Prudentzio) eta Zubillaga artean egingo dituzte kilometro horiek, eta Antzuolaraino ere joango dira itzulietako batean. Lehena 17:45 inguruan iritsiko da helmugara, San Antonion hori ere.



**> OÑATI**
Corpus jaiak aste bukaeran; prozesioa domekan > 38



**> MUSIKA**
Belceblues taldeak Getxoko Blues Jaialdian joko du, gaur > 38



**> JOSEBA IGLESIAS**
Dorletako Amako gazte mailako lehen taldean ibili zen, mendiko bizikletan; orain, espeleologian, musikan edo gaztetxean dihardu > 42

# Txapa Irratia: integrazioa bultzatuz 25. urteurrenean

'Kanpora begira' izeneko kultura arteko jaia iragarri dute biharko, zapaturako, etorkinekin integrazioa sustatzeko asmoz

Txapa Irratiak 25 urte beteko ditu azaroan, eta urteurreneko jaia gertatzen dabiltza

Arrosa sareari esker egunean 24 orduz emititzen du Bergarako irrati libreak gaur egun

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Bergarako Txapa Irratiak (FMko 97.25) 25. urteurrena ospatzen du aurten eta ospakizunen artean *Kanpora begira* izeneko kultura arteko jaia iragarri dute biharko, zapaturako. Hain zuzen ere, martitzenero 21:00etan emititzen duten izen bereko irratsaiotik sortu zen biharko jaia antolatzeko ideia. Maitena Aranaren hitzetan: "2007ko azaroan ekin genion irratsaioari, hona etorritako etorkinekin bizikidetza sustatzeko asmoz, eta jende asko igaro da ordutik gure irratsaiotik; herrialde askotakoak, gainera. Elkarrengandik ikasi, euren egoera ezagutzera eman eta irratsaioan gai sozialak aztertzea da helburua".

Beraz, migrazioaren gaia plazaratzea eta, bide batez, Txapa Irratiaren lanaren berri ematea da zapatuko jaiaren helburu bikoitza. Azaroan beteko ditu Txapa Irratiak 25 urte eta ordurako ere hainbat ospakizun gertatzen dabiltza. 25 urteotan irratiaren filosofia ez dela aldatu diosku Andoni Larrañagak: "Irratiaren funtzionamendua asanblada bidez izaten jarraitzen du eta dirulaguntzarik edo publizitate barik lanean jarraitzen dugu, behar dugun dirua antolatzen ditugun ekintzen bitartez jasota: zozketak, kontzertuak, *Txaparrada Musikala* CDaren moduko ekimenak, kamisetak eta horrelakoak".

Edozein modutan ere, teknologiari esker jauzi nabarmena egin du Txapa Irratiak. Gaur egun, Interneten entzuteko aukera dago *www.txapairratia.org* helbidean eta, horrez gain, Arrosa sarearen bitartez egunean 24 orduz emititzen du. Euskal Herri osoko 20tik gora irrati kate daude (Gasteizko Hala Bedi eta Bilboko Tas-Tas tartean) Arroxa sarean integratuta eta irratsaioak elkartrukatzen dituzte.

**IRRATIA, ZABALIK GUZTIENDAKO**

Bergarako txoko guztietara zein Elgetara eta Antzuolara kalitate onarekin heltzea da Txapako arduradunen hurrengo erronka. Horretarako, Goiko Estazioan antena berria jartzeko aukera aztertzen dihardute.

Programazioari dagokionez, Bergaran egindako eta Arrosa saretik jasotako irratsaioak tartekatzen dituzte. Hilean behin egiten dituzten batzarretan 20 bat lagunek hartzen dute parte, baina irratia nahi duenarendako zabalik dagoela azpimarratzen dute. Edozeinek dauka irratsaioren bat egiteko aukera, eta, batez ere, jende gaztea parte hartzera animatu nahi dute Txapako kideek.

*Kanpora begira* jaiari dagokionez, besteak beste, Anitza, Caritas, Bizikasi eta Harreman taldeen laguntza izango dute. Era berean, herrialde askotariko etorkinek hartuko dute parte zapaturako iragarritako ekitaldietan. Jendeari parte hartzeko dei egiten diote. Helburuak hasierakoa izaten jarraitzen du: mikrofonoaren, uhinen bitartez, zubiak eraikitzea, hain zuzen ere.



Txapa Irratiak egunean 24 orduz emititzen du Arrosa sareari eta Interneti esker. E.M.

## Zapatuko egitaraua

**11:00** Txalaparta.
**11:00** Munduko eta euskal dantzak.
**13:00** Ipuin kontalariak.
**13:00** Beart elkartearen eskutik umeendako pintura tailerrak.
**14:30** Herri bazkaria. Txartelak 5 eurotan salgai daude Arrano, Pol-Pol, Zuhaizti, Irrintzi eta Kaixo tabernetan.
**17:30** Dantza boliviarrak.
**18:00** Kontzertua Kataia eta All Jazz Era taldeekin.
**18:30** Euskadi Senzala Capoerira taldearen erakustaldia.

Ekitaldi guztiak Munibe plazan izango dira (eguraldi txarra bada, gaztetxean). Txapa Irratiko kideek eskerrak eman nahi dizkiete Jardun elkartekoei kontzertuaren antolakuntzan emandako laguntzagatik.

**JAIAK** > CORPUSAK

# Oñatzeko dantzariek hasiko dituzte Oñatiko Corpus jaiak

Gaur herriko auzoetan eta ikastetxeetan egingo dituzte Corpus eguneko dantzak; domekan egingo dute prozesioa meza nagusiaren ondoren

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Dena gertu dute Oñatin Corpus eguneko aste bukaerari hasiera emateko. Goizean goiz hasi dira Oñatz dantza taldekoak herriko kaleak eta ikastetxeak girotzen.

Arratsaldetik aurrera ekitaldiak ugaritu egingo dira. Gaur, Dani Perezek bakarrizketak eskainiko ditu Santa Ana antzokian, 22:30ean.

Bihar kirola egiteko eta ikusteko eguna izango da. 12:00etan gaztetxoenek korrika egiteko aukera izango dute Kale Barrian eta Atzeko kalean zehaztutako zirkuituan. 19:00etan, VII. nazioarteko Oñatiko herri lasterketa egingo dute herriko kaleetan.

Umeendako antzezlana egingo du Txalo taldeak Santa Ana antzokian, 17:00etan, eta Oihan Vega *Gaztea* irratiko esatariak disko festa egingo du 20:00etatik 21:00etara eta 23:00etatik 01:00etara arte.

**PROZESIOA DOMEKAN**

Domeka izango da egun handia. Meza nagusiaren ondoren prozesioa hasiko dute. 15 pausoak, apostoluak, palioa, Jesus eta San Migel ibiliko dira kalerik kale Oñatz dantza taldeko dantzarien kriskitinen doinuarekin.

Hirugarren urtez jarraian Juan Antonio Agirianok irudikatuko du San Migel. Prozesioa plazan bukatuko da.



Domekako prozesioa plazan bukatuko dute. Oñatz taldekoek azken dantzak egingo dituzte. GOIENKARIA

## Corpus jaiak Oñatin

**EGUBAKOITZA, 12**

**Goizean zehar:** Oñatz dantza taldekoak herriko auzoetan ibiliko dira, aspaldiko ohiturari jarraituz.
**14:30etik 17:00etara:** Oñatz dantza taldekoen emanaldia herriko ikastetxeetan.
**19:00etan:** Txorimalo eta erraldoiak, Udal Txistulari Bandak lagunduta.
**22:30ean:** *Los ángeles no tienen hélices* bakarrizketak Dani Perezen eskutik. Santa Ana antzokian. Sarrerak, 10 euro.

**ZAPATUA, 13**

**09:00etan:** Foru plazan Oñatz dantza taldearen emanaldia. Egun osoan zehar dantzariek emanaldia egingo dute herriko kaleetan, Udal Txistulari Bandak lagunduta.
**12:00etan:** Gaztetxoendako lasterketak, Foru plazan.
**17:00etan:** Santa Ana antzokian *Kanpanila eta Peter Panen itzala* antzezlana Txalo taldearen eskutik. Sarrera doan. Gonbidapenak kultura etxean jaso daitezke.
**19:00etan:** VII. Oñatiko Nazioarteko Herri Lasterketa, Antxintxiketan taldeak antolatuta.
**19:30ean:** Udal Musika Bandaren kalejira.
**Kalejiraren ondoren eta 23:00etatik 01:00etara:** Oihan Vegarekin disko festa Foru plazan.

**DOMEKA, 14**

**09:00etan:** Udal Txistulari Bandaren goiz-eresia.
**10:00etan:** Udal Musika Bandaren goiz-eresia.
**10:00etan:** Prozesioko irudiak San Migel parrokiara eroango dituzte.
**10:30ean:** Txopekuako tiro zelaia Gipuzkoako txapelketarako puntuagarri den plater tiroketa txapelketa.
**10:45ean:** San Migelen irudia eta udal ordezkariak San Migel parrokiara helduko dira.
**11:00etan:** Meza nagusia parrokian. Meza bukatu ondoren, Corpuseko prozesioa herriko kaleetan.
**13:30ean:** Udal Musika Bandaren kontzertua Foru plazan.

**Egitaraua:**

*Corpus eguneko zortzikoa.* F. de Beobide.
*Antonin´s new world.* A. Dvorak.
*The blues brothers revue.* Jay Bocook.

**18:15ean:** Foru plazan, Oñatz dantza taldearen emanaldia. Corpus eguneko dantza egitarau osoa eskainiko dute, Udal Txistulari Bandaren laguntzarekin. Eguraldi txarra egiten badu, dantza emanaldia kiroldegian egingo dute.
**19:00etan:** Udal Musika Bandaren eskutik dantzaldia Foru plazan.



Belceblues taldeko Asier Elortza. GOIENKARIA

**MUSIKA** > NAZIOARTEKO BLUES JAIALDIA

# Belceblues taldea, Getxoko naziorteko blues jaialdian

Bergarako taldeak kontzertua egingo du gaur, 21:30ean, Erromoko Santa Eugenia plazan

**M.B.** > BERGARA

Bergarako Belceblues taldeak Getxoko nazioarteko blues jaialdian parte hartuko du gaur. Hain zuzen ere, emanaldia egingo dute Erromoko Santa Eugenia plazan, 21:30ean. Bergararrak Lennie Brooks-en aurretik igoko dira oholtzara. "Jaialdiak duen oihartzunarengatik emanaldi inportantea izango da guretako. Lennie Brooks itzal handiko pertsona da blues munduan, eta guretako ohorea da haren aurretik jotzea", esan digu Belceblues taldeko Oihan Vegak.

Bergarako hirukoteak Satan Asses metal laukotearekin joko du gaur. Kontzertu laburra egingo dutela esan digute: "Gehienez 50 minutuko emanaldia egingo dugu, normalean baino laburragoa. Batez ere, *Infer* diskoko kantuak joko ditugu, baina bertsioak egiteko aukera izango dugu; besteak beste, Jimmy Hendrixen kantuen bertsioak joko ditugu".

**EUSKARAZ ABESTEN**

Getxoko nazioarteko blues jaialdiak herrialde askotariko taldeak bilduko ditu; besteak beste, AEBetako eta Espainiako taldeak. Hizkuntza ezberdinetan abesten duten taldeak igoko dira taula gainera. Bergararrak izango dira euskaraz abestuko duten bakarrak.



Rosa Aierbe > Historialaria

# "Leintz bailarako informazio asko dago Valladolideko artxiboan"

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

**Inprentan dago *La historia del valle de Leniz, 1260-1750* liburua. Rosa Aierbe historialariak (Hernani, 1954) idatzi du eta pozik dago liburuak hartu duen itxurarekin, "juridikoki garrantzi handia duten dokumentu asko" jasotzen baititu.**

**Hernanin jaio, Andoainen bizi eta Leintz bailarari buruzko liburua idatzi?**

Gipuzkoarra naiz ni eta lurraldearen historia jasotzea atsegin dut. Gainera, ez da lehen aldia Leintz bailari buruz idatzi dudana. Historiako ikasketak bukatzeko, Bartzelonan, bailara horri eta Oñatiko kondearen, gebaratarren... inguruko tesinak egin nituen.

**Zer jasotzen du liburuak?**

Dokumentu asko ditu, juridikoki garrantzi handia dutenak. Adibidez, garai hartako padroien datuak datoz liburuan. Argazkiak ere baditu.

**Zerk eman zizun bidea liburua idazteko?**

Valladolideko artxiboan aurkitu nituen Leintz bailarako 1495eko ordenantzak. Izugarrizko aurkikuntza izan zen hura eta argitaratzea merezi zuela ikusi nuen. Aretxabaleta eta Eskoriatzako lagunekin hitz egin nuen eta liburua ateratzea pentsatu genuen.

**Zer puntu jasotzen dute ordenantza horiek?**

Urte haietan 17 elizatek osatzen zuten Leintz bailara eta ordenantzek jasotzen dute, adibidez, alkatea ezin zela beti toki batekoa izan, txandakatu egin behar zela.

**Bailarari buruzko informazio asko dago Valladolideko artxiboan?**

Bai. Leintz bailara oso borrokalaria izan da beti, auzi asko izan ditu eta guztiak daude hango artxiboan gordeta. Liburu hau idazteko Madrilgo artxiboko hainbat dokumentu ere erabili ditut. Informazio asko eta garrantzitsua du liburuak; osoa da.

**Sarri joaten zara artxibo horietara?**

Valladolidekora, adibidez, urtean hiruzpalau aldiz. Noan bakoitzean beti pasatzen ditut egun pare bat gehiago, artxiboa bera arakatzen, dokumentuak aurkitzen... Disfrutatu egiten dut horrekin. Astean behin, gutxienez, artxibo batera joaten naiz, hango materiala arakatzera.

**Oñatin dagoen protokolo artxibora ere etortzen zara?**

Dagoeneko ezaguna naiz artxibo horretan. Artxiboetara joatea pasioa da niretako. Euskarri digitalak ondo daude, lana errazten dute, baina paperarekin kontaktua izatea izugarria da.

Haren emaztea: Natalia Bengoa; semeak: Igor (✝), Gorka eta Iker; anai-arrebak: Mª Conchi, Mª Paz (✝) (C. Crokaert-en alarguna), Jose Ramon eta Teresa Markaide; ezkon anai-arrebak eta gainontzeko senideek:

eskerrak eman nahi dizkizuete hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi.



Arrasaten, 2009ko ekainaren 12an.

URTEURRENA

### Ana Maria Diez Urmeneta

Jesus Kalboetxeagaren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 14an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

### Ixabel Altuna Letamendi

Gasteizen hil zen 2006ko ekainaren 15ean, 44 urte zituela.

Hirugarren urteurreneko meza zapatuan, ekainaren 13an, 19:00etan, Mikel Goiaingeruaren parrokian ospatuko da.

—

*Zure izaera gozoaren oroipena jarraibide on izango da guretzat betirako.*



Zure familia.
Oñatin, 2009ko ekainaren 12an.

URTEURRENA

### Joseba Iñaki Osa Osa

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 14an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

### Elena Zubiagirre Uriarte

Lehen urteurreneko meza zapatuan, ekainaren 13an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian ospatuko da.

—

*Erreza izan zen zu maitatzea; ezinezkoa, ordea, zu ahaztea. Beti gurekin egongo zara.*



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

### Maria Bernardina Lete Jausoro

Arrasaten hil zen 2008ko ekainaren 13an, 79 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 14an, 11:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Babeslea:
Euskalduna
Hileta Zerbitzuak
Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea
Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: *euskalduna@harrespil.net*

# Ekainak 12-19

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa
eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 05** • Faxa: **943 25 05 13**

## Musika



ARETXABALETA

**> 'Una noche con/sin Sabina' zapatu gauean Zaraia aretoan**

Txema Agirrebeitia (ahotsa eta gitarra), Josu Onaindia (gitarra eta koroak), Ibon Diaz (baxua eta koroak) eta Iban Peñakobak (bateria elektronikoa) Joaquin Sabinaren bertsioak eskainiko dituzte bihar Zaraia aretoan, 22:00etan.

## Jaiak



ARRASATE

**> Ardo eta gazta feria ospatuko da bihar, zapatua, Arrasaten**

Ibaiarte eta Mondra elkarteen eskutik, punta-puntako ardo eta gaztak dastatzeko aukera izango da zapatuan Herriko Plazan. Antolatutako ekitaldien artean, 11:00etan jokatuko den gazta lehiaketako finala nabarmen daiteke.

## Musika



BERGARA

**> Txapa Irratiaren 25. urteurreneko 'Kanpora begira' jaialdia zapatuan**

Txapa Irratiak 25. urteurrena bete du. Hori ospatzeko, hainbat ekitaldi izango dira zapatuan, goizetik: dantzak, ipuin kontalariak, tailerrak... Arratsaldean, 18:00etan, Kataia, All Jazz Era (goian) eta beste hainbat talde Muniben.

## Musika

ARETXABALETA

**> The Upper Room domekan**

Gospel musika egiten dute.

Domekan, hilaren 14an, Zaraia aretoan, 19:30ean. 5 euro.

ARRASATE

**> Arizmendi ikastolako abesbatzakoen kontzertuak**

Ikasturteari agur esateko kontzertua astelehenean. Euskaraz, ingelesez, japonieraz zein afrikarrez abestu eta dantzatuko dute abeslariek.

Astelehenean, hilak 15, San Juan parrokian, 18:00etan.

ARRASATE

**> Arrasate Musikal**

Ikasturte amaierako kontzertua.

Datorren egubakoitzean, hilaren 19an, Amaia antzokian, 19:00etan.

ARRASATE

**> Goikobalu Txiki eta Goikobalu Gazteren emanaldia**

Ikasturte amaierako kontzertua. Sarasola, Dominguez, Escudero edo Garbizuren piezak eskainiko dituzte.

Datorren egubakoitzean, hilaren 19an, San Frantzisko elizan, 20:00etan.

ARRASATE

**> Arrasate Musikaleko Big Band**

San Juan jaien atariko emanaldia.

Datorren egubakoitzean, hilaren 19an, Monterronen, 22:00etan.

## Antzerkia

ARETXABALETA

**> 'Renato' antzezlana datorren egubakoitzean**

Ganso Teatro taldearen eskutik.

Hilaren 19an, Arkupen, 22:00etan. 8 euro.

## Dantza

ARETXABALETA

**> Dantza afroamerikarrak**

Jaiki elkartekoen dantza afroamerikarren ikasturte bukaerako jaialdia.

Datorren egubakoitzean, hilaren 19an, Aretxabaletako plazan, 19:30ean.

## Erakusketak

BERGARA

**> Laia Bedos margolariaren erakusketa**

Bartzelonako margolariaren lanak Aroztegin.

Ekainaren 12tik 28ra Barrenkaleko Aroztegi aretoan. Martitzenetik egubakoitzera: 18:00-20:30. Zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30. Domeka eta jaiegunetan: 12:00-14:00.

ARETXABALETA

**> Zirkua eta txotxongiloak**

Corrado Masacciren erakusketa.

Arkupe kultura etxean, ekainaren 15era arte. Ohiko ordutegian: aste barruan 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; zapatuetan 11:00etatik 13:00etara. Domeketan itxita.

ARRASATE

**> Margo taldekoen artelanak Kulturaten**

Arrasate margo taldekoen lanak jarriko dituzte ikusgai.

Ekainaren 18ra arte, Kulturaten.

ARRASATE

**> Eskulan eta orratz lanen erakusketa**

Ekin Emakumeak taldearen eskutik.

Ekainaren 13tik 19ra, Harresi aretoan.

OÑATI

**> 'Oteitza, bizirako proiektua'**

Orioko artistan handiaren lanari gainbegiratua.

Kultura etxean, ekainaren 4tik 21era. Egunero, 18:30etik 20:30era zabalik izango da erakusketa.

ARETXABALETA

**> Margo erakusketa Arkupen**

Pintura ikastaroko lanen erakusketa.

Ekainaren 16tik 30era Arkupen izango da ikusgai erakusketa.

## Bestelakoak

OÑATI

**> Afrikari buruzko mahai-ingurua zapatuan Arantzazun**

Afrikako II. Astearen barruan mahai-ingurua bihar, zapatua, Gandiaga Topagunean. Mbuyi Kabundak eta Jonan Fernandezek hartuko dute parte eta Afrikandugu proposamena aurkeztuko dute. Ondoren, herri bazkaria izango da.

Bihar, zapatua, Gandiaga Topagunean, 11:00etan. Izena emateko 943 25 10 15 telefono zenbakira deitu edo *info@baketik.org* helbidera idatzi dezakete interesatuek.

ARETXABALETA

**> Diaporama emanaldiak hurrengo astean**

Martitzenean, hilaren 16an, *Hegaztiak Urkulun*, Mikel Olanorekin; eguaztenean, Ekologistak Martxan taldearen *Líneas discontinuas*; eta eguenean, hilaren 18an, Zigor Etxeberriaren *Crecer navegando*.

Zaraia aretoan, 19:30ean.

PROPOSAMENA




ARRASATE

**> 'Denok Elkarrekin' jaialdia domekan AEDren eskutik**

AED elkartearen 25. urteurrenari amaiera borobila emateko, ekainaren 14an, domekan, *Denok Elkarrekin* Jaialdia egingo du. Jaialdiaren izenburuak dion bezala, arrasatear denen festa izango da. Ekintza guztiak Biteri plazan izango dira, 09:00etan hasita: ibilaldiak, haurrendako jolasak, jaki ezberdinen dastatzea, musika, bertsolariak (argazkian Xabier Silveira) eta beste hamaika ekitaldi.

Biteri plazan, 09:00etatik 20:00ak arte.

**ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA**

**ERAKUSKETA IRAUNKORRA:** 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimentu eta objektuen manipulazioa erabiliz

**PLANETARIUMA**

**Donostiatik zerura begira:** Zuzeneko saioa (ekainak 13, gazt., 18tan eta ekainak 14, eusk. 12tan).
**Itsua izar begiekin:** Itsu bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat (ekainak 13, gazt., 16:15ean eta ekainak 14, eusk., 17etan).
**Infinity Express:** Unibertsoa eta Eguzki Sisteman zehar bidaia (ekainak 14, gazt., 13etan).
**Kartoizko suziriaren sekretua:** Haurrei zuzendutako saioa (ekainak 13, eusk., 13etan eta 17etan eta ekainak 14, gazt., 16:15ean).
**Eboluzioa (Berria!)** Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu (ekainak 13, gazt., 12tan eta ekainak 14, gazt., 18tan).

**INGURUMENAREN MUNDU-EGUNA**

**Elektrizitate ikuskizuna:** Ileak puntan jarriko dizkizun esperientzia
**Planetarium Txikia:** 4-8 urte bitartekoek ere izarrak ikus ditzaten.
**Fakirraren ohea**
**Esperimentuak zuzenean**
**Simulagailuak:** Errusiar mendia eta tranbia gidatzailearekin disfrutatzeko aukera.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

kutxa | www.kutxasocial.net

# Ikastaroak

ARRASATE

**> Yoga eskolak Arrasaten, goizez eta arratsaldez**

Txindoki dorrean (Bañez Doktorea 1). Astelehen eta eguaztenetan 09:30etik 11:00etara eta martitzen eta eguenetan 19:00etatik 20:30era.

Argibideak: 635 71 06 16 (Maite) edo 943 78 31 26 (Ana).

ARETXABALETA

**> Hainbat ikastaro egiteko aukera Arkupen**

Eskulanak, pintura, zeramika, fieltroa, fimoa, artilekardatua eta swaroski kristalak.

Argibideak Arkupe kultura etxean, 943 08 10 01 telefono zenbakian.

ESKORIATZA

**> Gaztetxoendako graffiti tailerra zapatuan**

Gaztxoek panel ezberdinak margotzeko aukera izango dute.

Bihar, zapatua, Gazteleku kanpoan, 16:30ean hasita. 12-16 urteko gaztetxoei zuzenduta.

# Lehiaketak

ARRASATE

**> Film labur lehiaketa deitu du Emakume Txokoak**

Arrasateko Emakume Txokoak film labur lehiaketa antolatu du. Emakumeenganako biolentzia da landu beharreko gaia. Iraupen mugatua izan beharko dute film laburrek. Lanak DVD euskarrian bakarrik aurkez daitezke eta bakarka zein taldeka parte hartu ahal izango da lehiaketan.

Lanak entregatzeko epea ekainaren 22ra arte zabalik. Argibideak: 943 79 41 39.

LEKEITIO

**> Euskal Zine eta Bideo Bilera Lekeition**

Edozein bideo sortzaile har dezake parte. Lanak DVD formatuan aurkeztu beharko dira, euskaraz. Lanak entregatzeko epea irailaren 11ra arte dago zabalik.

Argibideak 94 624 34 82 telefonoan edo *www.bideobilera.com* webgunean.

DEBA

**> Tene Mujika beka, historia hurbilaz idazteko**

Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak, Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabaltzeko eta gure literatura aberasteko asmoz, V. Tene Mujika beka sortu dute, 6.000 euroko diru-laguntza emango duena. Gure herriaren azken 50-60 urteetan izandako pertsona, talde, gertakari edo mugimenduren bati buruzko liburuak egiteko proiektuak aurkez litezke (adibidez: biografiak, kronikak, erreportajeak, saiakerak, elkarrizketak, ikerketak...); lanak jatorrizkoa eta euskaraz sortua izan beharko du.

Proiektuak, abenduaren 1era arte bidal litezke helbide honetara: Tene Mujika Beka, Debako Udaletxea, 20820 Deba.

# Zinema



## Still walking *****

**Zuzendaria:** Hirozaku Koreeda.
**Aktoreak:** : Hroshi Abe, Yui Natsukawa, Yoshio Harada. Japonia, 2008. 108 min.

Zineman badira mota ezberdineko filmak eta ekoizpenak: joan den astean aipatutako *Ángeles y demonios* aurrekontu handiko ekoizpenak komunikabideetan toki ugari izan du eta zinema gela askotan estreinatu zen; *Still walking* nahiz hemen ingelesezko izenburuarekin estreinatu Japonian eginiko filma da, gela gutxitan eta jatorrizko hizkuntzan azpitituluekin estreinatu dena. Koreedak kontatzen digun istorioa familia baten istorioa da, bi egunetan zehar pasatzen da, eta apaltasunez eta zarata handirik gabe, maisutasunez, bizitzaren eta familiaren arteko harremanen muina islatzen du.

Bi anai-arreba, euren bikotekide eta semeekin, urtero bezala, bere gurasoen etxera doaz, duela urte batzuk hildako anaia baten urteurrenean batzeko. Dena egun bat eta ordu batzuetan pasatzen da, eta zuzendariak horrekin nahikoa du familia horren oraina eta iragana aditzera emateko. Familiako izaera kolektiboa eta indibiduala oso ondo agertzen dira, talde bat da, baina taldea pertsonaz osatuta dago eta pertsona bakoitzak bere iritziak eta sentimenduak ditu. Esaten diren gauzak, gordetako sentimenduek ekartzen duten frustrazioa eta urruntzea. Gatazka horiek beti sortzen dira, bizitzan jarritako itxaropenak eta gero honek ekartzen diguna, ametsen eta errealitatearen arteko diferentziak. Eta arazo horiek eta belaunaldi arteko ikuspuntu desberdinak errepikatzen den ziklo bat da. Oso ondo ikusten da haurrek gurasoenganako dituzten sentimenduak, gurasoek ere txikitan izan zituzten sentimenduak direla. Bizitza horrela da, jarraitu behar den bidea.

Koreedak, filmaren gidoilari eta zuzendariak, margolarien erara, trazu txikiekin (begirada bat, isilune batekin, eta pertsonaia planoan nola kokatzen den arabera) osotasun batera heltzea lortzen du. Eguneroko bizitza erakusten, bizitzaren eta gizakien arteko harremanen mamia islatzea lortzen du.

**Antonio Zabala**

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**Ángeles y demonios**
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka. 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Hanna Montana: la película**
Domeka: 17:00.

### BERGARA

**ZABALOTEGI**

**Garaje**
Eguena: 20:00.

### EIBAR

**UNZAGA**

**Fuga de cerebros**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehenetik eguaztenera: 19:30, 22:15.

### GASTEIZ

**GURIDI**

**Kika superbruja y el libro de hechizos**
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

**Ángeles y demonios**
17:00, 19:45, 22:30.

**Terminator salvation**
17:30, 20:00, 22:30.

**Los mundos de Coraline**
16:30, 18:30, 20:30.

**No-Do**
16:30, 18:30, 20:30 22:30.

**Vacaciones de ferragosto**
18:30, 20:30 22:30 (zapatuan eta domekan).

**Cleaner**
17:30, 20:00, 22:30.

**Noche en el museo 2**
16:30 (zapatuan eta domekan).

**Nunca es tarde para enamorarse**
22:30.

Egubakoitzetik domekara.

**FLORIDA-GURIDI**

**Los hombres que no amaban a las mujeres**
16:50, 19:40, 22:30.

**Radio encubierta**
22:00.

**Coco, de la rebeldía a la leyenda de Chanel**
17:30, 20:00, 22:30.

**Good**
20:00, 22:30.

**Hanna Montana: la película**
17:30.

**La caja de Pandora**
18:00, 20:15, 22:30.

**El frasco**
17:30, 20:00.

**Amor, dolor y viceversa**
18:00, 20:15, 22:30.

**7 minutos**
18:00, 20:15, 22:30.

Egubakoitzetik domekara.

**YELMO-GORBEIA**

**Terminator salvation**
15:45, 17:00 (zapatuan eta domekan), 18:00, 19:15, 20:15, 21:30, 22:30, 23:45, 00:45.

**Los mundos de Caroline**
16:30 (zapatuan eta domekan), 17:30.

**Los mundos de Caroline**
(3D digital emanaldiak) 18:30, 19:00, 20:30, 21:00, 22:30, 23:30, 00:30.

**Jonas Brothers: The 3D concert experience**
(3D digital emanaldiak) 15:30 (zapatuan eta domekan), 17:00, 17:30.

**Los hombres que no amaban a las mujeres**
15:40 (zapatuan eta domekan), 18:30, 21:30, 00:25.

**Noche en el museo 2**
16:10 (zapatuan eta domekan), 18:10, 20:10.

**Presencias extrañas**
20:20, 22:20, 00:20.

**Star Trek**
15:50 (zapatuan eta domekan), 18:05.

**Ángeles y demonios**
15:30 (zapatuan eta domekan), 18:00, 20:30, 23:30.

**X-Men orígenes: lobezno**
22:10, 00:10.

**Te quiero, tio**
16:25 (zapatuan eta domekan), 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

**Hanna Montana: la película**
16:15 (zapatuan eta domekan), 18:15.

**Fuga de cerebros**
20:15, 22:15, 00:15.

**Kika superbruja y el libro de hechizos**
16:00 (zapatuan eta domekan), 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**7 minutos**
16:35 (zapatuan eta domekan), 18:35, 20:35, 22:35, 00:35.

**No-Do**
16:45 (zapatuan eta domekan), 18:45, 20:45, 22:45, 00:45.

**Miss Marzo**
16:40 (zapatuan eta domekan), 18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

**La sombra del poder**
19:15, 21:45, 00:15.

Ekainaren 12tik 18ra. Gauerdiko emanaldiak egubakoitz eta zapatuan.

**ÁBACO BOULEVARD**

**Ángeles y demonios**
16:30, 19:20, 22:15, 01:00.

**Siete minutos**
16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

**Noche en el museo 2**
16:20, 18:25, 20:30, 22:35, 00:45.

**Te quiero, tio**
16:10, 18:20, 20:25, 22:35, 00:45.

**Coco, de la rebeldía a la leyenda de Chanel**
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

**Los mundos de Caroline**
16:15, 18:20, 20:30, 22:35.

**Gran Torino**
22:20.

**Fuga de cerebros**
16:05, 18:10, 20:15.

**Terminator salvation**
15:50, 17:00, 18:10, 19:30, 20:30, 22:15, 22:45, 00:45.

**Kika superbruja y el libro de hechizos**
16:00, 18:00, 20:00, 22:00.

**X-Men orígenes: lobezno**
16:05, 18:05.

**Presencias extrañas**
20:25, 22:15, 00:30.

**Hanna Montana: la película**
16:10, 18:20, 20:25.

**La sombra del poder**
22:30, 01:00.

Ekainaren 12tik 18ra.



**Ángeles y demonios** **
AEB, 2009. Zuzendaria: Ron Howard. Aktoreak: Tom Hanks, Ewan McGregor, Stellan Skarsgard. 140 minutu.
Robert Langdon erlijio sinboloen irakasleak aspaldiko sekta sekretu bat aurkituko du. Vitoria Vetra zientzialariarekin batera, duela 400 urteko sinboloen atzetik ibiliko dira... *El codigo Da Vinci* filmean gertatu bezala, honetan ere Tom Hanks da protagonista nagusia. Erroman kokatuta dago lehen zatiaren *jarraipena*.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Lejos de la tierra quemada** ****
AEB, 2008. Zuzendaria: Guillermo Arriaga.
Alejandro Gonzalez Iñarrituren (Amores perros) gidoigile izandako Guillermo Arriagaren lehenbiziko filma. Jatetxe bateko gerentea da Sylvia (Charlize Theron), lanean eta bizitzan bi aurpegi erakusten dituena. Goiz ala berandu bere iraganari aurre egin beharko dio....

**25 kilates**
Espainia, 2008. Zuzendaria: Patxi Amezkua.
Zorrak ordaindu ez dituztenei kobratzen egiten du lan Abelek; autoak lapurtzen ibiltzen da Kay; haren aita Sebasek lapurtutako gauzak erosten ditu; Garro lapurreten aurkako brigadako inspektorea da... Azken kolpearen zain daude denak.

**El curioso caso de Benjamin Button** *****
AEB, 2008.
Zuzendaria: David Fincher. .
David Fincher zuzendariaren (*Zodiac*) azken lana Oscarretako galtzaileetako bat izan genuen, bigarren mailako hiru sarirekin konformatu behar izan zen-eta. Benjamin Button (Brad Pitt) 80 urterekin jaioko da eta urteak atzetik aurrera beteko ditu...

**The reader**
AEB, 2009. Zuzendaria: Stephen Daldry.
Michael Berg 15 urteko gaztea gaixotu egingo da etxetik eskolarako bidean, eta Hanna Schmitz emakumeak jasoko du. Haien artean pasiozko harreman bat piztuko da, Hanna desagertzen den arte... Nazien eskuetan eroriko da Hanna. Oscar saria Kate Winslet protagonistarendako.

**Gran Torino** ****
AEB, 2009. Zuzendaria: Clint Eastwood.
Walt Kowalski Koreako gerrako soldadu ohi bat da. Egun batean deskubrituko du bere altxor preziatuena lapurtu nahi diola Asiako jatorriko bizilagun nerabe batek: 1972ko Gran Torino autoa. Arrazismoaren inguruko drama.

**Ponyo en el acantilado**
Japonia, 2007. Zuzendaria: Hayao Miyazaki.
Sasuke bost urteko umearen eta Ponyo arrainaren arteko harremana kontatzen du Hayao Miyazakiren (*El viaje de Chihiro*) marrazki bizidunetako film honek. Gizaki bihurtzea da Ponyoren ametsa...

## nire aukera



Gorka Zelaia
Herri Irratian futboleko esataria

## Futbolari lotuta asteburuetan

Oñati eta Donostia artean bizi da Gorka Zelaia oñatiarra (39 urte) eta Ofiservice Frantziako multinazionaleko salmenta zuzendaria da Espainiako iparraldean.

Baina hark aitortzen duenez, futbola da Gorka Zelaiaren bizitza. Herri Irratiko futbol solasaldietan hartzen du parte astelehenetan eta aurten behin baino gehiagotan lagundu dio Iñaki de Mujikari Realeko partiduetan. Hainbat taldetan jardundakoa da jokalari eta entrenatzaile eta aurten kirol zuzendari titulua atera du. Oraingoz, behintzat, nahiago du futbola kanpotik bizi izatea. Bi seme-alaba ditu.

**Futbol denboraldia amaitzeko gogoz, ala?**
Ez pentsa. Ez naiz futbolarekin inoiz aspertzen eta, gainera, sasoi hau oso interesgarria da, etorkizuna baldintzatzen duelako. Fitxaketekin eta planifikazioarekin asmatu beharra dago, azpiegitura egokia izateko.

**Futbolak baldintzatu egiten ditu zure aste bukaerak.**
Bai, bederatzi partidu ikustera heldu izan naiz. Denetik: Ingalaterrako liga, Espainiako lehen eta bigarren mailakoak, preferentekoa, kadete mailakoak...

**Zer nabarmenduko zenuke?**
Barçarena ikaragarria izan da. Inoiz ez dut ikusi halako talderik eta Guardiolaren meritua ez da makala; talde bat gestionatzeko orduan lezio ona eman die askori.

**Realari nolako etorkizuna ikusten diozu?**
Apustu handia da Martin Lasarterena. Argi dago Juanma Lilloren zikloa amaitu dela, lan ona egin duen arren. Baina hemengo liga ezagutzen ez duen entrenatzailea ekartzea, ez dakit...

**Futbolaz aparte, beste zaletasunik?**
Bizikleta, zinema, irakurketa... Orain izugarri gozatzen nabil Koldo Saratxagaren *Un nuevo estilo de relaciones* liburuarekin.

**Edu Mendibil**

**Goienkaria**

**EGOITZA NAGUSIA**
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Harpidetza:** 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2009-06-12

# Arabara hauspoari eragitera

**IRAKASLEAK** Oiongo ikastolan daude lanean Mikel Arroiabe aretxabaletarra eta Maite Rementeria bergararra

**JAIA** Ekainaren 21ean Arabako Errioxan, Oionen, egingo dute Araba Euskaraz ikastolen aldeko jaia

**LELOA** 'Hauspoari eraginez' leloarekin diote eurek lan egin behar dutela txingarraren barruko sua ateratzeko

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Ekainaren 21ean Oionen, Arabako Errioxan egingo dute Araba Euskaraz ikastolen aldeko jaia. Oiongo ikastolan daude irakasle Aretxabaletako Mikel Arroiabe eta Bergarako Maite Rementeria eta hango ikasleen guraso dira baita ere Bergarako Eli Bergara eta Aretxabaletako Rakel Simon .

Ikastola txikia da: 260 ikasle eta 30 irakasle. "Ikasleak Oiondik eta inguruko herrietatik etortzen dira, baita Logroñotik 70 inguru ere" azaldu digu Mikel Arroiabek.

**JAI TXIKIA BAINA POLITA**

Jaiaren antolakuntzan etena egin eta azalpenak eman dizkigu Mikel Arroiabek: "Araba Euskaraz ikastolen jaien artean txikiena da, baina era berean polita".

Aurtengo leloa *Hauspoari eraginez* da eta Mikel Arroiabek gertatu du su txingar bat irudikatzen duen logoa: "Islatu nahi dugu umeek badakitela euskaraz, baina arazoak dituztela kanpora ateratzeko. Hauspoari eragitea da gure lana txingarraren barruko sua ateratzeko", esan digu. Logoarekin batera, umeengana errazago iristeko *Gartxo* maskota, ipuina eta puzzlea egin dituzte.

Antolatzaileen helburua da euskara hori ateratzeko espazioak sortzea. Arroiaberen esanetan, "euskararekiko errespetuaren aldetik behar handiak dituen ingurua da. Gurasoek ez dakite euskaraz, koadrila erdiak ere ez, aisialdi oso gutxi dago euskaraz… Ume mordoa ateratzen da ikastoletatik; hortaz, gure erronka da denon artean aisialdirako euskarazko guneak sortzea".

Jaia pauso bat da horretarako eta animatu nahi dute jendea hara joan dadin: "Gazteendako, Kauta, Deabruak Teilatuetan eta ikasle ohien taldeak egongo dira; umeendako, *Araba saltoka* kantua egin duten Pirritx, Porrotx eta Mari Motots...".

Diruarekin, erabilera askotariko eraikin bat egin nahi dute, jantoki propioa izateko eta haurtzaindegia handitzeko. Hortaz, ekainaren 21ean denak Oionera ikastolako hauspoari eragitera.



**IKASTOLA** Rakel Simon, Mikel Arroiabe, Eli Bergara eta Maite Rementeria, Oiongo ikastolako irakasle eta gurasoak. GOIENKARIA

## ahobero

**"Zentral nuklearrek, pertsonek bezala, batzuek 20 edo 30 urterekin ajeak dituzte; besteak 50ekin primeran daude"**

**Miguel Sebastian** >
Industriako ministroa

Urtetan aurrera joan ahala ajeak denek izaten dituzte; eta pertsonek makillajearekin estaltzen dituzten arren, nola tapatu zentral nuklearrak kaltetu dituenen mina?

## iturri onetik

**Urriaren 31n izango da Soraluze-Bergara lasterketaren bosgarren edizioa**

Antxintxika Triatloi Taldeak urriaren 31rako, zapaturako, antolatu du Soraluze eta Bergara arteko lasterketa. Korrikalariek 10 kilometroko ibilbidea egin beharko dute; iazko berbera, hain zuzen ere.

Laugarren edizioan 323 korrikalarik hartu zuten parte eta antolatzaileek aurten ere animatu nahi dituzte. Izena emateko epea lasterketa baino hiru aste lehenago zabalduko dute.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > 'www.goiena.net/blogak/piperrautsa'

### Ramon gurea

Hizkuntza Politikarako sailburuorde izendatu berri, jarrera oso interesgarriak azaldu ditu Ramon Etxezarretak. Areago, asteon Blanca Urgell bere sailburuarekin Iparraldean izan dira, Euskararen Erakundearekin laguntza hitzarmena sinatzen. Eta gaineratu euskararen mapa hartzen dutela lan-esparru, muga administratiboez gaindi.

Oraindik ezin bazaie ekintzarik eskatu, keinuetan bezala adierazpenetan ondo hasi dira Ramon eta bere nagusia. Egia da euskarak aukera ezin hobea duela bere oinarri soziala zabaltzeko eremu ez-abertzaleetan, eta horri esker despolitizatzeko. Historian gertatu izan da, eta berriro gerta daiteke. Ni ez naiz zain geldituko, mesfidati, ea Ramon gurea noraino iristen den. Nahiago dut lagundu urrun irits gaitezen.

## ai, ene!



**Koloretako ura, txorrota behar den modura**

Urarekin ustekabe bat edo beste izan dugu hotza edo beroa dagoelakoan. Koloreak sorpresa horiek saihestuko ditu.

www.taringa.net



*Eraman dotoretasuna zure etxera*

gelatza

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

# Goienkaria

Martitzena / 2009ko ekainaren 16a / **GOIENKARIAren ARGITALPEN BEREZIA**





JOSETXO ARANTZABAL


MANDOIN S.L.

**MANDOIN ERAIKUNTZAK S.L.**

GORA SAN JUANAK!

- ERAIKUNTZAK
- IGELTSEROTZA
- ERREFORMAK OROKORREAN
- GREMIOEN KOORDINAZIOA

San Andres, 2-A2 pabiloia ARRASATE (Gipuzkoa) Tel.: 943 79 72 52 Mug.: 629 49 00 77
Biltegia. San Andres auzoa, 2 -2.(Lana) e-posta: *mandoin@terra.es*


ZatOz!
...gozatu
gurean!
AMETS
BENGOA
BRANKA
EDERRA
IAMAI
ITZALA
MONTE
OKORETEGI
OSTANTZ
RUMBA
TXOKO

kale inkesta

# San Juan jaietan kanpora joateko ohiturarik baduzu?



**Kristina Etxebarria**
Langilea

Ni hemen geratzen naiz jaietan. Giro ona egoten da eta parte hartzea gustuko dut; lehen, gauez ateratzen nintzen, baina orain, umeekin, eguneko ekintzak aprobetxatzen ditut.



**Olatz Arkauz**
Langilea

Normalean, jaietan gelditzen gara, beste aukerarik ez dugulako izaten. Aurten krisia egon arren, jende askok herritik alde egingo duela uste dut. Krisia irailean nabarituko dute!



**Esther Navarro**
Langilea

Normalean gelditu egiten naiz jaietarako, San Juan bezperan danborradan parte hartzen dudalako. Pozgarriagoa da giro hobea egotea, baina jende asko kanpora joaten da.



**Mikel Caballero**
Langilea

Jaietan herrian gelditzen naiz, ez daukat-eta beste aukerarik, eta jaietako ekintzetan parte hartuko dut. Gainera, krisia dela-eta jende gehiago geldituko da herrian, nire ustez.



**Iker Agirre**
Langilea

Herrian geldituko naiz jaietan, kanpoan egiten dut lan eta ez daukat jairik. Aukera izanez gero, pentsatuko nuke kanpora joatea. Gainera, jende asko kanpora joango dela uste dut.



**Ander Zubizarreta**
Ikaslea

Normalean, herrian gelditzen naiz jaietan, lan egin behar izaten dudalako. Aukera izanez gero, beharbada, kanpora joango nintzateke. Gainera, krisiaren eragina igarri egin daiteke.

## AURKIBIDEA

**Inkesta** > 03
**Egitaraua** > 04-05
**Jai zinegotzia** > 06
**Errementari-dantza** > 07
**Dragoi Jana** > 09
**Pilota** > 10
**Txosnen egitaraua** > 13
**Pirritx eta Porrotx** > 14
**Umeen Eguna** > 17
**Elkarrizketa** > 18
**Kontzertua** > 19
**Su artifizialak** > 20
**Elkarrizketa** > 22
**Zirika Zirkus** > 23
**Segway** > 24
**Arrasate Musikal** > 26
**Kontzertuak** > 28-29
**Nagusien Eguna** > 30
**GOITB eta irratia** > 31

argazki zaharra

# 1981eko gaztetxoen danborrada plazan

Irudiko argazkia 1981eko haurren danborradakoa da. Plazan amaitu zen urte hartan danborrada eta, urtero moduan, dotore jantzi ziren duela 28 urte herrian zehar danborra jotzera atera ziren neska eta mutikoak.

Orduan, nagusien zein txikien danborradak sortzen zuen ikusmina gaur egun ere mantentzen da. Eta, orduan bezala, gaur egun ere SUDC (gaur egun 24 elkartek osatzen dute) arduratzen da entseguen antolaketaz eta danborrada eguneko antolaketaz ere bai.



**Argazkia:** 1982ko Jai Egitaraua.

**Goienkaria**
**Argiraratzailea**
Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea
Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Edu Mendibil **Erredakzioa** Jasone Zabala, Mireia Bikuña, Ubane Madera, Irati Agirreazaldegi **Publizitatea arduraduna** Mireia Larrañaga **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate

**EGOITZA NAGUSIABERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatilaTel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com
**ORDEZKARITZAK ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatilaTel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com
**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 79 22 93 Posta-e: publi@goiena.com
**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 Tel.: 943 25 05 05 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 7.000 ale
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK
Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko udala



EGITARAUA

# JAIETAKO EGITARAUA

## Egubakoitza, 19

**17:30** Seber Altube plazan GIMNASIA ERRITMIKOKO ERAKUSTALDIA. Arrasate Dragoi Gimnasia Taldeak antolatuta.



HAURREN DANBORRADA, ZAPATUAN.

**18:30** Amaia antzokian Arrasate Musikalen ikasturte bukaerako KONTZERTUA.
**20:00** San Frantzisko elizan GOIKOBALU TXIKI eta GAZTE taldeen kontzertua.
**22:30** Monterronen ARRASATE MUSIKALEKO BIG BANDaren kontzertua.

## Zapatua, 20

Goiz osoan alde zaharrean 5. Herensugea PINTURA LEHIAKETA. Arrasate Margo Taldeak antolatuta.
Goiz osoan Bergara, Oñati eta Arrasate arteko ESKUBALOI MINI TXAPELKETA.
**14:00** MOTORREROEN EGUNA. Izenematea zabalduko da. Ondoren, motorren irteera. 19:00etan, kontzertuak Bitter Honey eta La Txusma taldeekin.
**14:30** Harresi aretoan PINTURA lehiaketaren SARI BANAKETA.
**16:30** Doke kafetegian 13. MUS TXAPELKETA.
**17:00** XAKE norgehiagoka Biteri plazan. Leintz bailarako selekzioen artekoa.
**19:00** HAURREN DANBORRADA Arrasate Musikaleko Musika Bandarekin. SUDCek antolatuta.

## Domeka, 21

**10:00** Zaldibar pilotalekuan batuko dira haur dantzarien taldeak.
**11:15** Herriko kaleetan zehar DANTZA ERAKUSTALDIA.



MAKALA JASOKO DUTE EKAINAREN 23AN.

**12:00-14:00** AUTO TELEGIDATUEN lantegia eta erakusketa Laubide plazan.
**13:30** Dantza talde guztiak plazan elkartuko dira. Ondoren, txistulari guztiek hainbat doinu eskainiko dituzte.
**17:00** Uarkape pilotalekuan pilota partidu profesionalak.
Del Rey-Galartza VI.a/Aritz Lasa-Arruti
Irujo-Beroiz/Gonzalez-Pascual.
**17:00-19:00** Auto telegidatuen tailer eta erakusketa Laubide plazan.
**17:15** Herriko Plazan dantza talde guztien JARDUNA eta AGURRA. Lore Gazteak eta Txikitxu Arrostaitz dantza taldeek antolatuta. Ondoren, DANTZALDIA.

## Martitzena, 23

**12:00** Ferrerias plazan TXUPINAZOA eta txosnaren irekiera.
**14:30** BAZKARI HERRIKOIA gaztetxean.
**16:00** Arrasateko TXISTULARIEKIN DIANA.
**16:30** Herriko Plazan ETXAFLEROAK eta BONBA JAPONIARRAK.

Uarkape
jatetxea
Plater konbinatuak, bokatak,
eguneko menuak, karta
San Juan zoriontsuak !
Otalora Lizentziaduna 10
Tel.: 943 77 20 04
ARRASATE

IRUROK. S. L.
Eraikuntzak
Ondo pasa San Juanak!
Meatzerreka 5-bis Tel.: 943 77 09 92 • Faxa: 943 79 78 14
246 P.K. • ARRASATE e-posta: irurok@irurok.com

## EGITARAUA



ERRALDOIEK KALEJIRA EGINGO DUTE.

**17:00** Herriko Plazan ZIRIKA ZIRKUS taldearen ikuskizuna.
**17:30** Maalatik hasita TXOPOTEOA.
**19:00** Herriko plazan MAKALA jasotzea.
**19:30** San Juan Batailatzailearen parrokian SALBE SOLEMNEA.
**21:30** ERREMENTARI DANTZA; Arrasateko euskal musika eta dantza taldeek parte hartuko dute.
**22:30** SAN JUAN SUA Herriko Plazan.
**23:00** Herriko kaleetan zehar, NAGUSIEN DANBORRADA. SUDCek antolatuta. Ostean, Herriko Plazan GAUBELA taldearekin DANTZALDIA.
**23:00** KONTZERTUA txosnagunean: Decepcion Rock, Paraplejia eta El Matadero taldeekin.

## Eguaztena, 24

**08:00** Txosna batzordeak antolatuta, TXOKOLATADA elizpean.
**08:30** DIANA, ARRASATEKO GAITEROEKIN.
**09:00** ENTZIERROA. Ferrerias kaletik irten, Erdiko kaletik eta Iturbidetik pasatu ostean, Laubide plazako zezen-plazan bukatuko da; gero, zaleentzako bigantxak zezen-plazan.
**11:00** MEZA NAGUSIA San Juan Batailatzailearen parrokian. Ordu berean, Arrasateko Erraldoien eta Kilikien KONPARTSAren KALEJIRA.
**11:00** Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDArekin KALEJIRA.
**12:00** Herriko Plazan OHOREZKO AURRESKUA eta SAN JUAN ZORTZIKOA dantzatuko da.
**12:30** Abaroan OMENALDIA 80 URTETIK GORAKO NAGUSIEI.
**13:00** Monterron parkean KONTZERTUA, Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAREN eskutik.
**18:00** Bikoizketa/Sex metraia gaztetxean.
**19:30** Zezen-plazan zezen jaialdia ERREKORTADOREekin eta beste ikuskizun batzuekin.
**19:30** Mexikotik DOLORES SAN JUAN Y MARIACHI TEQUILEÑO taldearen eskutik KALEJIRA.
**20:00** PINTXO DASTAKETA gaztetxean.
**21:00** Herriko Plazan, DRAGOI JANA.
**22:00** Gaztetxean, KARAOKEA.
**23:00** Santa Babaratik SU ARTIFIZIAL ikusgarriak, Astondoa Pirotekniaren eskutik.
**23:30** DISKO FESTA, Herriko Plazan, OIHAN VEGArekin.
**23:30** Monterronen TXATARRERIA KEATON taldea. Buster Keatonen filmen emanaldi musikatuak dira talde honek proposatzen diguna.

## Eguena, 25

**08:30** DIANA Arrasateko Gaiteroekin.
**09:00** ENTZIERROA. Ondoren, bigantxak zezen-plazan.
**09:30** Haurrak eta gaztetxoak iratzartzeko DIANA.
**10:30** Biteri plazan haurrek eta gaztetxoek ongietorria egingo diote EGUZKI LARUri eta kalejiran joango dira Zaldibar pilotalekura. Ondoren, jolasparkea 13:30ak arte.
**12:00** GRAFITI HERRIKOIA txosnetan.
**13:00** Herriko plazan BERTSO SAIOA. Gai-jartzailea: Asier Ibaibarriaga. Bertsolariak: Jokin Labaien, Oihane Pereira, Amets Arzallus eta Sustrai Colina.
**13:30** APAR JOLASA Biteri plazan.
**16:30-18:30** Zaldibarren Eguzki Laruren jolasparkea irekiko da berriro, merienda eta zurrupaki tropikalarekin.
**18:00** Txosnagunean HERRI PROBAK. Ondoren, antzerkia.
**18:00-20:00** Txosnetan eta gaztetxean "Krisiaren aurkako orduak".
**18:30** Haurren kalejira Zaldibartik Monterronera.
**18:30** Seber Altube plazan HAPPY STARS taldearen ikuskizuna.
**19:00** PIRRITX eta PORROTX pailazoek *Piratak* ikuskizuna aurkeztuko dute, Monterron parkean. Ondoren, Eguzki Laruri agurra.
**19:30** Arrasateko Gaiteroak eta Arrasate Musikaleko perkusio eta haize taldeen irteera.
**20:00** LARRAIN DANTZA Herriko Plazan. Ondoren kalejira.
**20:00** Seber Altube plazan HAPPY STARS taldearen ikuskizuna.
**22:00** Txosnagunean KONTZERTUA: Last Rebels, Motherfuckers eta Radio Dead Ones taldeekin.
**22:30** Herriko Plazan DANTZALDIA Nueva Alaska taldearekin.



ENTZIERROAK ZALE ASKO DITU.

## Egubakoitza, 26

**08:30** DIANA Arrasateko Gaiteroekin.
**09:00** ENTZIERROA. Ondoren, bigantxak zezen-plazan.
**11:00** Arrasateko erraldoi eta kilikiekin kalejira.
**12:00** Arrasateko trikitilarien eskutik kalejira.
**12:00** Segway ibilgailu dibertigarria erabiltzeko aukera Biteri plazan.
**12:00-14:30** Herriko Plazan, eta Eusko Labelen eskutik, HEGALUZE eta ATUN GORRI dastatzea GOIKOBALU abesbatzaren laguntzarekin.
**17:30** Txosna batzordeak antolatuta TRIKIPOTEOA.
**18:00** Errekortadore ESKOLA gaztetxoendako.
**18:00** Herriko Plazan ATXIKISTAN ikuskizuna (umeen berbena).
**19:00** Debagoieneko II. jardunaldi gastronomikoen aurkezpena. Bakailao PINTXOEN BANAKETA Herriko Plazan.
**19:30** Herriko Plazan SOKA DANTZA.
**20:00** Gaztetxean ANTZERKIA.
**21:00** CAPOEIRA ERAKUSTALDIA txosnagunean.
**22:00** Herriko Plazan LISKER taldearekin dantzaldia.
**22:00** Monterron parkean EKON eta LOS GALERNA taldeekin KONTZERTUA.

## Zapatua, 27

**11:00** BOULDER TXAPELKETA HERRIKOIA, Txosna batzordeak antolatuta.
**12:00** AIKIDO ERAKUSTALDIA Musakolako kiroldegian.
**16:30** Herriko Plazan Txatxilipurdiren eskutik IRAJOSI eta PLAZALAI egitasmoen bukaera. Ipuin kontalariak eta jolasak 3 eta 12 urte bitarteko umeendako.
**18:00** Txosna batzordeak antolatuta TXARANGA POTEOA.
**23:00** Txosnagunean KONTZERTUA Muskaria taldearekin.
**03:00** Urrezko Dragoi sarien banaketa txosnagunean.


Goiz Argi
Etxez etxeko laguntza
• Pertsona nagusiendako edo ezinduendako laguntza pertsonala eta etxeko lanetarako laguntza.
• Pertsonal aditua.
San Juan jai zoriontsuak!
Simon Arrieta 2a (Solairu artea B) Tel.: 943 76 72 16 Faxa: 943 76 07 23

Jai zoriontsuak izan!


Garibai etorbidea z/g
Tel.: 943 79 59 00 / 943 79 52 23
Faxa: 943 79 41 11
"la Caixa"

ELKARRIZKETA **IZADI MONDRAGON** JAIETAKO ZINEGOTZIA

# "Arrasatearrak herrian geratzea nahiko genuke"

MIREIA BIKUÑA

**Krisiari begira osatu du Arrasateko Udalak San Juanetako jai egitaraua. Jaietako zinegotzi Izadi Mondragonek eman dizkigu programako xehetasunak.**

**Krisiak eragina izan du egitaraua osatzeko orduan?**

Bai, noski. Aurreko urteko aurrekontuarekin alderatuta asko murriztu dugu aurtengoa. Arrasaten langabeziak gora egin du nabarmen, eta ezin dugu dirua barra-barra gastatu Udalean. Are gehiago esango dut: datorren urteko aurrekontua txikiagoa izango da.

**Dena den, egitarau zabala osatu duzue. Ze ekitaldi azpimarratuko zenituzke?**

Askotariko ekitaldiak bildu ditugu egitarauan. Baina berrikuntzak edo bitxiak direlako, batzuk aipatuko nituzke: Arrasate Musikaleko Big Band taldeak kontzertua egingo du egubakoitzean. Orain arte uztailean egiten zuten. Bestalde, urrunetik gidatutako autoen erakustaldia egingo dute.

Profesional mailako pilota partiduak puntapuntakoak dira. Martinez de Irujok duen erakargarritasuna aprobetxatu nahi dugu frontoia betetzeko.

> **"Krisiaren ondorioz aurrekontua iazkoa baino txikiagoa da"**

> **"Jai herritarrak izatea espero dugu, hori lortzeko egin dugu lan"**

**Zelako jaiak izatea espero duzue?**

Jai herritarrak izatea espero dugu, eta hori lortzeko egin dugu lan. Herritarrak kalera atera nahi ditugu, eta adin guztietako jendearengana heldu nahi dugu.

Egun, jai egitaraua osatzeko orduan orijinala izatea oso zaila da, eta berrikuntzei tokia egitea ez da erraza.

Bestalde, badakigu San Juan jaiak aprobetxatuz herritar askok alde egiten dutela. Astebeteko oporrak dituzte askok eta hondartzarako bidea hartzen dute. Urtero-urtero ekitaldi erakargarriak antolatzen ahalegintzen gara, arrasatearrak herrian gera daitezen.

**Noiz hasi zineten jaiak prestatzen?**

Kulturako arduradunak apirilean hasi ziren lehen zirriborroak egiten. Egia esan, lan nahiko astuna da. Pertsona askok egiten dute lan jaiak ondo irten daitezen.



Izadi Mondragon. UBANE MADERA

**Iazko jaietan Udalaren egoera oso bestelakoa zen. Ino Galparsoro kartzelan zegoen. Gaur egun duzuen egoera *normalagoa* da.**

Bai, hala da. Iazko sanjuanetan alkate bako herria ginen eta Inoren kartzelaratzeak buruhauste asko sortu zizkigun. Egun, zazpi zinegotziok gaude lanean, Ino buru dugula. Guretzako oso inportantea da alkatea gurekin izatea. Horregatik guztiagatik, egoera oso bestelakoa da, bai!

eya
Ondo pasatu San Juanak
estilo guztietako lanparak
Iturriotz 21 Tel.: 943 79 03 84 Faxa: 943 77 20 51
ARRASATE



Lore
Lurrindegia eta estetika zentroa
Olarte 10 • ARRASATE
943 79 52 50

HORTZ KLINIKA
UARKAPE
Nicolas Bermejo doktorea
Odontologia orokorra
Endodontzia
Inplantologia
Protesiak
Uarkape 16 • ARRASATE • Tel.: 943 79 87 90 - 943 79 10 85

ERREMENTARI-DANTZA

# Makila ugari dantzan kalean San Juan bezperan

## Herriko Plazan polkak, ingurutxoa eta San Juan dantza eskainiko dituzte kalejiraren ostean

**Kalean eta plazan**

**Martitzenean, 09:30ean**

Herriko dantzariek eta musikariek euskal dantzak eta doinuak eskainiko dituzte.

JASONE ZABALA

**San Juan bezperan herriko dantzariek duela 16 urte lehen aldiz egin zuten errementari-dantza egingo dute Arrasateko kaleetan zehar.**

Ohiturari jarraituz, ekainaren 23an errementari-dantza egingo dute Arrostaitz eta Lore Gazteak taldeetako dantzariek.

Maalan abiatu eta Portaloian dantza egin ostean, Iturriotz kaletik igaroko dira dantzariak, atseden hartu aurretik. Ondoren, Erdiko kalean barrena Herriko Plazara jaitsiko dira eta han dantzatuko dituzte polkak, ingurutxoa eta, azkenik San Juan dantza. Gero, Portaloira joango dira berriz.

**DANTZARIAK ETA MUSIKARIAK**

Talde bakoitzeko 20-25 bikotek hartzen dute parte. Musikarien aurretik joaten da talde bat eta atzetik bestea.

Musika Eskolako musikariak izaten dituzte lagun, 50etik gora lagun; baita lau erraldoi ere. Azken horiek Portaloiko eta Seber Altubeko geldiuneetan eta plazan egiten dute dantza.


Lore Gazteak eta Arrostaitz dantza taldeetako neska-mutilek egingo dute dantza. GOIENKARIA

**"Herriko jendeari eta inguruko beste leku batzuetatik etortzen direnei asko gustatzen zaie errementari-dantza"**

Urteroko kontua izanik, batzuek ez dute entsegu askorik behar, baina prestatzen ez direnik ezin da esan: "Txikien taldeetatik nagusien taldeetara pasatzen direnek entsegu asko egin behar dituzte. Bestalde, urte askoan dantza hau egiten dihardutenek ez dute horrenbesteko beharrik izaten, baina dantzak errepasatzeko elkartzen dira", adierazi digute antolatzaileek.

Herritarrek ikusmin handiz jarraitzen dute errementari-dantza, urte askoko ohitura delako. Hala eta guztiz ere, joan den urtean astelehenean tokatu zen eta aurten martitzenean izanda, beharbada horrenbeste jende ez dela egongo adierazi digute, baina esan digute egun horretan kalera ateratzen direnean ikusten dutela jendeak gustuko duela errementari-dantza, asteburuan izan edo astean zehar izanda ere jende askok ikusten duela.

Errementarien burdinaren eta dragoiaren kondairan oinarritutako dantzarekin gozatu nahi dutenek herriko kaleetara eta gero plazara egin beharko dute jira martitzen gauean, suaren bueltan musika lagun dantzariak ikusi ahal izateko.

Aldape Taberna Jatetxea
(Batzokia)
ONDO PASAU SAN JUANETAN!
Eguneko menua, asteburuetako menu bereziak, despedidak, banketeak, eta abar.
Iturriotz 41. ARRASATE
Tel.: 943 79 63 69


Calcinor
QUÍMICA NATURAL

Grupo Amantegi

Kanpazar
Kobate
harrobiak

*Ondo pasau San Juanetako jaixetan*

**ERAIKUNTZARAKO MOTA GUZTIETAKO HARRIAK ETA HORMIGOIAK**

**KANPANZAR HARROBIA S.A.**
Meatz-Erreka auzoa 21
ARRASATE 20500
Tel.: 943 77 10 83
Faxa: 943 77 00 25

**KOBATE KAROBIA ETA HARROBIA S.L.**
Garagartza auzoa 52
ARRASATE 20500
Tel.: 943 71 24 03
Faxa: 943 77 02 51



*Iker, zure irribarreak gurekin jarraitzen du*

ekide

DRAGOI JANA

Herriko Plaza
**Eguaztena 21:00**
Dragoi-txuletak jateko helburuarekin plazan batuko dira herritarrak.

# Dragoi-txuletak egongo dira 400 pertsonendako

## Jendetza handia biltzen duen ospakizuna izanda, oihartzun handia du herritarren artean

JASONE ZABALA

**Antolatzaileak festari azken ukituak ematen dabiltzan bitartean, afarirako txartelak salgai jarri dituzte Arrasaten. Sardexkak prestatzen eta labanak zorrozten hasi dira herritarrak.**

Urtero legez, San Juan egunean Dragoi Jana egingo da aurten ere Herriko Plazan. AEK eta AED elkarteek elkarlanean antolatzen duten ospakizunean jendetza handia elkartzen da: "400 pertsonarendako afaria prestatuko dugu", dio AEDko Jon Azkoagak. Partaide asko eta giro ezin hobea herriarekin horren harreman estua duen dragoiaren txuletak dastatzeko.

Urtetan ekitaldi arrakastatsua izan da, jaietako egitarauan pisu handia hartu duena. Duela 13 urte inguru ospatzen hasi zela esan digu AEDko Jon Azkoagak: "Jaiak euskaldutzeko asmoarekin hasiko zela pentsatzen dut, eta, bide batez, afaria plazan eginda, kutsu herrikoia eman zaio ospakizunari".

**"SORPRESATXOAK" AFARIAN**

Zozketek, txiste kontalariek eta kantuek afariko giroa alaitu dute urtero eta aurten ere horrela izango dela jakinarazi dute. Oraindik berezitasunik egongo den ez dakite, baina "sorpresatxoak" egongo direla aurreratu digute. Boluntario kopuru finkoak laguntzen du– 15 inguru– ospakizuna aurrera eramaten: "Lan handia izaten da egunean bertan", esan digu Azkoagak.

**Afaria 21:00etan hasiko da, plazan; euria eginez gero, Uarkapera aldatuko da**



400 lagun inguru elkartzen dira urtero Dragoi Jana ospatzeko. AED

### Txartelak salgai Dragoi Janerako

**Dragoi Janerako txartelak erosi nahi dituenak Monte, Irati eta Kajoi tabernetan izango ditu salgai, eta baita AED eta AEK elkarteetan ere. 12 euroko prezioa dute eta menua ohikoa izango da.**

**Dragoi-txuleta izango da menuan eta piperrekin batera jan ahal izango da. Dragoi haragiarekin betetzen ez direnendako postrea egongo da eta edaririk ere ez da faltako.**

**21:00etan batuko dira arrasatearrak Herriko Plazan eta amaitzeko ordu zehatzik ez egon arren, 23:00 aldean bukatuko da su artifizialak ikusteko. Giro onean afaldu eta gero, jaiaz gozatzen jarraitzeko ordu bikaina.**



kapikua
OPARIAK ETA OSAGARRIAK
San Juan jai zoriontsuak denoi!
Doctor Bañez 4. San Andres. Arrasate • Tel.: 943 79 19 94

Jose Antonio
ile apaindegia

Otalora 22 behea ARRASATE
Tel.: 943 79 42 10

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR
García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

ONDO PASAU JAIXAK!
ARRASATE
Maalako Errebala 27 - Tel.: 943 79 70 11
Barceló
BIDAIAK

PILOTA JAIALDIA

# Eskuz banakako 2009ko garaileak Uarkapen

## Irujo-Beroiz bikoteak Gonzalezen eta Pascualen aurka jokatuko du


Juan Martinez de Irujo, 2009ko eskuz banakako txapelduna, Uarkapen egongo da ekainaren 21ean. GOIENKARIA

JASONE ZABALA

**Ekainaren 21ean Beroiz eta Irujok elkarrekin jokatuko dute Gonzalez eta Pascualen aurka. Pilota ikuskizun ezin hobea beraz Uarkapen, 17:00etan.**

Zezen-plazan toreatzaile handiei ateak zabaltzen dizkieten moduan, datorren ekainaren 21ean Uarkapeko ate handitik bi nafar sartuko dira pilotan jokatzera, eta, gainera, 2009ko bi txapeldunak bikote izango dira: alde batetik, eskuz banakako txapelketan Aimar Olaizolaren aurka txapela irabazi berri duen Juan Martinez de Irujo (Ibero); eta, bestetik, Jokin Argoteri irabazi ostean eskuz banakako bigarren mailako txapeldun den Mikel Beroiz (Huarte).

Aurrez aurre, berriz, Sebastian Gonzalez askaindarra egongo da; azken aldian kolpea berreskuratu du eta konfidantza handiarekin dabil; atzelari lanetan, Iñigo Pascual abartzutzarra edukiko du.

Izenak ikusita, partidu gogorra izango dela ez dago dudarik, baina aurrelariek horrela nahi izan beharko dute; bestela, aurrelarien joko azkarrak, bote prontoan eramandako pilotek, bi pareta azkarrek... atzelariak begira utziko dituzte. Baina Gonzalezek badaki ezin duela lana aurreko koadroetarako utzi, Beroizi lanak eman beharko dizkio eta ahal duen guztietan pilota atzeko koadroetan mantendu partidua aurrera atera nahi badu; Beroizek, bestalde, bere dohainak erakutsi nahi izango ditu eta guztiei erakutsi nahi izango die zergatik den eskuz banakako bigarren mailako txapelduna.

**Aurreko koadroetako jokoa azkarra eta bizia izango da**

**Sarrerak aldez aurretik erosi ahal izango dira eta 20 euro balio dute**

### LEHEN PARTIDUA

Baina partidu interesgarri horren aurretik beste lehen partidu bat egongo da: Del Rey errioxarra eta Galartza VI.a bizkaitarrak Aritz Lasa eta Arruti gipuzkoarren aurka jokatuko dutena. Partidu interesgarria hauxe.

### SARRERAK SALGAI

San Juanetako pilota jaialdiko sarrerak 20 eurotan izango dira salgai.

Eta sarrerak lortu nahi dituenak bi aukera ditu: alde batetik, aldez aurretik egin ditzake erreserbak ondorengo telefono zenbakira deituta: 667 48 72 73; bestela, egunean bertan ere erosi ahal izango dira sarrerak Uarkapeko leihatilan; partiduak 17:00etan hasiko dira eta Uarkapeko leihatilak ordubete lehenago zabalduko dituzte.

NATUR HOUSE
Dietetika eta Elikadura
Jai zoriontsuak!!!
KONTSULTA DOHAINIK
Zatoz eta konpromisorik gabe galdetu.
EDURNE ARKAUZ
Dietetika eta Elikaduran Diplomatua
Maalako Errabala 6, ARRASATE Tel.: 943.79.04.34


PATRICIA
CLARKS
MASCARÓ
24 HRS
HISPANITAS
LODI
URSULA
PAN
CATS
KOLLFLEX
WONDERS
GEORGES
LUPO
STONFLY
BRUNO PREMI
BARRAS
OINETAKOAK
Yoar
Biteri 13 • ARRASATE • 943 79 21 71
Barrenkalea 9 • BERGARA • 943 76 22 86


Izozkitegia
Gozotegia
Italiar izozkitegia
Kafetegia
San Juan jai zoriontsuak!
Iturriotz 7 • Tel.: 943 79 81 68 • ARRASATE

JOSE MARI SALEGI
HARATEGI · URDAITEGIA
Euskal okela, bertan egindako txorizoa eta janari prestatuak
Olarte kalea 20
ARRASATE
Ondo pasatu
San Juan jaiak!




AENOR
Empresa Erregistratua
ER-0238/2/97

ferrovial

GESTION AMBIENTAL ISO 14001 SGS

CESPA

- Estolderien eta putzu septikoen garbitzea
- Fatxaden, pintaden, eta abarren garbitzea
- Kale garbiketa, zabor bilketa, Lorezaintza

Ondo pasa jaixetan!

**Santalaitz 6 behea 2 - BERGARA Tel: 943 76 17 56 - Faxa: 943 76 05 88**
***mondragon_cespa@cespa.es***


UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
arotz lanak orokorrean
leihoak
ateak
horma-armairuak
K21
Ondo pasa
San Juan jaietan!
altzari denda
ikerleku zeharbidea · bergara
tel.: 943 03 46 30
erakusketa eta tailerra
san juan 1a · bergara
tel.: 943 76 54 91
faxa: 943 76 08 04


GOIERA
ERAIKUNTZAK
Zure proiektuak diseinatu eta eraikitzen ditugu
• barne - berritzeak • gremioen koordinazioa • igeltserotza
• enkofratuak • proiektuak • teilatuak • fatxadak • igogailuak
615 75 11 47
ONDO PASA SAN JUANETAN!
Udalpe kalea 12, behea 20.500 Arrasate

TXOSNA BATZORDEA

# Askotariko ekitaldiak egingo dituzte txosnetan

**Besteak beste, herri-grafitia, film pornoen bikoizketa, capoeira erakustaldia, kontzertuak eta boulder txapelketa egingo dituzte**



Iazko San Juanetan soka-tiran jardun zuten koadrilek.
JOSETXO ARANTZABAL

MIREIA BIKUÑA

**Txosna batzordeak lan itzela egin du azken asteotan sanjuanetako egitaraua lotzeko; aukera asko ematen ditu.**

Iazko egitarauak gazteen eta herritarren artean izandako erantzuna ikusirik, iazko ekitaldi batzuk errepikatzea erabaki dute Txosna batzordeko kideek. Besteak beste, eguaztenean film pornoen II. bikoizketa lehiaketa egingo dute.

**URREZKO DRAGOIA**

Baina txosnetako egitarauak duen bitxikerietako bat gonbidatu dituzten pertsonaia ezagunen zerrenda da: hain zuzen ere, *Barak Obama, Rodolfo Chiquilicuatre, Rafaela Carra* eta *Camela* taldea egongo dira. *Obama*-k txosnetako egitarauari hasiera emango dio, eta gainerako *famosoek* karaokean parte hartuko dute eguaztenean.

Egitarauko azken ekitaldia Urrezko Dragoiaren banaketa izango da. Eguba-koitzean 03:00etan banatuko dute eta jaietako parrandazale handienak jasoko du.

## Txosnetako egitaraua

**MARTITZENA**
Koadrilen eguna.
**12:00:** Txupinazioa Ferrerias plazan. **14:30:** Herri bazkaria gaztetxean. **17:30:** Txopo-teoa Maalatik hasita. **19:00:** Makalaren igoera. **23:00:** Kontzertua txosnetan: Decepcion Rock, Paraplegia eta El Matadero.

**EGUAZTENA**
Koadrilako gaupaseroen eguna.
**08:00:** Txokolate-jana elizapean. **08:45:** Dultzaineroekin kalejira. **18:00:** Film pornoen bikoizketa. **20:00:** Pintxo dastatzea gaztetxean. **22:00:** Karaokea txosnetan. **00:00:** *Hiru haundixak* mendi martxa.

**EGUENA**
Gazte eguna.
**12:00:** Grafiti herrikoia. **18:00:** Krisi-probak txosnetan. Ondoren antzerkia. **18:00:** Krisiaren aurkako jokoak gaztetxean. **18:00-20:00:** Krisiaren aurkako orduak txosnetan: edariak merkeago eta sorpresak. **22:00:** Kontzertua txosnetan: Last Rebels, The Motherfuckers eta Radio Dead Ones.

**EGUBAKOITZA**
Uhin kitzikatzaileen eguna.
**11:00:** Baserritarrekin elkartasuna: denok merkatura! **12:00:** Hausnarketa herrikoia: *Ligatzerako orduan, krisia zergatik?*. **17:30:** Trikipoteoa: Laixa eta Landaminelli eta Imuntzia eta Beloki unplugged. **19:00:** Irratiaren aurkezpena gaztetxean. **20:00:** Antzerkia gaztetxean. **21:00:** Capoeira erakustaldia. **22:00:** Kontzertua Monterronen: Los Galerna eta Ekon.

**ZAPATUA**
**11:00:** Boulder txapelketa. **18:00:** Txaranga poteoa Dragoialde txarangarekin. **23:00:** Kontzertua txosnetan: Muskaria eta beste talde bat. **01:00:** *Kamejame* txapelketa gaztetxean. **03:00:** Urrezko Dragoia banatuko dute txosnetan.




ANE LASAGABASTER
HORTZ KLINIKA

- Odontologia orokorra
- Periodontzia eta inplantologia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Ezarpenak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Otalora 18 solairuartea B • Tel.: 943 79 13 68
20500 Arrasate

Goizez eta arratsaldez irekita

ELKARRIZKETA | PIRRITX, PORROTX ETA MARI MOTOTS | PAILAZOAK

# "Benetako altxorra gure ezpainetan dugu"

JASONE ZABALA

**Euskal Herriko pailazorik ezagunenak datoz aurten berriz ere San Juan jaietara. Haiekin egin dugu berba, Arrasatera ekarriko duten ikuskizunaz.**



Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsek *Piratak* ikuskizuna eskainiko dute ekainaren 25ean. KATXIPORRETA

***Piratak* ikuskizuna egingo duzue San Juan jaitan; baina zer da *Piratak*?**

Mari Motots gaixorik zegoen piratatxo bat zen. Dagoeneko Mari Motots osatu zaigu, mototsak berriz atera zaizkio eta iaz jolasa zena orain errealitate bihurtu nahi dugu eta euskal pirata bihurri bihurtu.

Denok amestu dugu txikitan pirata izatearen abenturarekin; pirata izatea abentura ikaragarria delako, askatasuna delako... Ospitaleko ohea ospitalean utzi dugu, eta orain, itsasontzia hartuta pirata izateko frogak gainditzea da helburua; horretarako, Kattalin euskal pirata izango dugu. Piratak izateko gonbita egiten diegu haur zein gurasoei.

**Hortaz, Arrasateko eta inguruko neska-mutiko guztiak daude gonbidatuta ikuskizunera, ezta?**

Gainera, altxor bat bilatuko dugu, eta baita aurkitu ere; guk beti diogu altxorrik baliotsuena ez dela lurpean gorderik dagoen horietakoa, benetako altxorra gure ezpainetan dugu eta erabiltzen denean hartzen du bere benetako balioa. Muxua izan daiteke, eman eta jaso egin behar delako ezpainetik ezpainera, edo euskara ere izan daiteke, hori ere eman eta jaso egin behar delako. Horiek dira euskaldunok ditugun benetako altxorrak, koloretako mundu bati gure kolorea emateko.

**"Denok amestu dugu noizbait pirata izatearen abenturarekin"**

**Nolakoak dira Debagoieneko haurrak?**

Haurrak dira irudimenaren inurriak; irudimena bizi dute, ametsak egia bihurtzeko jolasten dira, euskaraz, elkarlanean. Heldu askok haurrei begiratzeko hartu beharko genuke denbora bat, haiengandik ikasteko.

**"Haurrak irudimenaren inurriak dira; irudimena bizi dute"**

**Gurasoak ere joaten dira zuen ikuskizunetara.**

Bai, hala da.Emozionalki garrantzitsua da. Askotan galdetu izan digute ea non dagoen gure lanaren sekretua. Pailazoarena egiten dugunean ez ditugu barre algarak bakarrik eskaintzen, sentimenduak ere jartzen ditugu dantzan, irribarreak sortu, maitasuna, eskuzabaltasuna, herri baten parte garela sentitu...

**Noiz arte jarraituko duzue *Piratak* ikuskizunarekin?**

Azarora arte jarraitzeko asmoa daukagu. Baina bagaude beste ikuskizun bat prestatzen, abestietan, dantzan, komunikazioan eta parte-hartzean oinarritutakoa.

Ondo pasa jaiak!
tipi tapa
Umeentzako oinetakoak eta abar...
Otalora Lizentziatua 21- ARRASATE
Tel.: 943 79 67 78

ZABALA
oinetakoak
60 urtean elkarrekin ibili gara
Erdiko kalea 18
Tel.: 943 79 14 27

MENDIZABAL OKINDEGIA

ONDO PASAU SAN JUANETAN!
Sebero Altube 2
ARRASATE
Tel.: 943 79 89 60


Tapiceria AINUR
Tapizatu lanak
Sofak,
Besaulkiak,
Aulkiak,
...
Garro Jenerala kalea 2
Kontsulta gaitzazu:
680 826 555 - 943 791 943 telefonoetan

ARPE
Ile apaindegiko artikuluak
• Kalitate onena, prezio ezin hobean.
• Aholkularitza.
• Konfiantzazko denda.
Kontzeziño 4 behea ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE


Eraman dotoretasuna zure etxera
gelatzu s.l.
Zubillaga auzoa 1 OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51


Euren jaiegunetan
Boulevarden dibertitzen diren guztiak
mimatzen ditugu
Donibane on!
Dibertsioz beterik. ZUTAZ beterik
el Boulevard de Vitoria-Gasteiz
LEROY MERLIN
MediaMarkt
EROSKI zurekin
Markarik onenak, familia osoarentzat. Modako, elektronikako eta etxeko zure erosketa guztiak, zerbitzu eta erosotasun guztiekin. Diberti zaitez gure zinemetan, haur parkean edo bolatokian. Betiere, gure jatetxeetako ahogozo ederrarekin.
Arrasatetik 15 minutura
www.el-boulevard.com
Bezeroentzako arreta zerbitzua:
945 155 440

# SAN JUANETAN EZ GAZ DANOK!


KEPA URRA


JON AGIRRE


JOSU URIBETXEBARRIA


LUIS MARI AZKARGORTA


PREMIN SANPEDRO


TXUS GOIKOETXEA


JOSU ARKAUZ


UNAI PAROT


ARATZ GOMEZ


JOSE I. GAZTAÑAGA


JESUS MARI ZABARTE


JOSE GABRIEL URIZAR


IGOR LETONA


KRISTINA GOIRIZELAIA


ERREFUXIATUAK

EUSKAL PRESOAK
EUSKAL HERRIRA

# ETXEAN NAHI DITUGU!

Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:
**Basati, Ekaitz, Iluntz, Irati, Muxibar, Txondorra, Taupa eta Gure Leku.**

UMEEN EGUNA

# Eguzkilaruren izpiak alaituko ditu ume guztiak

**Umeendako ekitaldi mordoa antolatu ditu Txatxilipurdi elkarteak ekainaren 25erako**

Zaldibarko frontoia

**Eguena, egun osoz**

Umeen parkea eta tailerrak izango dira 10:30etik 13:30era eta 16:30etik 18:30era

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Ekainaren 25ean Umeen Eguna izango da jaietan. Txatxilipudi elkarteak egitarau berezia gertatu du umeen eta Eguzkilaruren inguruan.**

Sanjuanetan eguraldiari adi egon barik badakigu, euria egin arren, Eguzkilaru gertu izango dela ekainaren 25ean, eguenean, bere izpiekin jai giroa berotzeko eta umeen ilusioa pizteko. Eguzkilaru protagonista dela, umeendako eta gaztetxoendako jaia antolatu dute Txatxilipurdikoek egun horretarako.

**DIANA ETA KALEJIRA**

Goizean goiz umeak esnatuz eta Garibaira joan daitezen animatuz, diana egingo dute, furgonetarekin herriko kaleetan; eta umeek eta begiraleek herriko trikitilariekin Eguzkilaruri ongietorria egin ostean, 10:30erako Zaldibarrera joango dira kalejiran.



Arratsaldean, Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoen *Piratak* ikuskizuna izango da Monterronen. TXATXILIPURDI

Izan ere, Zaldibarko frontoian umeendako parkea eta tailerrak egongo dira 10:30etik 13:30era bitartean goizez eta arratsaldean 16:30etik 18:30era bitartean.

**Umeen parte-hartzea bultzatzeko, asmoz Euskaraokea eta sorkuntza tailerra antolatu dituzte, besteak beste**

Parkean, *Balance bike* zirkuitua, *Indio txirrista* puzgarria, txalupak, ludoteka puzgarria eta Euskaraokea egongo dira. Umeen parte-hartzea bultzatu egin nahi izan dute, eta, besteak beste, sorkuntza tailerrean ume denen arteko elkarlana bultzatu dute eskulanak egiteko orduan.

Parkeaz gain, Zaldibarren tailerrak izango dira: goizez, tatuaje, berrerabiltze, aurpegi margotze, ile apainketa, giltzatako eta sorkuntza tailerrak; eta arratsaldez, sorkuntza, aurpegi margotze eta ile apainketa tailerrez gain, txapena ere egongo da.

**APAR JOLASA ETA PAILAZOAK**

Eguzkilaruk nahikoa berotzerako, aparrarekin freskatu ahal izango dira umeak 13:30ean Garibain; horretarako bainujantzia eraman beharko dute.

Eguzkilaruren izpiekin berotu, busti eta jolas egin ostean, eguna borobiltzeko 19:00etan pailazokin gozatu ahal izango dute Monterronen. Pirritx eta Porrotxek *Piratak* ikuskizuna eskainiko dute.

Umeen Eguna. Herriko neska-mutikoen argitasuna eta gurasoen poztasuna. Eguzkilaruk ekarriko ditu giro ona, irribarrea eta makina bat jolas eta broma.

epele
Calderería

JOMA
Ondo pasau San Juanetan!
DIRU-KUTXAK, POSTONTZIAK, GILTZAK SAILKATZEKO ARMAIRUAK...

JOSE MARIA GALLASTEGUI Y CIA, S.A
Gipuzkoa Etorbidea, 32
20500 ARRASATE

**ELKARRIZKETA** IÑAKI GURRUTXAGA 'HARRISTI' DANBORRADAKO ARRANO ELKARTEKO ZUZENDARIA

# "Danborrada egunean ez dut afaltzeko astirik"

JASONE ZABALA

**Iñaki Gurrutxaga eskoriatzarra da, baina 20 urtetik gora daramatza Arrasateko danborradan parte hartzen. Jaia non *Harristi* hantxe aurkituko dugu beti.**

**Eskoriatzarra jaiotzez, baina duela urte askotatik arrasatear bat gehiago dirudizu...**
Zestoan jaio, Eskoriatzan bizi baina eguneko ordurik gehienak Arrasaten pasatzen ditut. 14 urterekin hasi nintzen Arrasatera egunero joaten.

**Arrasateko ekintza ezberdinetan parte hartzen duzu, ezta?**
Bai, hala da. Duela 25 urte Santamas Komisiñuen hasi nintzen eta baita Maritxu Kajoi Komisiñuen ere; bestalde, 20 urte daramatzat Ferrerias batzordean jaiak antolatzen... Jaietan beti laguntzeko gertu nago.

**Noiztik Arrasateko danborradan parte hartzen?**
Duela 20 urte baino gehiagotik nabil danborradaren saltsan. Hasieran 10 urte inguru ibili nintzen, danborrari; eta gero utzi egin nuen. Orain, lau urte daramatzat Arrano elkarteko batailoiaren zuzendari.

**Danborradako gauzarik onena eta txarrena?**
Onena elkarteen artean dagoen giroa; eta txarrena, berriz, ezustekoren bat gertatzen denean: megafonia ez dela entzuten apurtu egin delako...

> "20 urte baino gehiago nabil danborradaren saltsan; orain, zuzendari"

> "Faltan igartzen dut elkarteen banderak ateratzea"

**Azken urteetatik hona asko aldatu da danborradaren ikuskizuna?**
Aurten, adibidez, talde berri batek hartuko du parte: gaztetxeko batailoia; bestalde, herriko txarangak hartuko du parte aurten. Gainera, azken urteetatik hona emakumeen presentzia danborradan areagotu egin da.

**Nolakoak izaten dira danborrada aurreko orduak?**
Presaka ibiltzen naiz. Batailoi bakoitza leku batera joaten da afaltzera; nik afaldu ere ezin dezaket egin, aurretik dagoen errementari-dantzan ere parte hartzen dudalako.
Pintxo bat jateko astirik ere ez dit ematen! Danborrada ostean parranda egiten dugu, eta hurrengo egunean lanera!


Iñaki Gurrutxaga *Harristi*-k aurten ere ez du hutsik egingo San Juan jaietako danborradan. GOIENKARIA

**Zer igartzen duzu faltan danborradan?**
Beste urte batzuekin alderatuz, lehengo urteetan elkarte bakoitzak bere bandera ateratzen zuen danborradan; 18 edo 20 bandera izaten ziren; orain dagoeneko hori desagertuta dago, ez da halakorik egiten. Polita izango litzateke hori berreskuratzea, elkarte bakoitzak danborrada antolatzeko egiten duen lana handia izaten da urte osoan zehar, eta hori guztia baloratu egin behar da.

King's
Ile apaindegia
Ondo pasau jaietan!
Zarugalde 23. ARRASATE
Tel.: 943 79 84 88


Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76


kuadroak eta markogintza
ARTE LENIZ
Ondo pasau jaixak!
Leintzibar 4, ARRASATE Tel.: 943 79 37 64

JON
PORTALOIKO LIBURU ETA PRENTSA DENDA
Ondo pasatu San Juanak!

Erdiko kale 9 • 943 79 34 37

erreka
taberna - jatetxea
Ondo ibili San Juanetan!

Zerrajera 4 behea 20500 Arrasate
Tel.: 943 53 32 72
erreka@errekajatetxea.eu

KALEJIRA MEXIKARRA

# Dolores San Juan eta haren mariatxiarekin Mexikoraino

Kalean

**Eguaztenean, 19:30ean**

Mexikotik etorritako doinuek herriko kaleak alaituko dituzte.

## Kalejira egingo dute herriko kaleetan zehar mariatxiak eskainiz San Juan egunean

JASONE ZABALA

**Mexikoko doinuak Arrasatera etorriko dira San Juan egunez. Kalez kale ibiliko dira, mariatxiak eta beste doinu mexikar batzuk abestuz. Eguaztenean 19:30ean hasiko da.**



Dolores San Juan y El Marachi Tequileño taldea oso ezaguna da Mexikon. LATINCOLOURS

Pasa den urtean Viva Jalisco taldea izan zen San Juan egunean herriko kaleak alaitu zituen taldea. Jendearen parte-hartzea handia izan zen eta, gainera, doinu mexikarrak atsegin dituzte arrasatearrek eta beste herri batzuetatik etortzen direnek.

Horregatik, aurten ere beste talde mexikar bat ekartzea erabaki dute: Dolores San Juan y el Mariachi Tequileño taldea.

**2000. URTEAN SORTUA**

Talde mexikarra duela bederatzi urte sortu zen Mexikoko Guadalajara hirian. Zazpi kidek osatzen dute taldea: zazpi musikariz osatutako taldea eta Dolores San Juan abeslaria. Euren helburua beti izan da Mexikoko musika eta abesti tradizionalak batu eta mundu osoan zabaltzen saiatzea. Batez ere Mexikoko mariatxi doinu tradizionalak; gainera, hainbat modu ezberdinetako soinuak eskainita: doinuak, huapangoak, korridoak, eta abar.

**KALITATE BIKAINA**

Gaur egun Mexiko aldean garrantzi handia duen taldea da. Adituek diotenaren arabera, kalitatea handia daukan taldea da eta euren zuzenekoak ikaragarriak dira.

Azken zortzi urteetan mundu osoan ibili dira kontzertuak eskainiz (Australia 2007, Kuba 2006, Suitza, Espainia, Frantzia eta Belgika 2005 eta Alemania 2004). Horrez gain, Mexikoko estatu guztietan ere ibili dira. Eta, besteak beste, Juan Carlos Espainiako erregeari eta Jacques Chiraci Vicente Foxek egin zien harrera ofizialetan abestu zuten.

**Talde mexikarra duela bederatzi urte sortu zen Guadalajara hirian; zazpi kidek osatzen dute**

**Mexikoko musika eta abesti tradizionalak batu eta mundu osoan zabaltzea da helburua**



SU ARTIFIZIALEN IKUSKIZUNA

# Arrasateko zerua kolorez beteko da San Juan gauean

**Astondoa piroteknia arduratuko da, beste behin, Santa Barbaratik suak botatzeaz; aurtengoarekin 30 urte dira dagoeneko**

Santa Barbaratik

**Eguaztenean, 23:00etan**

Astondoa piroteknia enpresaren eskutik su artifizial ikusgarriak izango dira.

JASONE ZABALA

**Aurten ere Astondoa enpresa arduratuko da San Juanetako su artifizialen ikuskizunaz. Hala, kokalekuaz eta prestakuntzaz-eta hitz egin dugu arduradunekin.**

Areantzako Astondoa piroteknia enpresak 30 urte daramatza San Juan jaietan su artifizialen ikuskizuna eskaintzen Arrasaten. Baina herrietako jaietarako ez ezik, beste ospakizun batzuetarako ere saltzen dituzte petardo, suziri eta bestelakoak.

Arrasaten, Santa Barbara parketik botatzen dira su artifizialak. Astondoa pirotekniako arduradun Izaskun Astondoak hauxe adierazi digu: "Suak botatzeko eremuak aurrez ikuskatzen dituzte gure teknikariek; kontuan hartzen dira, besteak beste, material aldetik eta fisikoki egon daitezkeen arriskuak, guneko sarrerak eta, azkenik, ikusleek suak ondo ikus ditzaten kokaleku zehatza ere garrantzitsua da". Gainera, esan digu Santa Barbaran dauden zuhaitzen altuerak sor ditzakeen eragozpenak ekiditeko, altuera handiagoa hartzen duten su artifizialak erabiltzen dituztela.

> **"Su guztien muntaia lanak hiru hilabete inguru iraun dezake"**

### HIRU HILABETEKO LANA

Halako ikuskizun bat antolatzeko, fase ezberdinak hartu behar dira kontuan, Astondoaren iritziz: "Alde batetik, ikuskizunean botako diren su motak hautatu; bestalde, biltegian egon ez eta erabili nahi diren su horiek egitea; ondoren, suak lantegian prestatu; eta azkenik, su guztien muntaia egin. Azken horrek hiru hilabeteko lana dakar".

Horrekin batera, Astondoa pirotekniakoak Bilboko Aste Nagusian ere egongo dira eta irailean Berlinera joango dira.



Aurtengoarekin 30. aldia izango da Astondoa Arrasateko zerua koloreztatzen. IMANOL SORIANO

Carrascal Caroztegia

SUKALDEKO ALTZARIAK
HORMA-ARMAIRUAK
BESTELAKO ARMAIRUAK

EKUTIO KALEA 4, 14-15 PAB.
URIBARRI AUZOA
20500 ARRASATE
Tel./fax.: 943 79 01 82
scarrasc_@infonegocio.com

Zeure neurrira, zeure gustura









ONDO PASA SAN JUANAK!

# Gora San Juan sua!

*Soilik erakunde bizi eta dinamikoek
egoera berriei egokitzeko ahalmena dute,
forma ezberdinak hartuz. Zelulak, kasu,
euren artean batu egiten dira,
ehun sendoak osatuz.
Horrelakoak dira, baita ere,
jaietako su eta etxafuegoak...
banan banan indar gutxi,
baina denak batera
nola egiten duten dirdira!*

goi solutions

azk

test

Branding eta Komunikazioa

Arrasate - Mondragón
Osiñaga 2, 1º
20500 Arrasate - Mondragón
Tel.: 943 712 108 Fax: 943 712 132

Vitoria - Gasteiz
Boulevard de Salburua 8, Torre 14, 3ºB
01002 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 334 122 Fax: 945 334 557

Bilbao
Lotería 2, 1º dcha.
48005 Bilbao
Tel.: 944 157 326 Fax: 944 157 326

www.yellowing.net



EA

**Jaietan bizi, disfrutatu eta parte hartu**

**ZORIONAK ARRASATEAR GUZTIOI**

**Arrasateko Eusko Alkartasuna**

ELKARRIZKETA | NAIA BAILEZ | SAN JUANETAKO KARTEL LEHIAKETAREN IRABAZLEA

# "San Juan suaren inguruan neukan ideia, ikur garrantzitsua da-eta"

JASONE ZABALA

**San Juanetan ikur garrantzitsua den San Juan suaren inguruan eta errementari-dantza egiten, herritarren parte-hartzea islatzen duen kartelarekin irabazi du Naia Bailez aramaioarrak aurtengo kartel lehiaketa.**

**Nola egin duzu kartela eta nondik sortu zaizu ideia?**

Ideia San Juan suaren inguruan neukan, ikur garrantzitsua iruditzen zitzaidan; eta, nola ez, errementari-dantza, herritarren parte-hartzea nabarmentzen du-eta. Horrenbestez, bi irudiak bateratuz egin nuen.

**Buelta batzuk eman dizkiozu buruari kartela egin aurretik, ezta?**

Bai kartel honi eta baita beste guztiei ere buelta pare bat baino gehiago eman behar izan diet, benetan islatu nahi nuen hori lortzeko.

**Noiz hasi zinen kartela egiten?**

Astebete inguru emango nuen lanean, bai kartel hau egiten eta baita besteak egiten ere.

**Aurrez aurkeztu dituzu lanak lehiaketetara?**

Arrasateko jaietarako lehenengo aldiz aurkeztu dut, baina beti ibili naiz Aramaioko kartel lehiaketetan parte hartzen, eta esaten didaten edozeinetara ere animatzen naiz, margotzea gustuko dudalako eta proba egiteagatik.

**Orain arte saririk irabazi duzu?**

Bai, badauzkat baten batzuk. Joan den urtean Zuiako Koadrilaren orri markatzaile lehiaketan bigarren geratu nintzen, eta aurten Zigoitiko Eguzki jaiaren kartel lehiaketa irabazi dut.

**Baduzu beste lehiaketaren batean parte hartzeko asmorik?**

Bai, baditut pare bat buruan; dagoeneko hasi naiz gaiak pentsatzen.



Naia Bailez aramaioarra, jaietarako egin duen kartelarekin. UBANE MADERA

> "Ideia San Juan suaren inguruan neukan eta, nola ez, errementari-dantza, herritarren parte-hartzea nabarmentzen du-eta"

CANAS - ESTEBAN
ERAIKUNTZAK
San Juan jai zoriontsuak arrasatear guztioi!
Uribarri kalea 20 behea. ARRASATE. Tel.: 943 79 81 80 / 943 77 11 63. Faxa: 943 79 81 80

IKUSKIZUNA

# Ilargiaren amodio istorioak Zirika Zirkusekin

## San Juan bezperan izango da ikuskizuna, Herriko Plazan (17:00)



*Ilargian* ikuskizunean Bolintxeren erromantikotasuna agerian geldituko da. ZIRIKA ZIRKUS

JASONE ZABALA

**"Zirkuaren mundua ikusleei hurbiltzea", horixe izango da 'Ilargian' ikuskizunaren helburua.**

Zirika Zirkus taldeak San Juan bezperan *Ilargian* ikuskizuna aurkeztuko du Herriko Plazan.

**HIRU KIDE EGUZKI SISTEMAN**

Zirika Zirkus taldea hiru kidek osatzen dute: Luis Lainez (Bolintxe Zalaparta), Ainhoa Juaniz (Loretsu Traketsu) eta Maribel Martinezek (Krispeta Motoreta).

*Ilargian* ikuskizunean, Bolintxeren erromantikotasuna agerian gelditzen da, eta haren helburua izango da ilargiari lore sorta bat opari egitea; Krispetak eta Loretsuk, baina, Bolintxe despistatua dela ikusita, ez dute bakarrik utziko lan horretan.

**Zirika Zirkus taldea 2003. urtean sortu zen; hiru kidek osatzen dute**

**'Ilargian' ikuskizunak ikusleak zirkura hurbiltzea du helburu**

Ikuskizunean, orekarako baloi handiak, baloi puzgarriak eta akrobaziak egingo dituzte, besteak beste. Ikuskizunaren helburua, Juanizek adierazi digun moduan, "ongi pasatzea eta ikusleak zirkuaren munduan murgiltzea da; eta horrekin batera, eguzki sistemari ere errepasoa egiten diogu".



**SEGWAYA**

# Bide mota askotan dabilen ibilgailu ekologikoa

## Dean Kemenek sortu zuen ibilgailua 2001ean AEBetan

JASONE ZABALA

**Ekainaren 26an segway izeneko ibilgailu berrian ibiltzeko aukera izango du Biteri plazara joaten den edonork, eguerdiko hamabietatik aurrera.**

Segway HTa (Segway Human Transporter) garraiobide berria da. Gurean errotzeko asmoz, Eskoriatzako En-Medio enpresak ibilgailu horiek erabiltzeko aukera emango dio San Juan jaietan nahi duen edonori. Ibilgailua Dean Kamenek sortu zuen 2001ean, eta bi urte geroago Europa aldera zabaldu zen ibilgailu horren merkatua. Enpresako arduradun Juanma Gayk adierazi digun moduan, "helburua ibilgailu ekologiko hau jendeari ezagutzera ematea da".

> **"Helburua ibilgailu ekologiko hau ezagutzera ematea da"**

### BIDE MOTA ASKOTAN

Gayk adierazi digunez, aparailu berri hori edozein bidetatik joan daiteke: aldapak igo, hondartzako harean ibili, elurretan...

"Oreka sistema berezi bat dauka. Segwayak giroskopio solidoak, mugimendu sentsoreak, abiadura handiko mikroprozesadoreak eta motor elektriko indartsuak ditu, eta horiek guztiek ibilgailuaren oreka bermatzen dute. Segwayak ez du kutsatzen eta garbia da".



Segway ibilgailua Europan errotzen hasi zen 2003an. EN-MEDIO




ERREALITATE HAUNDITUA
Sartu ***www.c3picasso.com***-en eta bizi esperientzia berri bat 3D-n. Oso gertutik ikusteko nahia eta webcam bat besterik ez duzu behar.

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

Citroën-ek beste behin bere abanguardia teknologikoaren beste proba bat dakar, monobolumen konpaktoen unibertsoa aldatuko duen kontzeptu berri bat sortuz. Citroen C3 Picasso berria, SPACEBOXa, mundua ezagutzeko edo bertan dagoen guztia gordetzeko leku paregabea da. Bere barnea benetan haundia da eta 3 zati dituen haizetako panoramikoa, bere segmentuan ikuspen haundiena duena da. Momentuko beharretara egokitzeko ikaragarrizko gaitasuna eta modularitatea du. Iraultzailea eta argia da, abanguardiaren eta berrikuntzaren adibidea da. Igo eta esperientziaz bete ezazu. Ongi etorri espaziora.

Etor zaitez ikustera: Debagoieneko Citroën zerbitzu ofizial bakarra:
**TALLERES CHAPIME S.C.L.** - San Andres 5 Tel.: 943 79 45 22 - ARRASATE




ilusiorako bost arrazoi

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

BEREYA elektrizitatea

K21 KALITATEA Empresa Registrada Nº 3/02/003 Nivel 3

• ALARMAK. TB. SATELITEAK
• ANTENA KOLEKTIBOAK
• PROIEKTUAK ETA GARAPENAK
• TB ZERBITZU TEKNIKOA
• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
• SOINU INSTALAZIOAK
• KONPONKETAK OROKORREAN
• ATEZAIN AUTOMATIKOAK
• TDT ANTENAK (Lurreko telebista digitala)




Ondo pasau San Juanetan!

Etxagibel Notarioa 1 - 2. Pab - ARRASATE Tel.: 943 79 13 79 / 670 08 34 10 Faxa.: 943 77 15 34

KONTZERTUA

# Big Band-en eskutik jazz doinuak izango dira nagusi

**Taldea 23 kidek osatzen dute eta 2000. urtean sortu zen Jose Ramon Elkororen eskutik**

Monterron

**Egubakoitzean, 22:30ean**

Arrasate Musikaleko Big Band taldeak jazz estiloko musika eskainiko du.



Big Bandek emanaldia egingo du hilaren 19an, Monterronen. ARRASATE MUSIKAL

JASONE ZABALA

**San Juan jaien atarian kontzertua egongo da Monterronen. Arrasate Musikaleko Big Band taldeak ekainaren 19an eskainiko du, 22:30ean.**

Arrasate Musikalen sortu zen Big Band taldea 2000. urtean. Lehen zuzendaria Jose Ramon Elkoro izan zen, perkusioko irakaslea. Orain, berriz, Zigor Martinez ari da zuzendari lanak egiten.

Eskolako ikasle eta irakasleek osatzen dute taldea eta gaur egun 23 lagun dira taldean: bost tronpeta-jotzaile, lau tronboi-jotzaile, sei saxofoi-jotzaile, bateria-jotzailea, perkusioa, baxu-jotzailea, gitarra-jotzailea, piano-jotzailea, abeslaria eta zuzendaria. Musika estiloari dagokionez, jazz musikaren inguruko estilo guztiak jorratzen dituzte: bluesa, jazza, latindarra, funkya... "Jendeak gustuko duen musika estiloa da, abesti ezagunen bertsioak egiten ditugulako", adierazi digu Martinezek. Egitarauari dagokionez, Zigor Martinez zuzendariak hauxe adierazi digu: "Aurten lan handia egin dugu; horregatik, aurten egin ditugun abesti berri batzuk eskainiko ditugu, eta baita joan den urteko batzuk ere". Denera 12 abesti inguru izango direla esan digu: "Lau abesti ahotsak lagunduta izango dira eta besteak instrumentalak izango dira".

**Aurten lehen aldiz San Juan jaietan eskainiko dute kontzertua**

### AURTEN, SANJUANETAN

Normalean Sanjuanen ostean eskaintzen zuten kontzertua, baina aurten, Martinezek adierazi digun moduan, "epe horretan ikasle asko kanpora joaten dira ingelesa ikastera, udalekutara... eta taldean jendea falta izaten da; Udalarekin hitz egin ostean, San Juanen atarian egitea erabaki da eta hilaren 19an joko dugu Monterronen".




Paraje eder
baten kokatua
Razio hotzak ardo bereziarekin dastatzeko aukera bikaina
Bazkaria hasteko beste modu berezi bat
• Menu bereziak
aukeran: 18 €
• Karta
Arteaga
Landetxea
Arteaga baserria
Garagartza auzoa, 37 zenbakia
20500 Arrasate • Gipuzkoa
Tel.: 943 71 18 81
Faxa: 943 71 18 82
ONDO PASA JAIAK!


CONSTRUCCIONES ALKESA, S.L.
ONDO PASA
SAN JUANAK!
TEILATUAK (ESTALKIAK),
FATXADAK ETA EGITURAK
ZAHARBERRITZEAK ETA
BIRGAITZEAK
ERAIKUNTZAK
ERA GUZTIETAKO
ERAIKUNTZA LANAK
PROMOZIOAK
IGOGAILUAK
Santa Marina 40-42 behea
20500 ARRASATE
Tel./Faxa: 943 77 13 27
Mugikorra: 639 82 83 32
alkesa@infonegocio.com

TXOSNETAKO KONTZERTUAK

# Debagoieneko doinuak entzungo dira jaietan

**Aurtengo San Juanetan egubakoitzeko kontzertua izango da Monterronen: Los Galerna, Bitter Honey eta Ekon Arrasateko taldeekin; txosnagunean, Debagoieneko zein Alemaniako taldeek joko dute**

Txosnagunean

**Martitzenetik egubakoitzera**

Kondekuan, txosnagunean, izango dira kontzertuak gauez eta arratsaldez.

## 23 martitzena

Hiru talde izango dira San Juan bezpera egunean, 23:00etan hasita. Txosnaguneko agertokian musika doinuz bazterrak astinduko dituzten taldeak hauek dira: Decepcion Rock, Paraplejia eta El Matadero. Decepcion Rock taldeko kideak arrasatearrak eta aretxabaletarrak dira. Hiru dira taldekideak (Igor, Jorge eta Morris), eta euren musika estiloa punk-rocka da. 2007an sortutako taldea da. Paraplejia taldea ere arrasatearra da eta haiek ere punk-rocka egiten dute; taldekideak Aitor, Kevin eta Ibai dira. Azkenik, agertokira igoko den azken taldea El Matadero da; eta haiek ere Debagoienekoak dira: Arrasateko eta Aramaioko lagunek osatzen dute; besteen moduan, punk-rocka egiten dute.



Decepcion Rock taldea duela bi urte sortu zen. DECEPCION ROCK

## 25 eguena



Radio Dead Ones taldeak punk-rocka egiten du. GOIENKARIA

Eguneko kontzertua 22:00etan hasiko da. Batetik, The Motherfuckers arrasatearrak igoko dira agertokira, eta ere joan den urtean egon ziren alemaniarrak ere: Radio Dead Ones. Hirugarren taldea Arrasateko Last Rebels izango da: taldea duela bost urte sortu zen eta street-punka egiten dute; laster aterako dute lehen diskoa. The Motherfuckers Arrasateko musikari ezagunek osatzen dute, gehienak oi! edo street-punk eszenakoak. Radio Dead Ones taldeak punk-rock indartsua egiten du, gitarra biziekin eta melodiak asko zainduta.



# 26 egubakoitza

Joan den urtean ez zen kontzerturik egon Monterron parkean, baina aurten egubakoitzekoa bertan izango da (22:00etan).

Hiru izango dira agertokira igoko diren taldeak. Jaietako kontzertu garrantzitsuena izango da egubakoitzekoa. Monterron parkeko agertokira Arrasateko hiru talde igoko dira: Los Galerna, Bitter Honey eta Ekon. Los Galerna talde berria da, The Five Twisters taldeko kide batzuek osatzen dute eta surf eta rock instrumentala egiten dute. AEDk aterako duen disko bilduman kantu bat grabatu dute. Bitter Honey taldeak rock-and-roll freskoa egiten du, Danbaka lehiaketan erakutsi zuten moduan. Ekon taldeak, berriz, estilo ezberdinen nahasketa egiten du: rocka, metal berria eta doinu industrialak. Duela sei urte desegin zen taldea, baina maiatzean kontzertu bira hasi zuten Bilboko Kafe Antzokian.


Ekon taldeak estilo ezberdinak nahasten ditu. OIARTSO LOS ARCOS URBINA


Los Galerna. GOIENKARIA

Taldea zazpi kidek osatzen dute: Juan Sangre (ahotsa), Yago (gitarra-jotzailea), Iñigo (baxu-jotzailea), Xabi (gitarra-jotzailea), Heloy (bateria-jotzailea), Ioni (bigarren ahotsa) eta Libe (bigarren ahotsa).

**'SALATZEN DUT'**

Orain dela zazpi urte kaleratu zuten azken diskoa: *Salatzen dut*. Kritika onak jaso zituen, eta urte eta erdi ibili ziren kontzertuak eskaintzen. Hain zuzen ere, orduko biraren barruan, Arrasateko gaztetxean ere jo zuten, 2003an.

# 27 zapatua

Azkeneko egunean Muskaria talde arrasatearra izango da txosnaguneko agertokira igoko dena (23:00). Taldea 2006an sortu zuten eta 70eko hamarkadako rocka maite dute: Deep Purple, Black Sabbath, Led Zeppelin eta beste. Euskaraz abesten dute, eta, Muskariako kideek esaten duten moduan, abestietako "gaiak protesta, mitologia eta parranda dira, orokorrean". Eta beste talde bat ere egongo da agertokian, baina antolatzaileek azken momentura arte ez dute esango zein den talde hori.

Kontzertuen azken egun honetan, gainera, aurtengo Urrezko Dragoia emango dute. Hain zuzen ere, sari hori jaietan parte-hartzaileena izan denari emango diote; jaiak gehien alaitu dituen pertsonari, alegia.


Muskaria talde arrasatearrak euskaraz abesten ditu 70eko hamarkadako rock doinuak. MUSKARIA



NAGUSIEN EGUNA

# San Juan egunean nagusiak dira omendutakoak

## Alkateak harrera egin ondoren luncha izango da

JASONE ZABALA

**San Juan egunean, ekainaren 24ean, ospatuko dute Nagusien Eguna. Udalak herriko nagusiak omenduko ditu, 80 urtetik gorako arrasatearrak.**

Urteroko ohitura bilakatu da San Juan jaietan 80 urtetik gorako arrasatearrak omentzea. Izan ere, San Juanetako jai egitarauaren barruan, Udalak urtero omendu nahi ditu herriko nagusiak.

Hilaren 24an egingo zaie harrera beroa Abaroara joaten direnei, eguerdi inguruan.

Joan den urtean 120 izan ziren omenduak eta Udalak uste du aurten ere kopuru horren bueltan ibiliko direla.

**LUNCHA ETA OPARIAK**

Ekitaldia 12:30ean hasiko da. Ino Galparsoro alkateak agurra egingo die Abaroara joandako herriko nagusiei. Hala, harrera ofizialean hitz batzuk eskainiko dizkie alkateak eta ondoren luncha izango dute. Bazkaria ez izan arren, nahikoa jateko eta edateko izango da guztiendako. Izan ere, askok bazkari gisa hartzen dute antolatutako luncha.

**Guztira, 80 urtetik gorako 1.210 herritar daude Arrasaten**

**Hain zuzen ere, 801 emakumezkoak dira eta 409, gizonezkoak**

Omenaldian parte hartzen dutenen artean, emakumezko nagusienak eta gizonezko nagusienak omenaldi berezia jasoko dute. Hain zuzen ere, lore sorta jasoko dute udal ordezkarien eskutik nagusienek.

Aurten ere ez dira eskuhutsik joango, guztiendako izango da-eta oparitxoa. Aurreko urteetan denetik opari egin diete: aterki txikiak, boligrafoak, giltzatakoak, eta abar. Urteroko oparia, beraz, hara joaten direnendako. Aurten ez digute aurreratu zein izango den oparia, eta, beraz, sorpresa izango da.

Kultura Sailak adierazi du hunkigarria eta polita dela urtero egiten zaien omenaldia. Gaineratu dute nagusi guztiei aukera ematen dietela omenaldian parte hartzeko.

**IZENEMATEA, HILAREN 19RA ARTE**

Interesa duten guztiek BAZen (Biztanleen Arreta Zerbitzua) eman beharko dute izena. Bi baldintza bete behar dira, ordea: 80 urtetik gora izatea eta arrasatearra izatea. Horretarako, Nortasun Agiria eraman beharko dute, aipatu bezala, BAZera. Izen emateko azken eguna ekainaren 19a izango da.

Esan behar da Arrasaten gaur egun 80 urtetik gorako 1.210 pertsona bizi direla: 801 emakume eta 409 gizon, hain zuzen ere.



Guztiendako nahi adina jan eta edana izango da Abaroan. GOIENKARIA

ESTETIKA ZENTROA
MIREN ARRIETA

- Solarium bertikala
- Solarium horizontala
- Depilazioa argizari bero eta hotzarekin
- Liftinga aparatuekin
- Brontzeatua izpi ultramorerik gabe
- Permanenteak eta betileen tindatzeak.
- Aurpegi tratamenduak
- Gorputz tratamenduak
- Manikura
- Pedikura
- Fantasiazko azazkalak
- Diodo bidezko laserra
- Zelulitisaren aurkako tratamendu kriomodelagarria
- Ezkonberrientzako bonuak
- Solariumerako bonua



Zerkaosteta 12 Tel.: 943 79 00 35 ARRASATE
Ondo pasa jaiak!

oinesku
fisioterapia . podologia
Tel.: 943 77 07 89 Zarugalde 16 behea Arrasate

**Eider Zabala Casteig** (Kolg. Zenb.: 520)
Fisioterapia
Osteopatia
R.P.G. Berreziketa postural orokorra

**Idurre Osa Salegi** (Kolg. Zenb.: 239)
Podologoa

Ondo pasa San Juanak

**IRRATI-TELEBISTA**

# Jaiak etxean, Arrasate Irratiarekin eta GOITBrekin

**Irratian San Juan bezperan hasiko dira irratsaio bereziekin eta GOITBn magazin eta erreportaje bereziak landuko dituzte**

Programazioa
**Arrasate Irratia**
Egunero
10:30 - 12:30
**GOITB**
Eguaztena, 24
19:45; barikua 26

UBANE MADERA

**Datozen egunak Arrasaten bereziak izango diren moduan, bereziak izango dira, baita ere, Arrasate Irratian eta GOITBko saioak, jaietako giroa ikus-entzuleekin elkarbizitzeko.**

San Juanetako giroa etxeraino sartu, ekitaldien nondik norakoak protagonistekin landu, jaietarako opariak zozketatu… Halakoak eta beste egingo dituzte datozen egunotan Arrasate Irratiko eta GOITBko mikrofono eta kamerek.

**107.7, JAIEN SEINALEA**

Arrasate Irratian, martitzenetik, San Juan bezperatik hasiko dira jai-giroa barreiatzen, jaien estreinaldiko asteburuko kontakizunarekin. Hortik aurrera, egunero egingo dute jaiei eskainitako irratsaio berezia, 10:30etik 12:30ak arte. Bezperan izandakotik hasi, momentuan dagoenetik segi eta biharamunean izango dena, horren guztiaren kronikak izango dira; jakina, berriemaileak kalera aterako dira, jai-giroa bertatik bertara helarazteko.



Arrasate Irratiko Ubane Madera eta Aitziber Aranburuzabala berriemaileak eta Gaizka Vitoria teknikaria. USOA AGIRRE

**SAN JUANEN MAGAZINEA**

GOITBri dagokionez, berriz, San Juanen gaineko saio berezia eguaztenean egingo dute. Hain zuzen ere, hilaren 24an izango da, 19:45ean hasita. Eguneroko saioaren barruan, magazin berezia egingo dute, San Juan jaiak oinarri hartuta. Horrez gainera, Julen Iriondo lankideak jai-kontuekin bilduma prestatuko du egubakoitz gauean erreportaje eran botatzeko. Erreportaje hori ikusi ahal izango da 22:15ean.

## Opari bereziak, San Juanetarako

**San Juanetako oihartzuna jaiak hasi baino lehenago iritsiko da Arrasate Irratira, besteak beste, ekainaren 19an zozketa egingo dutelako, domekako pilota partidurako sarrerekin; besteak beste, Irujo eta Beroizek Gonzalez eta Pascualen kontra jokatuko duten partidu estelarrerako. Horrez gainera, eguaztenean (ekainaren 24ko) egingo duten Dragoi Janerako txartelak ere eman dizkiete AED elkartekoek irratiko entzuleen artean zozketatzeko. Zozketetan parte hartzeko bideak honako hauek dira: 943 25 05 05, *irratia@goiena.com* edo Goiena.net webgunean dagoen irratiko blogaren bitartez.**

EAJ
PNV
San Juan jaixak ondo pasau!
e-mail: arrasateaj@gipuzko.com www.eaj-pnv.eu


Ekain ekainetan
San Juan gabetan
errementari danok
gabitz kantetan
Gora Arrasate!
ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN